# HIZKUNTZEN INDUSTRIA

## Euskal Autonomia Erkidegoan



# EUSKARAREN ERAGIN EKONOMIKOA

## Gipuzkoan



2019ko ekaina

LANGUNE
HIZKUNTZ INDUSTRIEN ELKARTEA EUSKAL HERRIAN
ASOCIACIÓN DE INDUSTRIAS DE LA LENGUA EN EL PAIS VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

Siadeco
ikerketa aplikatua

# Aurkibidea

Sarrera ........ 3

Helburuak ........ 4

Metodologia ........ 7

Inkesta ........ 8

Zeharkako informazio-iturriak ........ 9

Euskararen eragin ekonomikoa kalkulatzeko urrats metodologikoak ........ 10

Hizkuntzen industria Euskal Autonomia Erkidegoan ........ 14

Euskararen Eragin Ekonomikoa Gipuzkoan ........ 113

# Sarrera

LANGUNE Euskal Herriko Hizkuntz Industrien enkarguz egindako ikerketa aurkezten du Siadeco Ikerketa Elkarteak txosten honetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azterlana da eta helburu bikoitza du: EAEko hizkuntzen industriaren azterketa sektoriala egitea eta euskararekin lotutako jarduera-sektoreek Gipuzkoako ekonomian duten eragina aztertzea. Txosteneko atal bana eskaini zaio helburu bakoitzari.

# Helburuak





Helburu bikoitza du ikerketak:

1 EAEko hizkuntzen industriaren azterketa sektoriala egitea: hizkuntzen industriakoak kontsideratutako langile autonomo, enpresa eta entitateen egiturazko ezaugarri sektorialak, dimentsio ekonomikoa, berrikuntza maila eta etorkizuneko erronkak.

| | | | |
|---|---|---|---|
| KARAKTERIZAZIOA<br><br>zenbat enpresa, establezimendu, autonomo, langile...azpisektore bakoitzean | ENPLEGUA<br><br>zenbat, sexua, adina...azpisektore bakoitzean eta bilakaera | FAKTURAZIO BOLUMENA<br><br>zenbat (Langunekoak eta besteak), nora (Gipuzkoan bertan, Erkidegoa, Euskal Herria, Espainia, Frantzia...), nori (herri erakundeak edo elkarte pribatuak; sektore ekonomiko ezberdinak)... | MERKATU BERRIETARA ZABALTZEKO AUKERAK ETA ZAILTASUNAK<br><br>produktu berriak nahiz herrialde berriak |
| KALITATE ZIURTAGIRIAK ETA FORMAZIO NAHIZ HOBEKUNTZA PROZESUAK<br><br>zenbatek, zein, zailtasunak... | IKERKETA ETA BERRIKUNTZARAKO JARDUERAK (I+G+B)<br><br>oinarrizko ikerkuntzara, ikerketa aplikatura edota garapen esperimentalera bideratutako baliabideak | ALIANTZAK ETA PROIEKTU PARTEKATUAK BESTE ENTITATEEKIN | ETORKIZUNEKO ESPEKTATIBAK |

2 Jarduera-sektore gisa, euskarak GIPUZKOAn duen eragin ekonomikoa neurtzea: hizkuntzen industriakoak izan gabe, hizkuntzari hertsiki lotuta dauden beste sektore batzuk ere kontuan hartu dira horretarako: kultura eta hedabideen industria, hezkuntza arloa eta administrazio publikoaren jarduerak ere kontuan hartuta.

Erkidego mailan Eusko Jaurlaritzak 2015ean lehen aldiz egindako ikerlanaren parekoa da, Gipuzkoa mailakoa (EAEko ekonomiak sortzen duen enpleguaren %6,3, eta Balio Erantsi Gordinaren %4,5 euskarari lotua dago. Sektore ekonomiko gisa, erkidegoko Barne Produktu Gordinaren %4,2 dagokio euskarari). Ondorengoak dira aztertu diren hiru puntu nagusiak:

a. Eragin zuzena: euskararen industriakoak diren zerbitzu-enpresek, euskaraz sortutako edukien kultur sektore ezberdinek, euskarazko irakaskuntzak nahiz herri administrazioetako euskara zerbitzuek zuzenean sortutako enpleguari lotua dago. Euskararen jarduera-sektoreetan enplegatutako langileak kuantifikatu (euskaltegietako irakasleak, itzultzaileak, euskal hedabideetako kazetariak, administrazio publikoko hizkuntza normalizatzaileak...) eta euskararen zuzeneko enpleguari dagozkion gainerako magnitude ekonomikoak kalkulatu dira jarraian (fakturazio bolumena, Ekoizpen Balioa eta Balio Erantsi Gordina).

b. Zeharkako eragina: euskararen sektore eta jarduera-adarrek egiten dituzten era guztietako gastu eta inbertsioek, sektore horietan eta Gipuzkoako ekonomia produktiboaren gainerako sektoreen ekoizpenean, enpleguan eta errentan ere eragiten dute. Adibidez, euskarazko hedabide edo liburuen ekoizpenak, zeharka, arte grafikoen edota paperaren industrian eragiten du. Euskara-sektore horiek beste sektoreetakoak diren Gipuzkoako enpresetatik hornitzen diren neurrian, euskara-sektoreen ekoizpenak beste sektoreen ekoizpenean ere eragiten du, zeharkako eragin ekonomikoa sortuz.

c. Eragin induzitua: euskararen zuzeneko eta zeharkako enpleguaren familia errentetatik abiatuta, errenta horien zati bat barne kontsumorako erabiltzen da eta kontsumo horrek Gipuzkoako ekonomia produktiboan duen eragina neurtu da azkenik, euskararen eragin induzitua kalkulatzeko. Eragin induzituarekin, familiek kontsumitzen dituzten produktu guztien ekoizpenak (elikadura, etxebizitza, aisialdia etab.). Gipuzkoako sektore ekonomiko ezberdinetan eragindako inpaktua neurtzen da.

# Metodologia





## Inkesta

Ikerketaren bi ataletarako informazioa biltzeko landa-lana egin da, alde batetik. EAEko hizkuntzen industriaren azterketa sektoriala egiteko, 260 inkesta bildu dira, sektorearen dimentsio ekonomikoa neurtzeko eta sektorearen egiturazko ezaugarriak, berrikuntza maila eta etorkizuneko aurreikuspenak ezagutzeko.

1. Taula. Hizkuntzen industria EAEn

| Unibertsoa | Lagina | Inkesta bete dutenak |
|---|---|---|
| 906 | 477 | 260 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

Euskararekin lotutako jarduera-sektoreek Gipuzkoako ekonomian duten eragina aztertzeko, Kultura eta hedabideen industriako 167 inkesta bildu dira, eta EAEko hizkuntzen industriari buruzko inkestetatik, Gipuzkoakoak direnen erantzunak ere baliatu dira (118).

2. Taula. Euskararen eragin ekonomikoa Gipuzkoan (inkesta)

| | |
|---|---|
| Kultura eta hedabideen industria | 167 |
| Hizkuntzen industria | 118 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

Hezkuntzaren eta Administrazio publikoaren sektoreei dagozkien kalkuluak egiteko, zeharkako informazio-iturriak erabili dira, baita aurreko bi sektoreetako datuak osatzeko ere.

## Zeharkako informazio-iturriak

*Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda* (Eustat, 2016)

*Euskal Editoreen Elkartea*

*Euskadiko Editoreen Elkartea*

*Arte eta Kultur Industrien Estatistika* (KEB, 2015)

*Euskal Autonomia Erkidegoko Argitalpenei buruzko XXIII. Txostena* (Euskadiko Editoreen Elkartea, 2017)

*Arte eta Kultur Industrien Estatistika* (KEB, 2015)

*EAEko zinema areto publiko nahiz pribatuei buruzko Ikerketa* (KEB, 2010)

*Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa* (HPS, 2015)

*Euskarazko Hedabideen kostu estandarrak* (HPS, 2018)

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila: Ikasturteko klase orduak*

*Eustat: Hezkuntza Estatistika 2017/2018*

*Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan* (KEB, 2016)

## Euskararen eragin ekonomikoa kalkulatzeko urrats metodologikoak

11 urratsetan laburbildu daiteke, metodologia aldetik, azterketa ekonomikoa aurrera eramateko egindako ibilbidea:

1

Hizkuntza sektoreak eta azpi-sektoreak definitu

4 hizkuntza-sektore orokor eta 20 azpi-sektore.

2

Lanerako unibertsoa definitu; sektore eta azpi-sektore bakoitzeko enpresa, elkarte eta erakundeen gidazerrenda osatu.

3

Jarduera-adarrak, euskarari inputatu beharreko enpleguaren arabera sailkatu.

Jarduera-adar batzuetako enplegua oso-osorik euskarari lotua dagoen bezala, adibidez Euskaltegietakoa, beste jarduera-adar batzuetako enpleguaren zati bat bakarrik inputatu zaio euskarari, adibidez Hizkuntza Eskola Ofizialen kasuan edo itzulpengintza sektoreko enpresa eta langile autonomoen kasuan.

4

Sektoretako azterlan eta informazio-iturrietako datuen azterketa.

Azpi-sektore eta jarduera-adarren araberako azterlan eta informazio-iturriak erabiliz, datu ekonomikoak, enpleguari buruzko informazioa eta euskarari inputatu beharreko enplegua estimatzeko ahalik eta datu gehien eskuratu da.

### 5

Enplegua eta euskarari dagokion ekoizpen balioa ezagutzeko zuzeneko datu bilketa eta inkesta enpresetan.

### 6

Jarduera-adar bakoitzeko enpleguari aplikatu beharreko euskara-koefizienteak kalkulatu.

Alde batetik enpresetan egindako inkestaren emaitzak erabilita, eta bestetik, lehendik jasotako sektorekako datu ekonomikoak eta euskarazko ekoizpen-mailari buruzkoak ere erabilita, jarduera-adar bakoitzean aplikatu beharreko euskara-koefizienteak kalkulatu dira. Euskara-koefizienteak adierazten du, jarduera-adar bakoitzean enplegatutako langile guztietatik zein portzentaje dagokion euskarari.

### 7

Euskarari dagokion enplegua kalkulatu.

Jarduera-adar bakoitzean kokatutako enpresa, elkarte eta erakundeen guztirako enpleguaren datua, aurrez kalkulatutako euskara-koefizientearekin biderkatu ondoren, euskararen zuzeneko enplegua kalkulatu da.

### 8

Euskararen balio ekonomikoaren makromagnitude ekonomikoen kalkuluak egin.

Behin euskararen zuzeneko enplegua ezagututa eta Eustat-etik eskuratutako Zerbitzuen Inkestako datu ekonomikoen ratioak erabiliz, euskararen balio eta dimentsio ekonomikoa adierazten duten aldagaiak kalkulatu dira: euskara-sektoreei dagokien enplegua, soldata-ordainketak, Balio Erantsi Gordina eta fakturazioa.

## 9

Euskara-sektoreen zeharkako eragin ekonomikoa neurtu.

Eustat-en Input/Output tauletako koefiziente teknikoak aplikatuz eta euskararen jarduera-adarretarako kalkulatutako zuzeneko enplegua oinarri hartuta, jarduera-adar horietako enpresek sektore berean eta beste sektoreetan egindako gastu eta inbertsioak kalkulatu dira; gastu eta inbertsio horiek euskara-sektoreen zeharkako eragin ekonomiko gisa kontsideratu dira.

## 10

Eragin induzitua kalkulatu.

Kasu honetan Input/Output tauletako informazio sisteman oinarria duten Leontief koefizienteak erabili dira inpaktu induzitu hori kalkulatzeko. Euskararen zuzeneko eta zeharkako enpleguak sortzen dituen errentak eta errenta horietatik eratorritako kontsumoak Gipuzkoako sektore ekonomikoen azken eskarian duen eraginaren araberakoa da eragin induzitu hori.

## 11

Euskarak sektore ekonomiko gisa Gipuzkoako Barne Produktu Gordinean duen pisua kalkulatu.

Euskara-sektoreen eragin zuzena, zeharkakoa eta induzituaren guztirako Balio Erantsi Gordinari produktuen gaineko zerga garbiak erantsi ondoren, Gipuzkoako Barne Produktu Gordinaren zenbateko osotik euskara-sektoreei dagokiena zenbat den kalkulatu da.  Produktuen gaineko zerga garbiak zenbat diren kalkulatzeko, lehendabizi Balio Erantsi Gordinaren gaineko zergarengatik ordaindu beharrekoa kalkulatu da (produktu edo zerbitzu-mota bakoitzari dagokion BEZ tipoaren arabera), eta ondoren, herri-administrazioek euskararen sustapenerako eta euskarazko kultura sustatzeko emandako diru-laguntzen zenbatekoa kendu da.


ZUZENEKOA
ZEHARKAKOA
INDUZITUA
Euskararen sektorekoak diren jarduera-adarrek beste sektoreetan egindako gastu eta inbertsioari dagokiona
Zuzeneko eta zeharkako enpleguaren errentek Gipuzkoan sortutako kontsumoa eta kontsumo horretarako Gipuzkoan ekoizten denaren arabera
Input-Output Taulak
Prozedura
1. Sektoreen datu ekonomikoak (Balio Erantsi Gordina eta enplegua), Input-Output tauletako jarduera-adarretan kokatu
2. Zuzeneko enpleguaren balioetatik abiatuta eta IO adar bakoitzean bildutan JESN-09 epigrafeei jarraiki, euskararen zuzeneko enpleguaren IO adar bakoitzeko koefizienteak kalkulatu
3. IO adarraren arabera, euskararen ZUZENEKO enplegua eta BEGri dagozkion Ekoizpen Balioak kalkulatu
4. IO taula simetrikoko koefiziente teknikoak aplikatu: IO adar bakoitzeko ekoizpen balioa eta bitarteko kontsumoa lotzen dituzte
5. IO koefiziente tekniko biderkatzaileak aplikatuta, euskara sektoreak hornitzen dituzten jarduera-adar guztietara zabaltzen den inpaktu ekonomikoa kalkulatu: euskararen ZEHARKAKO ERAGINA
6. Zuzeneko eta zeharkako ekoizpen baliotik abiatuta, IO adar bakoitzeko soldaten ordainketa/ekoizpen balioaren koefizientea aplikatuz, zuzeneko eta zeharkako enpleguari dagokion soldaten zenbatekoa kalkulatu
7. Soldatapekoen errenta gordinari PFEZren batez besteko tasa efektiboa eta langilearen gaineko gizarte segurantza kotizazioak kendu: familiek aurrezkirako eta kontsumorako erabilgarri duten zenbatekoa
8. Errenta erabilgarriari aurrezkirako erabilitakoa kendu: kontsumora destinatutako zenbatekoa
9. Familien etxeko kontsumoaren guztirakoa, taula simetrikoko IO adarren arabera banatu, produktuen gaineko zergak kendu ostean
10. Adar bakoitzari dagozkion Leontief koefizienteak aplikatu (BEG/ekoizpen balioarekiko, enplegua/ekoizpen balioarekiko): eragin INDUZITUAREN datuak: ekoizpen balioa, BEG eta enplegua
Azken emaitza: EUSKARAREN GUZTIRAKO BALIO ERANTSI GORDINA
11. IO adar bakoitzeko BEG eta jarduera motari dagokion BEZaren arabera, produktuen gaineko zerga gordinen zenbatekoa estimatu
12. Kalkulatutako zenbatekoari Gipuzkoako herri administrazioen euskararen arloko eta kulturaren sustapenerako diru-laguntzak kendu: produktuen gaineko zerga garbia
Balio Erantsi Gordinari, produktuen gaineko zerga garbia gehituz, BARNE PRODUKTU GORDINA kalkulatu da

# HIZKUNTZEN INDUSTRIA

Euskal Autonomia Erkidegoan



# 2019

# Aurkibidea [Hizkuntzen industria EAEn]

Laburpena ..... 17

Dimentsio ekonomikoa eta ezaugarri nagusiak ..... 18

Hizkuntzen irakaskuntza ..... 21

Itzulpengintza eta interpretazioa ..... 26

Eduki linguistikoen lanketa ..... 31

Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena ..... 35

1. Hizkuntzen industria EAEn ..... 39

1.1 Unibertsoaren eta laginaren arteko alderaketa ..... 42

1.1.1 Segmentuaren arabera ..... 42

1.1.2 Lurralde historikoaren arabera ..... 43

1.1.3 Enplegu-tartearen arabera ..... 45

1.1.4 Entitate motaren arabera ..... 46

1.2. Dimentsio ekonomikoa ..... 48

1.2.1. Enplegua ..... 49

1.2.2. Fakturazioa ..... 51

1.3 Zerbitzu motak eta enplegua ..... 53

1.3.1 Eskainitako zerbitzu mota ..... 53

1.3.2 Beste segmentu batzuetako zerbitzuak ..... 56

1.3.3 Hizkuntzen industriakoak ez diren zerbitzuak ..... 57

1.3.4 Ikuspuntu kualitatiboa: zerbitzu motari buruzko xehetasunak ..... 58

1.4 Jarduera ekonomikoa eta hizkuntzak ..... 59

1.4.1 Fakturazio bolumena ..... 59

1.4.2 Jarduearen bilakaera ..... 63

1.4.3 Ikuspuntu kualitatiboa: bilakaeran eragina izan duten faktoreak ..... 70

1.5 Formakuntza, ikerketa eta berrikuntza teknologikoa ..... 73

1.5.1 Formakuntza, ikerketa eta berrikuntza proiektuetan parte hartu duten enpresak ..... 73

1.5.2 Formakuntza, ikerketa eta berrikuntza jarduerak aurrera eraman dituzten enpresak ..... 76

1.5.3 Ikuspuntu kualitatiboa: azken hiru urteetan formakuntza, berrikuntza eta teknologia arloan emandako urratsak ..... 78

1.5.4 Ikuspuntu kualitatiboa: formakuntza, berrikuntza eta teknologia berrien arloko erronkak, beharrak eta zailtasunak ..... 80
1.5.5 Ikuspuntu kualitatiboa: berrikuntza eta teknologia aurreratuko aplikazioen (hizketa automatikorako teknologiak, itzulpen automatikoa, elearning...) aukerak eta mehatxuak ..... 82
1.5.6 Eraldaketa digitalaren eta online eskaintzen diren hizkuntz industriako zerbitzuen eragina enpresen jardueran ..... 84
1.5.7 Ikuspuntu kualitatiboa: Eraldaketa digitalaren eta online eskaintzen diren hizkuntz industriako zerbitzuen eragina ..... 85
1.5.8 Kudeaketa arloko zertifikazio edo ziurtagiriak (kalitatea, ingurumena, hizkuntzaren kudeaketa...) ..... 86
1.5.9 Atzerriko hizkuntzak ikasten dituzten ikasleen hizkuntza -gaitasuna ofizialki egiaztatzeko, lehendik daudenez gain, EAEko akreditazio sistema propioa garatzeko beharra ..... 88

1.6 Lehiakortasun faktoreak ..... 89

1.6.1 Enpresen lehiakortasun maila edo posizionamendu estrategikoa ..... 89
1.6.2 Ikuspuntu kualitatiboa: enpresen indarguneak, lehiakortasun eta posizionamendu estrategikoari dagokionez ..... 94
1.6.3 Ikuspuntu kualitatiboa: enpresen ahuleziak, lehiakortasun eta posizionamendu estrategikoari dagokionez ..... 95
1.6.4 Emaitza ekonomikoen bilakaera ..... 97
1.6.5 Bilakaera, langile kopuruari dagokionez ..... 99

1.7 Kolaborazio maila ..... 101

1.7.1 Kolaborazio aktiboa beste entitateekin ..... 101
1.7.2 Ikuspuntu kualitatiboa: kolaborazio aktiboa beste entitateekin ..... 104
1.7.3 Ikuspuntu kualitatiboa: zein elkarte edo entitaterekin kolaboratzen duten enpresek ..... 106
1.7.4 Ikuspuntu kualitatiboa: kolaborazioaren abantailak ..... 107
1.7.5 Ikuspuntu kualitatiboa: kolaborazioaren desabantailak ..... 108

1.8 Languneri buruz ..... 109

1.8.1 Languneri buruzko informazioa ..... 109
1.8.2 Ikuspuntu kualitatiboa: Zer eskatzen dioten Languneri ..... 111

# Laburpena

## HIZKUNTZEN INDUSTRIA

Euskal Autonomia Erkidegoan



## Dimentsio ekonomikoa eta ezaugarri nagusiak

EAEko Hizkuntzen Industria osatzen duten lau segmentuetako enpresek **211,3 milioi euro inguru fakturatu eta 4.600 enplegu** inguru sortzen dituzte, hizkuntzen industriarekin lotutako jarduerak soilik kontuan hartuta. Izan ere, eduki linguistikoen lanketan eta hizkuntza teknologien garapenean, batez ere, badaude jardueraren zati bat Hizkuntzen Industriaz aparteko zerbitzuetara bideratzen dutenak.

**Enpleguan eta fakturazioan pisu gehien duen segmentua hizkuntzen irakaskuntza da**, alde handiarekin, gainera. Hizkuntza teknologien garapeneko eta zabalpeneko segmentuak, enplegu gutxiago dituen arren, fakturazioan eduki linguistikoen lanketa gainditzen du.




Errealitate anitza ordezkatzen du Hizkuntzen Industriak, askotariko enpresa eta jarduera motak biltzen dituen sektorea baita. Hori dela eta, hurrengo atalean segmentu bakoitzari buruzko azterketaren ondorio nagusiak laburbilduta datoz. Edonola ere, ondorengoak dira, ikerketaren emaitzen arabera, sektorearen inguruan orokorrean azpimarra daitezkeen ezaugarri nagusiak.

- Enpresa gehienak txikiak dira, autonomo ugari dago.
- Kokapenari dagokionez, Gipuzkoan dago kontzentrazio handiena.
- Langileen bi heren pasatxo emakumezkoa da.
- Euskalgintzako eragileekiko lotura eta harremana handia da.
- Eskainitako zerbitzuaren xede-hizkuntzari dagokionez, euskara da nagusi.
- Globalizazio sozial eta ekonomikoarekin lotuta, aukera berriak antzematen dira.

- Administrazio publikoarekiko mendekotasuna handia da, diru-laguntzak direla eta, baina kontratazioei dagokienez ere bai.
- Langileen prestakuntza eta kualifikazio-maila da lehiakortasun faktore nagusia.
- Teknologia berriekiko ikuspuntu bikoitza dago. Onurak onartzen dituzte, baina mehatxu gisa ikusten dituzte batzuek.
- Iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren arriskuaz ohartarazi dute.
- Enpresa handiekin eta frankiziekin lehiatzeko zailtasuna azpimarratu dute.
- Nazioartekotzea ez dago zabaldua sektorean, hizkuntza-teknologien segmentua salbuespena da.
- Bilakaera eta aurreikuspen positiboenak dituzten enpresak dibertsifikatuenak dira, kolaborazio-maila handiena dutenak eta berrikuntza teknologikoei modu baikorrenean aurre egin dietenak.
- Kolaborazioaren desabantailen artean, elkarlanari eskaini beharreko dedikazioa, denbora eta horrek dakarren kostua azpimarratu dituzte.
- Komunikazioa, marketing-a eta teknologia berriak lantzea aurreikusten dute bilakaera positiboena dutenek.
- Ingelesarenaz gainera, txineraren eta arabieraren hazkundea aurreikusten dute.
- Langunek harreman handia du hizkuntza-teknologien segmentuarekin, baina txikia irakaskuntzarekin eta itzulpengintzarekin.

Irakaskuntza arautua kontuan hartuta

Hizkuntzen Industriaren ulerkera zabalago batean, unibertsitate aurreko hezkuntza arautuko hizkuntza-irakasgaiak eta hizkuntzekin eta itzulpengintzarekin lotutako unibertsitate gradu eta graduondokoak erantsi litezke.

Haur eta Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntza-mailetarako 17.104 lagun inguruko enplegua estimatu da, Euskara, Gaztelania eta atzerriko hizkuntzetako irakasgaiak kontuan hartuta.

Unibertsitateari dagokionez, guztira hizkuntzekin zuzenean lotutako 8 gradu ezberdin eskaintzen dituzte EAEko unibertsitateek, eta horiez aparte, beste 17 graduondoko, master edota hizkuntzaren arloko espezializazio ere bai. 327 lagun inguruko enplegua estimatu da unibertsitate arloko ikasketa horietarako.

Irakaskuntza-maila guztiak kontuan hartuta, beraz, 17.430 enplegu erantsi beharko litzaizkioke Hizkuntzen Industriari. 22.030 enplegu inguru izango lirateke guztira.

## Hizkuntzen irakaskuntza

- Segmentuko enpresen erdia, ia, euskararen irakaskuntzan ari da (%48,6), eta beste %44,8 hizkuntza ezberdinen irakaskuntzan (Hizkuntza Eskola Ofizialak barne).
  - Euskaltegietan, euskara eskolak eskaintzeaz eta mailak egiaztatzeaz gainera, normalizazio linguistikoarekin lotutako bestelako zereginetan parte hartzen dute: euskara planetan, hizkuntza aholkularitzan, administrazioko langileen trebakuntzan etab.
  - Ingelesaren irakaskuntzan ari diren zentroetan, eskola-errefortzu klaseak eta enpresetan (esportaziora bideratutakoetan, bereziki) ematen dituzten klaseak dira ezaugarri bereizgarriak.
  - Gainerako zentroetan (hizkuntza ezberdinen irakaskuntza eskaintzen dutenak, Hizkuntza Eskola Ofizialak barne), azterketa ofizialen prestaketa edo atzerriko egonaldiak nabarmendu daitezke. Dena den, kultur proiektuetan edo euskararen normalizazio egitasmoetan parte hartzen duenik ere bada.
- Hizkuntzen irakaskuntzako segmentuan, hizkuntzen industriarekin lotutako batez besteko fakturazio bolumenaren %95,7 EAEn eskainitako zerbitzuei dagokie.
- Xede-hizkuntzari erreparatuta, hizkuntzen irakaskuntzako enpresen batez besteko fakturazio bolumenaren erdia gainditzen du euskarak (%54,2), baina pisu handia du ingelesak ere (%36,8).

Hizkuntzen industriari loturiko fakturazio bolumena, xede-hizkuntzaren arabera (batez besteko %)




*Iturria: Siadeco, 2019*

- Bezero tipologiaren arabera, **bezeroen artean partikularrak dira nagusi**: helduak ( batez besteko fakturazio bolumenaren %56,5) eta gazteak (%21). **Enpresa pribatuen pisua ere nabarmentzekoa da, hala ere, hizkuntzen irakaskuntzan (%15,3)**.

- Hizkuntzen irakaskuntzako **enpresen %3,8k baino ez du parte hartu, azken urtean, ikerketa, berrikuntza edo garapen esperimentaleko proiekturen batean**.

- Segmentuko enpresen %32,4k uste du digitalizazioak eragin positiboa duela; %4,8k, negatiboa.

    – **Ikaslearen ikuspuntutik eragina positiboa** dela adierazi dute, oro har, aukera horrek eskaintzen dituen askatasuna eta malgutasuna kontuan hartuta. **Irakaslearen ikuspuntutik, berriz, eragozpenak azpimarratzen dituzte, lan-karga handitzea eta baldintzak okertzea dakarrelako**. Enpresaren ikuspuntutik, lehiari eusteko gastua handitzea dakarrela aipatu dute.

- Hizkuntzen irakaskuntzaren **segmentuko enpresen %20k soilik uste du hizkuntzen ezagutza egiaztatzeko EAEko sistema propioa garatzea garrantzitsua dela**. Are gehiago, enpresen %23,8k uste du ez duela garrantzirik. Dena den, enpresen erdiak, ia, ez daki edo ez du zehaztu erantzunik (%47,6).

Hizkuntzen akreditazio sistema propioa garantzeko beharra (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

- **Enpresen %86,7k langileen prestakuntza eta kualifikazio maila azpimarratu ditu lehiakortasun eta posizionamendu faktore nagusien artean**. Bestalde, merkatu kuota altuagoa lortzeaz gainera (enpresen %70,4k garrantzi handia edo oso handia), giza baliabideen kudeaketa (%69,3) eta lan-prozesuen hobekuntza eta optimizazioa (%68) ere azpimarratu dituzte.
    - **Gehien errepikatzen den indargunea esperientzia da, irakasleen eskarmentua eta enpresen izen ona**, sektorean ahoz ahokoak ondo funtzionatzen duelako. Hurbiltasuna ere sarritan aipatzen dute.
    - Euskaltegien artean ahulezia nagusiak: **tituluak lortzeko helburua zabaldu izana eta langileen plantillak berritzeko zailtasunak**. Ingelesa eta beste hizkuntzak irakasten dituzten zentroen kasuan, **zentroen arteko lehia bizia, frankizia eta kate handien eraginez, batez ere**.
- Emaitza ekonomikoen eboluzioari erreparatuta, **hizkuntzen irakaskuntzan, gainerako segmentuekin alderatuta, baxua da azken hiru urteetan bilakaera positiboa edo oso positiboa eduki dutenen portzentajea (%43,2)**.
- Hizkuntzen irakaskuntzan, **enpresen erdiak baino gehiagok langile kopurua murriztu du**, azken hiru urteetan.
- Segmentuko enpresen %45,8 da beste entitateekin kolaborazio aktiboa duena, kontratazio bidezko lanez aparte.
    - Euskaltegien kasuan, zentroen artean harremana edukitzeaz gainera, arlo instituzionalean HABErekin harremana dute, eta sozialean, tokiko euskara elkarteekin. Hizkuntza Eskolek ere harreman-sare instituzionala dute, eta **gainerako hizkuntza-akademiek, batez ere, ikasleen mugikortasunarekin lotutako harremanak dituzte**, ikasleak beste herrialdeetara bidaltzeko edo horietatik ikasleak bertara ekartzeko.
    - **Diferentzia handiena da Euskaltegiek, herrietan dituzten harremanengatik, tokiko ekintza eta jardueretan parte hartzeari garrantzia ematen diotela**. Beste hizkuntzen irakaskuntzan ari direnek, aldiz, dimentsio handiagoko proiektuetan parte hartzeari garrantzia ematen diote. Zentroen arteko lankidetza dutenek lana erraztea,

- irizpideak bateratzea edo arazoei irtenbideak ematea azpimarratzen dituzte.

- Hizkuntzen irakaskuntzako enpresen %69,4k ez du Langune ezagutzen.

    - Languneri eskatzen diotenari dagokionez, merkatu-ikerketa bat egitea aipatu dute gehienek, baina helburu ezberdinekin, multzoen arabera: euskararen benetako erabilera sustatzeko, Euskaltegiek; eta iruzurrarekin eta ezkutuko ekonomiarekin amaitzeko, gainerakoek. Sarritan aipatu dute mehatxu hori.

AMIA analisia: Hizkuntzen Irakaskuntza

| | INDARGUNEAK | AHULEZIAK |
|---|---|---|
| BARNE ANALISIA | ▪ Lan-munduarekin, enpresen eskaerarekin eta globalizazioarekin lotuta eman den igoera, ingelesari eta neurri apalago batean, alemanari eta frantsesari dagokionez.<br>▪ Euskararen kasuan, oposaketen eragin positiboa edo matrikulak ordaintzeko erakunde publikoek ematen dituzten diru-laguntzena.<br>▪ Esperientzia, irakasleen eskarmentua eta enpresen izen ona, sektorean ahoz ahokoak ondo funtzionatzen duelako. | ▪ Lehia gero eta handiagoa eta prezio baxuak zabaltzea.<br>▪ Krisi ekonomikoaren ondorioak: familiek ez dute lehen bezain beste gastatzen akademietan.<br>▪ Tresna eta baliabideak eskuratzearekin eta horiek erabiltzen ikasteko formakuntzarekin lotuta, horiek aurrera eramateko denbora eta finantzazio falta. |
| | AUKERAK | MEHATXUAK |
| KANPO ANALISIA | ▪ Ikaslearen ikuspuntutik, digitalizazioaren eragin positiboa, askatasunari eta malgutasunari dagokienez.<br>▪ Euskaltegien kasuan, zentroen artean harremana edukitzeaz gainera, arlo instituzionalean HABErekin harremana dute, eta sozialean, tokiko euskara elkarteekin. Hizkuntza Eskolek ere harreman-sare instituzionala dute, eta gainerako hizkuntza-akademiek, batez ere, ikasleen mugikortasunarekin lotutako harremanak dituzte, ikasleak beste herrialdeetara bidaltzeko edo horietatik ikasleak bertara ekartzeko. | ▪ Euskararen kasuan, soilik titulu bila dabiltzan ikasleak (titulua lortuta, ikasketa-prozesuan aurrera egiten ez dutenak).<br>▪ Itzulpen teknologien mehatxua, ez berehalakoa, baina bai epe ertainekoa: 5-10 urte.<br>▪ Digitalizazioaren eragin negatiboa, irakaslearen ikuspuntutik, lan-karga handitzea eta baldintzak okertzea dakarrelako. Enpresaren ikuspuntutik, lehiari eusteko gastua handitzea.<br>▪ Ingelesa eta beste hizkuntzak irakasten dituzten zentroen kasuan, zentroen arteko lehia bizia, frankizia eta kate handien eraginez, batez ere.<br>▪ Segmentuan iruzurra eta ezkutuko ekonomia zabaldu izana. |

## Itzulpengintza eta interpretazioa

- **Sektoreko enpresa gehien biltzen duen segmentua da (%62,5). Baina segmentuaren %86,8, pertsona fisikoak edo autonomoak dira**.

- Itzulpengintza eta interpretazioko enpresa edo autonomo gehien-gehienek itzulpen tradizionala nahiz automatikoa lantzen dute (%97,8), %36,6k interpretazioa eta herena pasatxok software lokalizazioak.

- **Fakturazio bolumena xede-hizkuntzaren arabera aztertuta, gaztelaniaren batez besteko pisu erlatiboa gainditzen du ingelesarenak (%19,2)**. %52koa da euskararena.

- Itzulpengintza eta interpretazioaren segmentuan **enpresa pribatuak dira nagusi, bezeroen artean (batez besteko fakturazio bolumenaren %74)**.

Fakturazio bolumenaren banaketa, bezero tipologiaren arabera (batez besteko %)




*Iturria: Siadeco, 2019*

- Eskainitako zerbitzuen hizkuntzari dagokionez, **itzulpengintzako eta interpretazioko enpresen %27,8k adierazi du azken hiru urteetan txinerak gora egin duela, eta %37,5ek arabierak gora egin duela**.

- Itzulpengintza eta interpretazioko enpresen erdiak aurreikusten du hizkuntza teknologien garapeneko zerbitzuak haziko direla datozen hiru urteetan.

- Segmentuko enpresen %80k aurreikusten du datozen hiru urteetan komunikazioarekin eta diseinu grafikoarekin lotutako zerbitzuak haziko direla.

- Azken urtean software edo bestelako baliabide materialak erosi dituzten enpresen (%14,2) ia %60 itzulpengintza eta interpretazioko enpresak dira.

- Formakuntzaren eta berrikuntza teknologikoaren arloko gastuaren %67 administrazio publikoen diru-laguntzen bitartez finantzatu dute.

    - Ahaleginak egin dituzte, orokorrean, bai formakuntzan baita teknologia berrien arloan ere. Asko autonomoak direla eta lehiakortasunari eusteko zerbitzua hobetzera behartuta daudela kontuan hartu behar da.
    - Itzulpen automatikoarekin lotutako teknologia berrien zabalpena da erronka nagusia, eta horien aurrean, kalitatezko produktua eskaintzea eta tarifak jaisteko presioari aurre egitea.
    - Teknologia horien garapenak lan-mota aldatuko duela ere uste dute, post-edizio zuzenketa-lanak areagotuko direlarik. Kalitateari baino, lehentasuna kostuari eta epeei ematen zaiela aipatu dute. Lan-baldintzak okertzea dakar horrek.

- Itzulpengintzan lanen entregarako epeak gero eta laburragoak direla nabarmendu dute (%69), eta kalitate eskakizunak gero eta altuagoak direla ere bai (%53).

    - Kalitateaz eta esperientziaz gainera, balio handia ematen zaio denborari, berehalakotasunari eta epeak betetzeari.
    - Lan-karga handia eta prezioak negoziatzeko ahalmen eskasa dira ahulezia nagusiak, bezero berriak lortzeko zailtasunarekin batera. Autonomoak edo enpresa txikiak izatearekin lotutako zailtasunak dira, oro har.

Garrantzia gehien duten faktorea, enpresen lehiakortasunari eta posizionamenduari dagokionez (garrantzi handia edo oso handia emand dietene enpresen portzentajea)




*Iturria: Siadeco, 2019*

- Itzulpengintzan eta interpretazioan %60ra hurbiltzen da azken hiru urteetan bilakaera positiboa edo oso positiboa eduki duten enpresen portzentajea (%58,4), baina %10 da bilakaera negatiboa edo oso negatiboa eduki duena.
- Segmentuko enpresen %11,2k bilakaera negatiboa edo oso negatiboa aurreikusten du, datozen hiru urteetarako.
- Gainerako segmentuen aldean, itzulpengintzan eta interpretazioan baxua da beste entitateekin kolaboratzen duten entitateen portzentajea (%31,5).

- Gutxi dira beste entitateekin kolaborazio lan aktiboa egiten dutenak. Gehienek beste autonomo batzuekin dute elkarlan bakarra.
- EIZIEren moduko entitateekin harremana dutenentzat, lan eskaintzen berri izatea eta ikastaroetan parte hartzeko aukera dira abantaila nagusiak. Elkarren artean kolaboratzen duten autonomoei dagokienez, elkarri laguntzeko edo lanak elkar trukatzeko aukera nabarmendu dituzte.
- Desabantailei dagokienez, elkarlanari eskaini beharreko dedikazioa, denbora eta horrek dakarren kostua azpimarratu dituzte, baita ohiko lan-erritmoa moteltzea ere.

- Itzulpengintzan eta interpretazioan, enpresen %53,5ek ez du Langune ezagutzen.

AMIA analisia: Itzulpengintza eta interpretazioa

| | INDARGUNEAK | AHULEZIAK |
|---|---|---|
| BARNE ANALISIA | ■ Orokorrean, krisi ekonomikoaren urteetan izandako beheraldiaren ondoren, fakturazioa gora egiten hasi da.<br>■ Ahaleginak egin dituzte, orokorrean, bai formakuntzan baita teknologia berrien arloan ere.<br>■ Kalitateaz eta esperientziaz gainera, balio handia ematen zaio denborari, berehalakotasunari eta epeak betetzeari. | ■ Lan-karga handia eta prezioak negoziatzeko ahalmen eskasa dira ahulezia nagusiak, bezero berriak lortzeko zailtasunarekin batera.<br>■ Gutxi dira beste entitateekin kolaborazio lan aktiboa egiten dutenak. Gehienek beste autonomo batzuekin dute elkarlan bakarra. |
| | AUKERAK | MEHATXUAK |
| KANPO ANALISIA | ■ Itzulpen automatikoarekin lotutako teknologia berrien zabalpenak ekar ditzakeen abantailak, lan-prozesuei dagokienez. | ■ Teknologia horien garapenak lan-mota aldatuko duela uste dute, post-edizio zuzenketa-lanak handituko direlarik. Lan-baldintzak okertzea dakar horrek.<br>■ Desabantailei dagokienez, elkarlanari eskaini beharreko dedikazioa, denbora eta horrek dakarren kostua azpimarratu dituzte, baita ohiko lan-erritmoa moteltzea ere. |

## Eduki linguistikoen lanketa

- Autonomorik ez dagoen arren, enpresa txikiak dira gehienak. %14,3 baino ez da 30 langiletik gorakoa.

- Eduki linguistikoen lanketako enpresen erdia enpresa pribatua edo kooperatiba da. Baina beste %43, irabazi asmorik gabeko elkarte edo fundazioa.

- Eduki linguistikoen lanketako segmentuan kokatutako enpresa gehienak hizkuntza-aholkularitzan aritzen dira (%71,4). Altua da, era berean, hizkuntzen kudeaketa eta normalizaziorako plangintzak lantzen aritzen direnen ehunekoa (%64,3).

- Eduki linguistikoen lanketako segmentuko enpresen %28,6k hizkuntzen irakaskuntzako zerbitzuak ere eskaintzen ditu.

- Segmentuko enpresen %35,7 aholkularitza zerbitzu orokorretan ere aritzen da, eta %21,4 ikerketan.

  - Jarduera aldetik, oso zabala eta anitza da multzoa, inkestatuek erantzundakoaren arabera. Ondorengoak aipatu dituzte, besteak beste: Euskararen erabilera sustatzea; Ahozko ondarea batu eta tokian tokiko euskara jaso, indartu eta hedatzea; Terminologia eta lexikografia; Euskal kultura eta euskara; Euskara planen aholkularitza; Ingeniaritza linguistikoa eta adimen artifiziala; Sozioekonomia eta soziolinguistika arloko ikerketak eta aholkularitza; Internet eta informatikako jarduerak.

- Salmentarako herrialdeen arabera, batez besteko fakturazio bolumenaren %90 baino gehiago Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio.

- Xede-hizkuntzari dagokionez, euskararen pisua oso altua da batez besteko fakturazio bolumenean (%83).

- Bezero tipologiari erreparatuta, batez besteko fakturazio bolumenaren %56,8 administrazio publikoei dagokie, eta %40 enpresa pribatuei.

Fakturazio bolumenaren banaketa, bezero tipologiaren arabera (batez besteko %)




*Iturria: Siadeco, 2019*

- Eskainitako zerbitzu motarekin lotuta, enpresen bi herenek adierazi du itzulpengintzako eta interpretazioko zerbitzuek gora egin dutela azken hiru urteetan, eta %40k aurreikusten du hizkuntzen irakaskuntzako zerbitzuak haziko direla datozen hiru urteetan.

- Sektoreko zerbitzuez aparte, eduki linguistikoen lanketako segmentuko enpresek hazkunde handia espero dute informazio eta komunikazio teknologiekin, komunikazioarekin eta diseinu grafikoarekin eta hezkuntzarekin eta formakuntzarekin lotutako zerbitzuetan.

Aurreikuspena: hizkuntzen industriakoez aparteko zein jardueratan emango den hazkundea, eskainitako zerbitzuei dagokionez (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

- Eduki linguistikoen lanketako enpresen %43k parte hartu du, azken urtean, formakuntza, ikerketa eta berrikuntza proiektuetan.

- Eduki linguistikoen lanketako enpresen erdiak adierazi du eraldaketa digitalak eragin positiboa duela. Bakar batek ere ez du adierazi eragin negatiboa duenik.

- Eduki linguistikoen lanketako enpresen %35,7k dauka kudeaketarekin lotutako ziurtagiriren bat. Gainerako segmentuetan baino nabarmen altuagoa da portzentajea.

- Lehiakortasun faktoreei dagokienez, administrazio publikoarekin kontratuak lortzeari garrantzi handia eman diote (%84,6).

    - Esperientzia da gehien baloratzen den indargunea.
    - Finantzazio publikoarekiko mendekotasuna eta prezio aldetik lehiakorra izateko zailtasuna dira ahulezia nagusiak.

- Nabarmentzekoa da eduki linguistikoen lanketan enpresa bakarrak ere ez duela azken hiru urteetan bilakaera negatiborik eduki. %64,2k bilakaera positiboa edo oso positiboa eduki du, eta %35,7k mantendu egin dela adierazi du. Era berean, ez dago hurrengo hiru urteetarako bilakaera negatiboa aurreikusten duen enpresarik.

- Enpresen %28,6k aurreikusten du langile kopurua handitu egingo duela datozen hiru urteetan.

- Eduki linguistikoen lanketan ematen da kolaborazio gehien (enpresen %85,7).

- Enpresen %71,4k unibertsitateekin kolaboratzen du. %35,7k zentro teknologikoekin.

    - Segmentu honetan handia da erakundeekin eta euskararen arloko beste entitateekin elkarlanean ari direnen kopurua.
    - Elkarlanari eskaini beharreko dedikazioa, denbora eta horrek dakarren kostua azpimarratu dituzte desabantailen artean, baita ohiko lan-erritmoa moteltzea ere.

- Segmentuko enpresen %64,3k badu nahikoa informazio Languneren inguruan.

    - Lankidetza eta eragin-gaitasun handiagoa eskatzen dizkiote, batez ere, erakundeekin.

AMIA analisia: Eduki linguistikoen lanketa

| | INDARGUNEAK | AHULEZIAK |
|---|---|---|
| BARNE ANALISIA | ▪ Merkatuaren bilakaera positiboa da.<br>▪ Teknologia eta tresna berriak eskuratzeko eta horiek erabiltzen ikasteko urratsak eman dituzte.<br>▪ Esperientzia da gehien baloratzen den indargunea | ▪ Finantzazio publikoarekiko mendekotasuna eta prezio aldetik lehiakorra izateko zailtasuna dira ahulezia nagusiak. |
| | **AUKERAK** | **MEHATXUAK** |
| KANPO ANALISIA | ▪ Kolaborazio-maila handia. | ▪ Elkarlanari eskaini beharreko dedikazioa, denbora eta horrek dakarren kostua, baita ohiko lan-erritmoa moteltzea ere. |

## Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

- **Segmentuko enpresen %71,4 Gipuzkoan kokatua** dago. Gainerakoak, Bizkaian.

- Tamainari dagokionez, **enpresa handi gehiago dago gainerako segmentuetan baino (%28,6, 30 langile baino gehiagokoa da).**

- Hizkuntza-teknologien garapenean eta zabalpenean ari diren enpresen artean, itzulpengintza automatikoa eta itzulpengintzan laguntzeko tresnak (%57,1), hizkuntza naturalen prozesaketa (%57,1) eta hizketa-teknologiak (%57,1) dira zerbitzu zabalduenak.

- Sektoreko zerbitzuez aparte, azpimarratzeko modukoa da hizkuntza-teknologien garapeneko enpresen %42,9k formakuntza ere eskaintzen duela, eta %28,6 informazio eta komunikazio teknologien arloan ere aritzen dela.

- Batez besteko **fakturazio bolumenaren %38,6 baino ez dagokio EAEri, salmentarako herrialdearen arabera**. %27 Europar Batasunaz kanpoko herrialdeei dagokie, eta %26 Espainiako estatuari.

Hizkuntzen industriari loturiko fakturazio bolumena, salmentarako herrialdearen arabera (batez besteko %)




*Iturria: Siadeco, 2019*

- Hizkuntza-teknologien garapeneko enpresa guztiek baieztatu dute arabierak gora egin duela, azken hiru urteetan, eskainitako zerbitzuaren hizkuntzari dagokionez. Igoera aurreikusten diote denek, halaber. Txinerari, aldiz, ez diote igoerarik aurreikusten.

- Hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko enpresen erdiak aurreikusten du datozen hiru urteetan eduki linguistikoen lanketako zerbitzuetan hazkundea izango dela. Sektoreko zerbitzuez aparte, marketing eta publizitatearekin lotutakoek gora egingo dutela aurreikusten dute.

- Lau segmentuen artean, hizkuntza-teknologien garapeneko enpresak dira ikerketa, berrikuntza edo garapen esperimentaleko proiektuetan gehien parte hartu dutenak (horien %71,4).

- Egindako gastuaren finantzazio-iturriei dagokienez, hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko segmentuan, azpimarratzekoak dira beste enpresetatik jasotako funtsak (finantzazioaren %42).
  - Proiektu berriak martxan jartzeko finantzazioa lortzea da zailtasun nagusia.
  - Mehatxu gisa ikusten dute enpresa teknologiko handiekiko mendekotasuna, haiek garatzen baitute teknologia.

- Lehiakortasun faktoreei dagokienez, hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko segmentuan, enpresa guztiek garrantzi handia edo oso handia eman diete administrazio publikoarekin kontratuak lortzeari, diru-laguntza bidezko finantzazioa lortzeari eta beste enpresekin aliantzak egiteari, besteak beste.
  - Indarguneen artean, esperientziaz gainera, teknologia berrien ezagutza aipatu dute.
  - Baliabide gehiago dituzten enpresa handiagoekin lehiatu behar izatea da ahulezia nagusia.

- Emaitza ekonomikoei dagokienez, aurreikuspen onenak dituen segmentua hizkuntza- teknologien garapena eta zabalpena da, enpresen bi herenek uste baitu bilakaera positiboa izango dela, eta oso positiboa, beste herenak.

Emaitza ekonomikoen hurrengo hiru urteetarako aurreikuspena (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

- Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena izan da bilakaera negatiboa izan ez duen bakarra, langileen kopuruari dagokionez. Enpresen herenak langile kopurua igo egin du azken hiru urteetan, eta beste bi herenek mantendu.

- Segmentuko enpresen bi herenek adierazi du langile kopuruak gora egingo duela datozen hiru urteetan.

- Hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko enpresen %57 da beste entitateekin kolaboratzen duena.
  - Enpresen %85,7k zentro teknologikoekin kolaboratzen du, eta %71,4k unibertsitateekin.
  - Segmentu honetako enpresak, oro har, aktiboak dira elkarlanean, unibertsitateekin, gune teknologikoekin eta bertako zein nazioarteko enpresekin. Europa mailako proiektuetan parte hartzen dute.
  - Desabantailen artean, elkarlanari eskaini beharreko dedikazioa, denbora eta horrek dakarren kostua azpimarratu dituzte, baita ohiko lan-erritmoa moteltzea ere.

- Hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko enpresa guztiek baieztatu dute badutela Languneri buruzko nahikoa informazio.
  - Diru-laguntzen kudeaketaz gainera, hizkuntz-industriak ikusgai egiteko lana eskatzen diote.

AMIA analisia: Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

| | | |
|---|---|---|
| BARNE ANALISIA | **INDARGUNEAK**<br>▪ Indarguneen artean, esperientziaz gainera, teknologia berrien ezagutza. | **AHULEZIAK**<br>▪ Proiektu berriak martxan jartzeko finantzazioa lortzea da zailtasun nagusia.<br>▪ Baliabide gehiago dituzten enpresa handiagoekin lehiatu behar izatea. |
| KANPO ANALISIA | **AUKERAK**<br>▪ Aktiboak dira elkarlanean, unibertsitateekin, gune teknologikoekin eta bertako zein nazioarteko enpresekin. Europa mailako proiektuetan parte hartzen dute. | **MEHATXUAK**<br>▪ Mehatxu gisa ikusten dute enpresa teknologiko handiekiko mendekotasuna, haiek garatzen baitute teknologia.<br>▪ Elkarlanari eskaini beharreko dedikazioa, denbora eta horrek dakarren kostua. |

# 1

# Hizkuntzen industria EAEn



Hizkuntzen irakaskuntza, itzulpengintza eta interpretazioa, eduki linguistikoen lanketa eta hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena biltzen ditu hizkuntzen industriaren sektoreak. Jarduera horietan guztietan, hizkuntza bera da jardueraren xedea; hizkuntza landu, irakatsi, erabili, interpretatu edota zabaltzera bideratutako produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa, elkarte, erakunde eta profesionalak dira.

Susperraldian dagoen sektore ekonomikoa da hizkuntzen industria, mundu mailan, faktore ezberdinak direla medio: globalizazio sozial eta ekonomikoa, mugikortasunaren hazkundea (migrazio mugimenduak, turismoa, esportazio / inportazioak), informazio eta komunikazio teknologien garapena, eleaniztasuna, hizkuntza-eskubideen inguruko sentsibilizazioa eta arautzea… Testuinguru horretan, hizkuntzen kudeaketak gero eta garrantzi handiagoa dauka ekonomia arloan.

Mundu mailan, badaude hizkuntzen industriaren aldeko apustu sendoa egin duten herrialdeak: Kanada, Finlandia, Irlanda, Estonia edo Herbehereak ,esate baterako. EAEn ere, gizarte elebidun / eleanitza lortzeko bidean emandako urratsen ondorioz, hizkuntzen kudeaketaren inguruko industria oso bat sortu da azken hamarkadetan. Alde horretatik, lurralde lehiakorra izateko ezaugarriak ditu EAEk: unibertsitateak, ikerketa zentroak eta tradizio handiko enpresa sarea.

Gainera, garrantzitsua da azpimarratzea euskalgintzatik harago, hizkuntzen industriaren aplikagarritasuna hainbat sektore ekonomikotara zabaltzen dela. Makina-Erremintaren sektorean, esaterako, hazkunde handia izan da esportazio / inportazioetan, azken urteetan, eta gainera, gero eta gehiago dira kanpo delegazioak dituzten enpresak. Hizkuntza-zerbitzuak eskaintzen dituzten bezero potentzialak izan daitezke, beraz.

EAEn hizkuntzen kudeaketarekin lotuta sortu den industria horren azterketa sektoriala eskaintzen da atal honetan, hain zuzen, hizkuntzen industriakoak kontsideratutako langile autonomo, enpresa eta entitateen egiturazko ezaugarri sektorialak, dimentsio ekonomikoa, berrikuntza maila eta etorkizuneko aukerak eta erronkak azalduz.

Hizkuntzen industriaren mapa

**Irakaskuntza**

- Hizkuntzen irakaskuntza
- Irakaskuntza arautua
- Master eta doktoregoa
- E-learning sistemak

**Itzulpengintza**

- Giza itzulpengintza
- Software lokalizazioa
- Interpretazioa
- Bikoizketa
- Itzulpen automatikoa
- Itzulpengintzan laguntzeko tresnak

**Edukiak**

- Terminologia eta lexikografia
- Informazioaren kudeaketa
- Edukien industria
- Dokumentu eleanitzen prozesamendua
- Idazketarako tresnak (zuzentzaileak...)
- Ezagutzaren kudeaketa
- Bilatzaileak

**Hizkuntza-teknologiak**

- Hizketa teknologia (ahotsaren ezagutza, hizketaren biometrika, ahotsaren sintesia)
- Oinarrizko baliabide eta tresnak: corpusak, lexikoak, gramatika konputazionala
- Testu teknologiak (NPL)

## 1.1 Unibertsoaren eta laginaren arteko alderaketa

900 enpresa inguruk osatzen dute ikerketaren atal honetako unibertsoa; EAEko hizkuntz industrien sektorea. JESN-Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionaleko datuetatik abiatuta, EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearen eta Langune Hizkuntz Industrien Euskal Herriko Elkartearen bidez eskuratutako datuekin osatu da zerrenda. Nolanahi ere, landa-lanean zehar hainbat arazketa eta kontraste ariketa egin dira, azkenean kontuan hartu den unibertsoa osatu arte.

### 1.1.1. Segmentuaren arabera

Sektoreko segmentu edo azpi-sektoreei erreparatuta, unibertsoari dagozkien datuen arabera, enpresa edo autonomoen %34,5 hizkuntzen irakaskuntzan ari da, %62,5 itzulpengintza eta/edo interpretazioan eta %3 bestelako zerbitzu linguistikoetan (eduki linguistikoen lanketarekin lotutako segmentua eta hizkuntza-teknologien garapen eta zabalpenekoa daude multzo horretan sartuta. Aurrerantzean bereizita landuko dira).

Ikerketarako erabilitako laginari dagokionez, 219 enpresak osatu dute, %47,5 irakaskuntzakoak, %42,5 itzulpengintza / interpretaziokoak eta %9,6 zerbitzu linguistikoetakoak.

3. Taula. Unibertsoaren eta laginaren arteko alderaketa, segmentuaren arabera

| | Irakaskuntza | | Itzulpengintza / interpretazioa | | Zerbitzu linguistikoak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % |
| Lagina | 105 | 47,9 | 93 | 42,5 | 21 | 9,6 | 219 | 100,0 |
| Unibertsoa | 313 | 34,5 | 566 | 62,5 | 27 | 3,0 | 906 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.1.2. Lurralde historikoaren arabera

Lurralde historikoaren araberako banaketari dagokionez, alde handiena da, unibertsoan, Bizkaian kokatuta dauden enpresek dutela pisu handiena, Gipuzkoan kokatutakoekiko alde txikiarekin (hiru puntu baino gutxiago). Laginean, berriz, Gipuzkoan kokatutako enpresek pisu handiagoa dute (sei puntu).

Segmentu bakoitza lurralde historikoen arabera nola banatzen den aztertuta, alde nabarmenik ez dago unibertsoaren eta laginaren artean. Hizkuntzen irakaskuntzan, gehiengo dira Bizkaian kokatuta dauden enpresak. Itzulpengintzan eta interpretazioan Gipuzkoa dago buruan, baina alde txikiarekin. Eduki linguistikoen lanketan eta hizkuntza-teknologien garapenean, aldiz, diferentzia handiagoa dago Gipuzkoaren eta beste bi lurraldeen artean. Unibertsoari dagokion taulako "Hizkuntza-zerbitzuak" atalean bilduta daude segmentuari dagokionez zehaztu gabeak direnak.

4. Taula. Unibertsoa osatzen duten enpresak, segmentuaren eta lurralde historikoaren arabera

| | Irakaskuntza | | Itzulpengintza / interpretazioa | | Eduki linguistikoen lanketa | | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | | Hizkuntza zerbitzuak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % |
| Araba | 51 | 16,1 | 59 | 10,5 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 1 | 14,3 | 111 | 12,3 |
| Gipuzkoa | 113 | 35,6 | 253 | 45,1 | 9 | 64,3 | 5 | 71,4 | 6 | 85,7 | 386 | 42,6 |
| Bizkaia | 153 | 48,3 | 249 | 44,4 | 5 | 35,7 | 2 | 28,6 | 0 | 0,0 | 409 | 45,1 |
| Guztira | 317 | 100,0 | 561 | 100,0 | 14 | 100,0 | 7 | 100,0 | 7 | 100,0 | 906 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

5. Taula. Lagina osatzen duten enpresak, segmentuaren eta lurralde historikoaren arabera

| | Irakaskuntza | | Itzulpengintza / interpretazioa | | Eduki linguistikoen lanketa | | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % |
| Araba | 16 | 15,2 | 14 | 15,1 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 30 | 13,7 |
| Gipuzkoa | 44 | 41,9 | 44 | 47,3 | 9 | 64,3 | 5 | 71,4 | 102 | 46,6 |
| Bizkaia | 45 | 42,9 | 35 | 37,6 | 5 | 35,7 | 2 | 28,6 | 87 | 39,7 |
| Guztira | 105 | 100,0 | 93 | 100,0 | 14 | 100,0 | 7 | 100,0 | 219 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

Komeni da kontuan hartzea egoitza nagusia lurralde jakin batean edukita ere, gainerako lurraldeetan ere zentroak eta langileak dituela hainbat enpresak. Esaterako, egoitza nagusia Bizkaian duten enpresetako langileen %12k Gipuzkoan egiten du lan.

6. Taula. Inkestatutako erakundeen zentro edo establezimendu desberdinen lurraldekako banaketa, erakundea kokatuta dagoen lurralde historikoaren arabera (%)

| | Araban | Bizkaian | Gipuzkoan | Nafarroan | Lapurdi, Nafarroa Beherea edo Zuberoan | Beste lurraldeetan | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | % | % | % | % | % | % |
| Araba | 95,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 4,8 | 100,0 |
| Gipuzkoa | 0,7 | 5,9 | 91,2 | 0,7 | 0,0 | 1,5 | 100,0 |
| Bizkaia | 3,8 | 66,5 | 14,6 | 13,7 | 0,0 | 1,4 | 100,0 |
| Guztira | 12,5 | 38,1 | 39,6 | 7,9 | 0,0 | 1,8 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

7. Taula. Inkestatutako erakundeen langileen lurraldekako banaketa, erakundea kokatuta dagoen lurralde historikoaren arabera (%)

| | Araban | Bizkaian | Gipuzkoan | Nafarroan | Lapurdi, Nafarroa Beherea edo Zuberoan | Beste lurraldeetan | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | % | % | % | % | % | % |
| Araba | 91,4 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 8,6 | 100,0 |
| Gipuzkoa | 1,8 | 4,4 | 92,7 | 0,3 | 0,0 | 0,8 | 100,0 |
| Bizkaia | 4,2 | 78,7 | 11,9 | 4,1 | 0,0 | 1,1 | 100,0 |
| Guztira | 14,6 | 33,3 | 48,4 | 1,8 | 0,0 | 2,0 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.1.3. Enplegu-tartearen arabera

Enplegu-tartearen arabera aztertuta, nabarmenena da unibertsoan autonomoen edo oso txikiak diren enpresen pisua handiagoa dela, laginean baino. Hizkuntzen irakaskuntzan eta batez ere, itzulpengintza / interpretazioaren segmentuan ematen den errealitatea da.

8. Taula. Unibertsoa osatzen duten enpresak, segmentuaren eta enplegu-tartearen arabera

| | Irakaskuntza | | Itzulpengintza / interpretazioa | | Eduki linguistikoen lanketa | | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | | Hizkuntza zerbitzuak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % |
| 0-1 enplegu | 58 | 18,3 | 499 | 88,9 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 1 | 14,3 | 558 | 61,6 |
| 1,01 – 2 enplegu | 44 | 13,9 | 33 | 5,9 | 0 | 0,0 | 1 | 14,3 | 0 | 0,0 | 78 | 8,6 |
| 2,01 – 4 enplegu | 55 | 17,4 | 8 | 1,4 | 3 | 21,4 | 1 | 14,3 | 0 | 0,0 | 67 | 7,4 |
| 4,01 – 8 enplegu | 64 | 20,2 | 11 | 2,0 | 3 | 21,4 | 2 | 28,6 | 1 | 14,3 | 81 | 8,9 |
| 8,01 – 15 enplegu | 40 | 12,6 | 1 | 0,2 | 3 | 21,4 | 1 | 14,3 | 0 | 0,0 | 45 | 5,0 |
| 15,01 – 30 enplegu | 29 | 9,1 | 6 | 1,1 | 3 | 21,4 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 38 | 4,2 |
| > 30 enplegu | 15 | 4,7 | 2 | 0,4 | 2 | 14,3 | 2 | 28,6 | 0 | 0,0 | 21 | 2,3 |
| Zehaztu gabe | 12 | 3,8 | 1 | 0,2 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 5 | 71,4 | 18 | 2,0 |
| Guztira | 317 | 100,0 | 561 | 100,0 | 14 | 100,0 | 7 | 100,0 | 7 | 100,0 | 906 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

9. Taula. Lagina osatzen duten enpresak, segmentuaren eta enplegu-tartearen arabera

| | Irakaskuntza | | Itzulpengintza / interpretazioa | | Eduki linguistikoen lanketa | | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % |
| 0-1 enplegu | 6 | 5,7 | 66 | 71,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 72 | 32,9 |
| 1,01 – 2 enplegu | 9 | 8,6 | 10 | 10,8 | 0 | 0,0 | 1 | 14,3 | 20 | 9,1 |
| 2,01 – 4 enplegu | 15 | 14,3 | 5 | 5,4 | 3 | 21,4 | 1 | 14,3 | 24 | 11,0 |
| 4,01 – 8 enplegu | 23 | 21,9 | 6 | 6,5 | 3 | 21,4 | 2 | 28,6 | 34 | 15,5 |
| 8,01 – 15 enplegu | 22 | 21,0 | 0 | 0,0 | 3 | 21,4 | 1 | 14,3 | 26 | 11,9 |
| 15,01 – 30 enplegu | 20 | 19,0 | 4 | 4,3 | 3 | 21,4 | 0 | 0,0 | 27 | 12,3 |
| > 30 enplegu | 10 | 9,5 | 2 | 2,2 | 2 | 14,3 | 2 | 28,6 | 16 | 7,3 |
| Guztira | 105 | 100,0 | 93 | 100,0 | 14 | 100,0 | 7 | 100,0 | 219 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.1.4. Entitate motaren arabera

Entitate motaren arabera ere aztertu dira unibertsoa eta lagina. Argitu beharra dago Euskaltegiak eta Hizkuntza Eskola Ofizialak euren aldetik aztertu direla, sektorean duten pisuagatik. Alde horretatik, azpimarratu HEO guztiak titularitate publikoko entitateak direla, eta 39 Euskaltegi ere bai. 2 euskaltegi elkarte edo fundazio dira eta 9 enpresa pribatu edo kooperatiba.

Enplegu-tartearen inguruko puntuan agerian gelditu den bezala, unibertsoan laginean baino handiagoa da pertsona fisiko edo autonomoen pisua. Enpresa pribatu edo kooperatibena da hurrengo multzoa, sailkapen horretan, eta laginean ere agerian gelditzen da pisu hori.

10. Taula. Unibertsoa osatzen duten enpresak, segmentuaren eta entitate motaren arabera

| | Irakaskuntza | | Itzulpengintza / interpretazioa | | Eduki linguistikoen lanketa | | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | | Hizkuntza zerbitzuak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % |
| Pertsona fisikoa (autonomoa) | 71 | 22,4 | 487 | 86,8 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 558 | 61,6 |
| Irabazi asmorik gabeko elkarte/erakunde/ fundazio pribatua | 13 | 4,1 | 2 | 0,4 | 6 | 42,9 | 2 | 28,6 | 2 | 28,6 | 25 | 2,8 |
| Enpresa pribatu edo kooperatiba | 144 | 45,4 | 67 | 11,9 | 7 | 50,0 | 2 | 28,6 | 0 | 0,0 | 220 | 24,3 |
| Unibertsitate pribatua | 1 | 0,3 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 2 | 28,60 | 3 | 0,3 |
| Unibertsitate publikoa | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 1 | 7,1 | 3 | 42,9 | 3 | 42,9 | 7 | 0,8 |
| Titularitate publikoa duen entitatea | 2 | 0,6 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 2 | 0,2 |
| Ondasun komunitatea (CB) | 22 | 6,9 | 5 | 0,9 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 27 | 3,0 |
| Euskaltegia | 50 | 15,8 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 50 | 5,5 |
| Hizkuntza Eskola Ofiziala | 14 | 4,4 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 14 | 1,5 |
| Guztira | 317 | 100,0 | 561 | 100,0 | 14 | 100,0 | 7 | 100,0 | 7 | 100,0 | 906 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

11. Taula. Lagina osatzen duten enpresak, segmentuaren eta entitate motaren arabera

| | Irakaskuntza | | Itzulpengintza / interpretazioa | | Eduki linguistikoen lanketa | | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % | Kop | % |
| Pertsona fisikoa (autonomoa) | 10 | 9,5 | 59 | 63,4 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 69 | 31,5 |
| Irabazi asmorik gabeko elkarte/erakunde/ fundazio pribatua | 8 | 7,6 | 2 | 2,2 | 6 | 42,9 | 2 | 28,6 | 18 | 8,2 |
| Enpresa pribatu edo kooperatiba | 31 | 29,5 | 30 | 32,3 | 7 | 50,0 | 2 | 28,6 | 70 | 32,0 |
| Unibertsitate pribatua | 1 | 1,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 1 | 0,5 |
| Unibertsitate publikoa | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 1 | 7,1 | 3 | 42,9 | 4 | 1,8 |
| Titularitate publikoa duen entitatea | 1 | 1,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 1 | 0,5 |
| Ondasun komunitatea (CB) | 2 | 1,9 | 2 | 2,2 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 4 | 1,8 |
| Euskaltegia | 42 | 40,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 42 | 19,2 |
| Hizkuntza Eskola Ofiziala | 10 | 9,5 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 10 | 4,6 |
| Guztira | 105 | 100,0 | 93 | 100,0 | 14 | 100,0 | 7 | 100,0 | 219 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.1.5. Sexuaren arabera

Lagineko datuen arabera, emakumezkoen pisua handia da hizkuntzen industriako jarduueretan. Izan ere, sektoreko langileen bi heren pasatxo emakumezkoa da.

1. Grafikoa. Hizkuntzen industriakoak diren jardueretan lan egiten duten langileak sexuaren arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

## 1.2 Dimentsio ekonomikoa

4.600 enplegu inguru sortzen ditu Hizkuntzen industriak Euskal Autonomia Erkidegoan. Enpleguen hiru laurden, ia, hizkuntzen irakaskuntzako segmentuari dagokio eta %18 itzulpengintza eta interpretazioari. Enpleguan hizkuntza teknologien garapeneko eta zabalpeneko segmentuak eduki linguistikoen lanketakoak baino pisu txikiagoa badu ere, fakturazioan gainditu egiten du. Guztira, 211.274.478 euro inguru fakturatzen dituzte hizkuntzen industriako enpresek.

12. Taula. Hizkuntzen industriako enpresak, fakturazioa eta enplegua, segmentuaren arabera

| | Enpresak eta autonomoak | Fakturazioa | | Enplegua | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | Kop | % | Kop | % |
| Hizkuntzen irakaskuntza | 317 | 150.120.420 € | 71 | 3.399 | 73,8 |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | 561 | 34.473.533 € | 16,3 | 826 | 17,9 |
| Eduki linguistikoen lanketa | 17 | 12.065.633 € | 5,8 | 218 | 4,8 |
| Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | 8 | 14.614.892 € | 6,9 | 161 | 3,5 |
| Guztira | 903 | 211.274.478 € | 100,0 | 4.604 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.2.1. Enplegua

4.878 behargin inguru ari dira Hizkuntzaren Industriako enpresetan lanean, EAEn. Sektoreko enpresen jarduera gehien-gehiena hizkuntzari loturikoa den bezala, enpleguaren %94,4 dagokio hizkuntzen inguruko jarduerari: 4.604 enplegu.

Segmentuen araberako banaketari dagokionez, Hizkuntzen Industriarekin lotutako enpleguaren hiru laurden, ia, hizkuntzen irakaskuntzan ari da eta %18 itzulpengintzan eta interpretazioan. Hizkuntza teknologien garapeneko eta zabalpeneko enpresetako langileen %3,5eko pisua besterik ez dute Hizkuntzen Industriarekin lotutako enpleguan. Nabarmendu behar da, hala ere, segmentu horretako enpleguaren %46 ez dagoela Hizkuntzen Industriarekin lotuta.

13. Taula. Hizkuntzen Industriako eragileen enpleguaren estimazioa, erakundearen jarduera nagusiaren arabera

| | | Hizkuntzen industriako jardueretakoa | | Hizkuntzen industriakoa ez dena | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Kop. | % | Kop | % | Kop | % |
| Hizkuntzen irakaskuntza | Hizkuntza akademiak (autonomoak, elkarteak, enpresa edo kooperatibak, ondasun komunitateak) | 1.785 | 38,8 | 13 | 4,7 | 1.798 | 36,9 |
| | Unib pribatua + erakunde publikoa | 65 | 1,4 | 0 | 0,0 | 65 | 1,3 |
| | Hizkuntza Eskola Ofizialak | 382 | 8,3 | 10 | 3,6 | 392 | 8,0 |
| | Euskaltegiak | 1.167 | 25,4 | 2 | 0,8 | 1.169 | 24,0 |
| | Guztira | 3.399 | 73,8 | 25 | 9,1 | 3.424 | 70,2 |
| | % hor | | 99,3 | | 0,7 | | 100,0 |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | Pertsona fisikoa_autonomoa | 475 | 10,3 | 18 | 6,6 | 493 | 10,1 |
| | Itzulpengintza enpresa edo bestelako elkarteak | 351 | 7,6 | 57 | 20,9 | 408 | 8,4 |
| | Guztira | 826 | 17,9 | 75 | 27,5 | 901 | 18,5 |
| | % hor | | 91,6 | | 8,4 | | 100,0 |
| Eduki linguistikoen lanketa | Guztira | 218 | 4,7 | 37 | 13,6 | 255 | 5,2 |
| | % hor | | 85,3 | | 14,7 | | 100,0 |
| Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira | 161 | 3,5 | 137 | 49,8 | 298 | 6,1 |
| | % hor | | 54,1 | | 45,9 | | 100,0 |
| Guztira | Guztira | 4.603 | 100,0 | 274 | 100,0 | 4.878 | 100,0 |
| | % hor | | 94,4 | | 5,6 | | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.2.2. Fakturazioa

236.054.639€ fakturatu dituzte Hizkuntzaren Industriako enpresek azken urtean guztira, horien %90 inguru, sektorearen berariazko jarduerekin loturikoa: 211.274.478€. Fakturazio horren %71 hizkuntzen irakaskuntzari dagokio, eta %16,3 itzulpengintzaren eta interpretazioaren segmentuari. Fakturazioan, hizkuntza teknologien garapen eta zabalpenak (%6,9) eduki linguistikoen lanketa gainditzen du (%5,7).

14. Taula. Hizkuntzen Industriako eragileen fakturazioaren estimazioa, erakundearen jarduera nagusiaren arabera

| | | Hizkuntzen industriako jardueretakoa | | Hizkuntzen industriakoa ez dena | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | € | % | € | % | € | % |
| Hizkuntzen irakaskuntza | Guztira | 150.120.420 | 71,1 | 1.152.985 | 4,7 | 151.273.405 | 64,1 |
| | % hor | | 99,2 | | 0,8 | | 100,0 |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | Guztira | 34.473.533 | 16,3 | 9.896.212 | 39,9 | 44.369.745 | 18,8 |
| | % hor | | 77,7 | | 22,3 | | 100,0 |
| Eduki linguistikoen lanketa | Guztira | 12.065.633 | 5,7 | 2.636.829 | 10,6 | 14.702.461 | 6,2 |
| | % hor | | 82,1 | | 17,9 | | 100,0 |
| Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira | 14.614.892 | 6,9 | 11.094.136 | 44,8 | 25.709.028 | 10,9 |
| | % hor | | 56,8 | | 43,2 | | 100,0 |
| Guztira | Guztira | 211.274.478 | 100,0 | 24.780.162 | 100,0 | 236.054.639 | 100,0 |
| | % hor | | 89,5 | | 10,5 | | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena eta eduki linguistikoen lanketa dira segmentu dibertsifikatuenak, jardueraren araberako fakturazioa kontuan hartuta. Adibidez, eduki linguistikoen lanketako enpresek fakturatutakoaren %10,4 itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuekin lotutakoa da, eta hizkuntza teknologien garapeneko eta zabalpeneko enpresen fakturazioaren %10,2, eduki linguistikoen lanketakoa.

Hizkuntzen Industriaz aparteko fakturazioa ere aztertuta, hizkuntzen irakaskuntzako enpresak hezkuntzan edo formakuntzan aritzen dira batez ere, itzulpengintza eta interpretaziokoak marketinarekin eta komunikazioarekin lotutako jardueretan eta hizkuntza teknologien garapeneko eta zabalpeneko enpresak informazio eta komunikazio teknologien arloan aritzen dira.

15. Taula. Hizkuntza industrian fakturatutakoaren estimazioa, eragilearen jarduera nagusia eta gastuaren izaeraren arabera (%)

| | Hizkuntzen industriako jardueretakoa | Itzulpengintza eta interpretazioa | Eduki linguistikoen lanketa | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Besterik | Guztira | Fakturazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | % | % | % | % | % | € |
| Hizkuntzen irakaskuntza | 92,50 | 5,13 | 1,48 | - | 0,89 | 100,0 | 150.120.420 |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | 0,09 | 94,94 | 2,38 | 2,59 | - | 100,0 | 34.473.533 |
| Eduki linguistikoen lanketa | 6,21 | 10,37 | 79,27 | 3,17 | 0,99 | 100,0 | 12.065.633 |
| Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | - | - | 10,18 | 77,47 | 12,34 | 100,0 | 14.614.892 |
| Guztira | 68,09 | 17,70 | 10,03 | 3,05 | 1,13 | 100,0 | 211.274.478 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

16. Taula. Hizkuntza industriaz kanpo fakturatutakoaren estimazioa, eragilearen jarduera nagusia eta gastuaren izaeraren arabera (%)

| | Marketina eta publizitatea | Komunikazioa eta diseinu grafikoa | Informazioa eta komunikazioaren teknologiak | Hezkuntza edota formakuntza (hizkuntzen irakaskuntza salbu) | Besterik | Guztira | Fakturazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | % | % | % | % | % | € |
| Hizkuntzen irakaskuntza | 7,60 | 7,60 | - | 84,80 | - | 100,0 | 1.152.985 |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | 52,48 | 31,43 | 0,88 | 0,09 | 15,13 | 100,0 | 9.896.212 |
| Eduki linguistikoen lanketa | 0,65 | 1,74 | 35,03 | 0,22 | 62,36 | 100,0 | 2.636.829 |
| Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | 0,45 | 0,36 | 96,38 | 2,80 | - | 100,0 | 11.094.136 |
| Guztira | 16,03 | 9,81 | 60,41 | 1,71 | 12,04 | 100,0 | 24.780.162 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

## 1.3 Zerbitzu motak eta enplegua

### 1.3.1. Eskainitako zerbitzu mota

Segmentu ezberdinetako enpresek zein zerbitzu mota eskaintzen duten aztertuta dator jarraian. Hizkuntzen irakaskuntzako enpresen erdia, ia, euskararen irakaskuntzan ari da (%48,6). Eta beste %45 inguru, hizkuntza ezberdinen irakaskuntzan (Hizkuntza Eskola Ofizialak barne). %13,3 irakaskuntza arautuan hizkuntzak irakasteari dagokio, unibertsitateei, beraz.

2. Grafikoa. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAKO enpresek zein zerbitzu mota eskaintzen duten (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Itzulpengintza eta interpretazioko enpresa edo autonomo gehien-gehienek itzulpen tradizionala nahiz automatikoa lantzen dute (%97,8), %36,6k interpretazioa eta herena pasatxok software lokalizazioak. %5,4 soilik aritzen da ekitaldi eleanitzen antolaketa lanetan.

3. Grafikoa. ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOKO enpresek zein zerbitzu mota eskaintzen duten (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Eduki linguistikoen lanketako segmentuan kokatutako enpresa gehienak hizkuntza-aholkularitzan aritzen dira (%71,4). Altua da, era berean, hizkuntzen kudeaketa eta normalizaziorako plangintzak lantzen aritzen direnen ehunekoa (%64,3). Gutxiengo dira, aldiz, lexikografian eta terminologian (%28,6) eta hizkuntzen corpus plangintzan (%14,3) aritzen direnak.

**4. Grafikoa.** EDUKI LINGUISTIKOEN lanketako enpresek zein zerbitzu mota eskaintzen duten (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Hizkuntza-teknologien garapenean eta zabalpenean ari diren enpresen artean, itzulpengintza automatikoa eta itzulpengintzan laguntzeko tresnak (%57,1), hizkuntza naturalen prozesaketa (%57,1) eta hizketa teknologikoak (%57,1) dira zerbitzu zabalduenak. Bigarren multzo nagusi bat ere badago, oinarrizko hizkuntza baliabideena (%42,9), idazkuntzarako baliabideena (%42,9) eta informazio eta ezagutzaren kudeaketarena (%42,9).

**5. Grafikoa.** HIZKUNTZA-TEKNOLOGIEN GARAPENEKO enpresek zein zerbitzu mota eskaintzen duten (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.3.2. Beste segmentu batzuetako zerbitzuak

Enpresa bakoitzak hizkuntzen industriako segmentu batean kokatu du bere jarduera nagusia, baina horrez gain, bestelako zerbitzuak ere eskain ditzake, beste segmentuen jarduerarekin lotutakoak.

Horrela, hizkuntzen irakaskuntzako enpresen %23,8k eta eduki linguistikoen lanketakoen %35,7k itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuak ere eskaintzen dituzte. Eduki linguistikoen lanketako segmentuko enpresen %28,6k hizkuntzen irakaskuntzako zerbitzuak ere eskaintzen ditu.

17. Taula. Enpresek eskaintzen dituzten zerbitzu motak, segmentuaren arabera (%)

| | Irakaskuntza | Itzulpengintza / interpretazioa | Eduki linguistikoen lanketa | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Hizkuntzen irakaskuntza | 100,0 | 4,3 | 28,6 | 0,0 | 51,6 |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | 23,8 | 100,0 | 35,7 | 0,0 | 56,2 |
| Eduki linguistikoen lanketa | 16,2 | 9,7 | 92,9 | 28,6 | 18,7 |
| Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena | 0,0 | 2,2 | 35,7 | 100,0 | 6,4 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.3.3. Hizkuntzen industriakoak ez diren zerbitzuak

Hizkuntzen industriaren jardueraren baitan kokatutakoez gainera, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu zenbait enpresak. Nabarmenena da hizkuntza-teknologien garapeneko enpresen %42,9k formakuntza ere eskaintzen duela, eta %28,6 informazio eta komunikazio teknologien arloan ere aritzen dela. Bestalde, eduki linguistikoen lanketan aritzen direnen %35,7 aholkularitza zerbitzu orokorretan ere aritzen dela, eta %21,4 ikerketan.

Dena den, kopuru orokorrei erreparatuta, oso gutxi dira hizkuntzen industriakoez gainera, bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak.

18. Taula. Hizkuntzen industriakoak ez diren zerbitzuak, segmentuen arabera (%)

| | Irakaskuntza | Itzulpengintza / interpretazioa | Eduki linguistikoen lanketa | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Aholkularitza zerbitzu orokorrak | 1,0 | 2,2 | 35,7 | 0,0 | 3,7 |
| Ikerketa | 1,0 | 1,1 | 21,4 | 14,3 | 2,7 |
| Marketina eta publizitatea | 0,0 | 2,2 | 7,1 | 14,3 | 1,8 |
| Komunikazioa eta diseinu grafikoa | 0,0 | 4,3 | 7,1 | 14,3 | 2,7 |
| Informazioa eta komunikazioaren teknologiak | 0,0 | 1,1 | 7,1 | 28,6 | 1,8 |
| Adimen aurreratu edota artifizialeko teknologiak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 14,3 | 0,5 |
| Ingeniaritza edota arkitektura zerbitzuak | 0,0 | 0,0 | 7,1 | 0,0 | 0,5 |
| Hezkuntza edota formakuntza | 4,8 | 4,3 | 7,1 | 42,9 | 5,9 |
| Besterik | 2,9 | 17,2 | 21,4 | 0,0 | 10,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.3.4. Ikuspuntu kualitatiboa: zerbitzu motari buruzko xehetasunak

Inkesta erantzun dutenek galdetegian emandako azalpen idatzietan eta egindako oharretan oinarrituta, gai ezberdinen inguruan sakontzeko edo xehetasunak jasotzeko aukera ematen du ikuspegi kualitatiboak. Hizkuntzen industriako lau segmentuetako enpresek eskaintzen dituzten zerbitzuen ingurukoak datoz jarraian:

#### Hizkuntzen irakaskuntza

- Euskaltegietan, euskara eskolak eskaintzeaz eta mailak egiaztatzeaz gainera, normalizazio linguistikoarekin lotutako bestelako zereginetan parte hartzen dute: euskara planetan, hizkuntza-aholkularitzan, administrazioko langileen trebakuntzan etab.
- Ingelesaren irakaskuntzan ari diren zentroetan, eskola-errefortzu klaseak eta enpresetan (esportaziora bideratutakoetan, bereziki) ematen dituzten klaseak dira ezaugarri bereizgarriak.
- Gainerako zentroetan (hizkuntza ezberdinak eskaintzen dituztenak, Hizkuntza Eskola Ofizialak barne), azterketa ofizialen prestaketa edo atzerriko egonaldiak nabarmendu daitezke. Dena den, kultur proiektuetan edo euskararen normalizazio proiektuetan parte hartzen duenik ere bada.

#### Itzulpena eta interpretazioa

- Itzulpena, interpretazioa, idazketa, komunikazioa, maketazioa, diseinu grafikoa, software lokalizazioak, sorkuntza, ekitaldien antolaketa eta hizkuntza-zerbitzuak dira segmentuko jarduera nagusiak.

#### Eduki linguistikoen lanketa

- Jarduera aldetik, oso zabala eta anitza da segmentua, inkestatuek erantzundakoaren arabera: Euskararen erabilera sustatzea; Ahozko ondarea batu eta tokian tokiko euskara jaso, indartu eta hedatzea; Terminologia eta lexikografia; Euskal kultura eta euskara; Euskara planen aholkularitza; Ingeniaritza linguistikoa eta adimen artifiziala; Sozioekonomia eta soziolinguistika arloko ikerketak eta aholkuaritza; Internet eta informatikako jarduerak.

#### Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

- Nagusiki hizkuntza-teknologien inguruko ikerketan eta formazioan ari diren enpresak dira.

## 1.4 Jarduera ekonomikoa eta hizkuntzak

### 1.4.1. Fakturazio bolumena

Segmentu bakoitzeko enpresen batez besteko fakturazio bolumena aztertuta (hizkuntzen industriari loturikoa) salmentarako herrialdeari dagokionez, gehien-gehiena EAEn saltzen dute hizkuntzen irakaskuntzako eta eduki linguistikoen lanketako enpresek (%90 baino gehiago, batez beste).

Itzulpengintza eta interpretazioko enpresen batez besteko fakturazio bolumenaren %66,7 dagokio EAEri, eta %38,6 baino ez, aldiz, hizkuntza-teknologien eta garapenaren segmentuan. Azpimarratzekoa da azken segmentu horren batez besteko fakturazio bolumenaren laurdena baino gehiago Europar Batasunaz kanpoko herrialdeetan egindako salmentei dagokiela. Era berean, Espainiako beste lurraldeetako salmenten pisu erlatiboa altua da hizkuntza-teknologien garapenaren segmentuko fakturazio bolumenean (%25,9, batez beste) eta itzulpengintza eta interpretaziokoan (%16,7).

6. Grafikoa. Hizkuntzen industriari loturiko fakturazio bolumena, salmentarako herrialdearen arabera (batez besteko %)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Enpresen batez besteko fakturazio bolumena xede hizkuntzaren arabera aztertuta, nabarmentzekoa da euskararen pisua eduki linguistikoen lanketako segmentuan (%83, batez beste), baita hizkuntza-teknologien garapenean eta zabalpenean (%70,5).

Hizkuntzen irakaskuntzako enpresen batez besteko fakturazio bolumenaren erdia gainditzen du euskarak (%54,2), baina ingelesaren pisua ere altua da (%36,8). Itzulpengintzan eta interpretazioan, gaztelaniaren batez besteko pisu erlatiboa gainditzen du ingelesarenak (%19,2).

7. Grafikoa. Hizkuntzen industriari loturiko fakturazio bolumena, xede-hizkuntzaren arabera (batez besteko %)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Segmentu bakoitzeko enpresen batez besteko fakturazio bolumenean, euskarak xede-hizkuntza gisa zein pisu erlatibo izan duen aztertuta dator segidan, hizkuntzen industriarekin lotutako jarduera ezberdinen arabera.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da eduki linguistikoen lanketako jardueretan euskarak xede-hizkuntza gisa izan duen pisu handia, lau segmentuetan, gainera. Eta eduki linguistikoen lanketako segmentuan, euskararen pisua %90etik gorakoa dela, jarduera guztietan.

**8. Grafikoa.** Fakturazio bolumenean, euskarak xede-hizkuntza gisa edukitako pisu erlatiboa (batez besteko %)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Bezero tipologiaren arabera, alde handiak daude hizkuntzen industriako segmentu batzuetako eta besteetako enpresen batez besteko fakturazio bolumenari dagokionez. Eduki linguistikoen lanketan eta hizkuntza-teknologien garapenean eta zabalpenean, enpresa pribatuen, eta batez ere, erakunde publikoen pisua (erdia gainditzen du bi segmentuetan) nabarmentzekoak dira.

Itzulpengintza eta interpretazioaren segmentuan enpresa pribatuak dira nagusi, bezeroen artean (batez besteko fakturazio bolumenaren %74). Hizkuntzen irakaskuntzan, aldiz, partikularrak: helduak (%56,5) eta gazteak (%21). Enpresa pribatuen pisua ere nabarmentzekoa da, hala ere, hizkuntzen irakaskuntzan (%15,3).

9. Grafikoa. Fakturazio bolumenaren banaketa, bezero tipologiaren arabera (batez besteko %)




*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.4.2. Jardueraren bilakaera

Jardueraren bilakaerari buruz erantzun dute enpresek, alde batetik, eskainitako zerbitzuen hizkuntzei dagokienez. Azken hiru urteetan euskara mantendu egin dela adierazi dutenak gehiengo dira hizkuntzen irakaskuntzan, itzulpengintzan eta interpretazioan eta eduki linguistikoen lanketan. Gora egin duela baieztatu du, dena den, itzulpengintza eta interpretazioko enpresen %36,7k. Hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko segmentuko enpresen herenak adierazi du euskarak gora egin duela, beste heren batek mantendu egin dela eta hirugarrenak behera egin duela.

10. Grafikoa. Segmentu bakoitzeko entitateek eskainitako zerbitzuetan, oro har, zer nolako bilakaera izan duen euskarak azken 3 urteetan (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Gainerako hizkuntzek eskainitako zerbitzuetan izan duten bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da ingelesaren igoera orokorra (%43), eta bereziki hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko segmentuan (%75). Deigarriak dira, era berean, txineraren eta arabieraren hazkundeak. Itzulpengintzako eta interpretazioko enpresen %27,8k adierazi du txinerak gora egin duela, eta %37,5ek arabierak gora egin duela. Halaber, hizkuntza-teknologien garapeneko enpresa guztiek baieztatu dute arabierak gora egin duela, azken hiru urteetan.

19. Taula. Segmentu bakoitzeko entitateek eskainitako zerbitzuetan, oro har, zer nolako bilakaera izan duen hizkuntza bakoitzak azken 3 urteetan (%)

| | | Irakaskuntza | Itzulpengintza / interpretazioa | Eduki linguistikoen lanketa | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskara | ▲ | 16,9 | 36,7 | 21,4 | 33,3 | 27,1 |
| | = | 63,4 | 55,7 | 71,4 | 33,3 | 59,4 |
| | ▼ | 15,5 | 6,3 | 7,1 | 33,3 | 11,2 |
| | Zehaztu gabe | 4,2 | 1,3 | 0,0 | 0,0 | 2,4 |
| Gaztelania | ▲ | 9,5 | 19,4 | 28,6 | 16,7 | 17,9 |
| | = | 66,7 | 68,1 | 71,4 | 66,7 | 67,9 |
| | ▼ | 9,5 | 11,1 | 0,0 | 16,7 | 10,4 |
| | Zehaztu gabe | 14,3 | 1,4 | 0,0 | 0,0 | 3,8 |
| Frantsesa | ▲ | 13,8 | 21,3 | 25,0 | 75,0 | 21,4 |
| | = | 48,3 | 57,4 | 75,0 | 25,0 | 53,6 |
| | ▼ | 27,6 | 19,1 | 0,0 | 0,0 | 20,2 |
| | Zehaztu gabe | 10,3 | 2,1 | 0,0 | 0,0 | 4,8 |
| Ingelesa | ▲ | 42,3 | 42,4 | 33,3 | 75,0 | 43,0 |
| | = | 44,2 | 52,5 | 66,7 | 25,0 | 48,8 |
| | ▼ | 7,7 | 3,4 | 0,0 | 0,0 | 5,0 |
| | Zehaztu gabe | 5,8 | 1,7 | 0,0 | 0,0 | 3,3 |
| Alemana | ▲ | 23,8 | 12,9 | 0,0 | 0,0 | 15,8 |
| | = | 33,3 | 64,5 | 100,0 | 100,0 | 56,1 |
| | ▼ | 28,6 | 19,4 | 0,0 | 0,0 | 21,1 |
| | Zehaztu gabe | 14,3 | 3,2 | 0,0 | 0,0 | 7,0 |
| Txinera | ▲ | 0,0 | 27,8 | 0,0 | 0,0 | 17,9 |
| | = | 37,5 | 55,6 | 50,0 | 0,0 | 50,0 |
| | ▼ | 25,0 | 11,1 | 50,0 | 0,0 | 17,9 |
| | Zehaztu gabe | 37,5 | 5,6 | 0,0 | 0,0 | 14,3 |
| Arabiera | ▲ | 0,0 | 37,5 | 0,0 | 100,0 | 31,8 |
| | = | 0,0 | 37,5 | 50,0 | 0,0 | 31,8 |
| | ▼ | 0,0 | 18,8 | 50,0 | 0,0 | 18,2 |
| | Zehaztu gabe | 100,0 | 6,3 | 0,0 | 0,0 | 18,2 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

Azken 3 urteetako bilakaera baloratzeaz gainera, hurrengo 3 urteetarako aurreikuspenak ere egin dituzte hizkuntzen industriako enpresek. %30 inguru da euskarak eskainitako zerbitzuetan gora egingo duela adierazi duena, itzulpengintzan eta interpretazioan, eduki linguistikoen lanketan eta hizkuntza-teknologien garapenean. Azken segmentu horretan, dena den, enpresen %16,7k aurreikusten du euskarak behera egingo duela.

11. Grafikoa. Aurreikuspena: segmentu bakoitzeko entitateek eskainitako zerbitzuetan, oro har, zer nolako bilakaera izango duen euskarak hurrengo 3 urteetan (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Gainerako hizkuntzei dagokienez, ingelesaren igoeraz gainera (%38,8 guztira, %30etik gora segmentu guztietan), nabarmentzekoa da txinerak eta arabierak gora egingo dutela adierazi dutenen ehuneko altua, itzulpengintzan eta interpretazioan eta eduki linguistikoen lanketan (txinera) eta itzulpengintzan eta interpretazioan, eduki linguistikoen lanketan eta hizkuntza- teknologien garapenean eta zabalpenean (arabiera).

20. Taula. Aurreikuspena: segmentu bakoitzeko entitateek eskainitako zerbitzuetan, oro har, zer nolako bilakaera izango duen hizkuntza bakoitzak hurrengo 3 urteetan (%)

| | | Irakaskuntza | Itzulpengintza / interpretazioa | Eduki linguistikoen lanketa | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskara | ▲ | 15,5 | 30,4 | 28,6 | 33,3 | 24,1 |
| | = | 66,2 | 60,8 | 71,4 | 50,0 | 63,5 |
| | ▼ | 14,1 | 3,8 | 0,0 | 16,7 | 8,2 |
| | Zehaztu gabe | 4,2 | 5,1 | 0,0 | 0,0 | 4,1 |
| Gaztelania | ▲ | 9,5 | 16,0 | 28,6 | 33,3 | 16,5 |
| | = | 57,1 | 72,0 | 71,4 | 66,7 | 68,8 |
| | ▼ | 19,0 | 8,0 | 0,0 | 0,0 | 9,2 |
| | Zehaztu gabe | 14,3 | 4,0 | 0,0 | 0,0 | 5,5 |
| Frantsesa | ▲ | 25,8 | 14,3 | 25,0 | 75,0 | 21,6 |
| | = | 45,2 | 61,2 | 75,0 | 25,0 | 54,5 |
| | ▼ | 16,1 | 16,3 | 0,0 | 0,0 | 14,8 |
| | Zehaztu gabe | 12,9 | 8,2 | 0,0 | 0,0 | 9,1 |
| Ingelesa | ▲ | 42,3 | 33,9 | 33,3 | 75,0 | 38,8 |
| | = | 46,2 | 55,9 | 66,7 | 25,0 | 51,2 |
| | ▼ | 3,8 | 3,4 | 0,0 | 0,0 | 3,3 |
| | Zehaztu gabe | 7,7 | 6,8 | 0,0 | 0,0 | 6,6 |
| Alemana | ▲ | 28,6 | 9,7 | 25,0 | 0,0 | 17,5 |
| | = | 38,1 | 74,2 | 50,0 | 100,0 | 59,6 |
| | ▼ | 19,0 | 6,5 | 0,0 | 0,0 | 10,5 |
| | Zehaztu gabe | 14,3 | 9,7 | 25,0 | 0,0 | 12,3 |
| Txinera | ▲ | 12,5 | 38,9 | 50,0 | 0,0 | 32,1 |
| | = | 25,0 | 38,9 | 50,0 | 0,0 | 35,7 |
| | ▼ | 25,0 | 5,6 | 0,0 | 0,0 | 10,7 |
| | Zehaztu gabe | 37,5 | 16,7 | 0,0 | 0,0 | 21,4 |
| Arabiera | ▲ | 0,0 | 47,1 | 50,0 | 100,0 | 43,5 |
| | = | 0,0 | 35,3 | 50,0 | 0,0 | 30,4 |
| | ▼ | 0,0 | 5,9 | 0,0 | 0,0 | 4,3 |
| | Zehaztu gabe | 100,0 | 11,8 | 0,0 | 0,0 | 21,7 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

Hizkuntzen industriako jarduera ezberdinei dagokienez, segmentu bakoitzeko enpresek eskainitako zerbitzuetan azken 3 urteetan izan den bilakaera aztertuta dator jarraian. Alde horretatik, azpimarratzekoa da itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuetan izan den hazkundea, ez segmentu horretan bakarrik, eduki linguistikoen segmentuko enpresen bi herenek adierazi baitu itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuek gora egin dutela. Bestalde, eduki linguistikoen lanketako enpresen %40k adierazi du hizkuntza-teknologien garapeneko zerbitzuek gora egin dutela.

21. Taula. Segmentu bakoitzeko enpresek eskainitako zerbitzuetan azken 3 urteetan izandako bilakaera, jardueraren arabera (%)

| | | Irakaskuntza | Itzulpengintza / interpretazioa | Eduki linguistikoen lanketa | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hizkuntzen irakaskuntza | ▲ | 26,7 | 14,3 | 20,0 | 0,0 | 25,2 |
| | = | 62,9 | 57,1 | 40,0 | 50,0 | 61,3 |
| | ▼ | 7,6 | 14,3 | 40,0 | 0,0 | 9,2 |
| | Zehaztu gabe | 2,9 | 14,3 | 0,0 | 50,0 | 4,2 |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | ▲ | 20,0 | 42,0 | 66,7 | 0,0 | 38,3 |
| | = | 40,0 | 40,9 | 16,7 | 0,0 | 39,2 |
| | ▼ | 28,0 | 15,9 | 16,7 | 0,0 | 18,3 |
| | Zehaztu gabe | 12,0 | 1,1 | 0,0 | 100,0 | 4,2 |
| Eduki linguistikoen lanketa | ▲ | 23,1 | 33,3 | 50,0 | 0,0 | 32,4 |
| | = | 46,2 | 44,4 | 41,7 | 66,7 | 45,9 |
| | ▼ | 7,7 | 11,1 | 8,3 | 0,0 | 8,1 |
| | Zehaztu gabe | 23,1 | 11,1 | 0,0 | 33,3 | 13,5 |
| Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena | ▲ | 0,0 | 33,3 | 40,0 | 33,3 | 26,3 |
| | = | 0,0 | 33,3 | 60,0 | 16,7 | 26,3 |
| | ▼ | 40,0 | 0,0 | 0,0 | 16,7 | 15,8 |
| | Zehaztu gabe | 60,0 | 33,3 | 0,0 | 33,3 | 31,6 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

Hurrengo 3 urteetarako enpresek egiten dituzten aurreikuspenei dagokienez, nabarmentzekoa da itzulpengintza eta interpretazioko eta eduki linguistikoen lanketako segmentuetako enpresa askok segmentuaren berariazko jarduera aparteko zerbitzuen hazkundea aurreikusten dutela. Itzulpengintza eta interpretazioko enpresen %40k uste du eduki linguistikoen lanketako zerbitzuek gora egingo dutela, eta erdiak hizkuntza-teknologien garapenekoak haziko direla. Aldiz, eduki linguistikoen lanketako enpresen %40k aurreikusten du hizkuntzen irakaskuntza zerbitzuek egingo dutela gora.

22. Taula. Aurreikuspena: Segmentu bakoitzeko enpresek eskainitako zerbitzuetan hurrengo 3 urteetan izango den bilakaera, jardueraren arabera (%)

| | | Irakaskuntza | Itzulpengintza / interpretazioa | Eduki linguistikoen lanketa | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hizkuntzen irakaskuntza | ▲ | 23,8 | 14,3 | 40,0 | 0,0 | 23,5 |
| | = | 62,9 | 42,9 | 40,0 | 50,0 | 60,5 |
| | ▼ | 8,6 | 28,6 | 20,0 | 0,0 | 10,1 |
| | Zehaztu gabe | 4,8 | 14,3 | 0,0 | 50,0 | 5,9 |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | ▲ | 23,1 | 32,2 | 33,3 | 0,0 | 30,1 |
| | = | 50,0 | 52,2 | 50,0 | 0,0 | 51,2 |
| | ▼ | 7,7 | 8,9 | 0,0 | 0,0 | 8,1 |
| | Zehaztu gabe | 19,2 | 6,7 | 16,7 | 100,0 | 10,6 |
| Eduki linguistikoen lanketa | ▲ | 30,8 | 40,0 | 50,0 | 33,3 | 39,5 |
| | = | 38,5 | 30,0 | 41,7 | 33,3 | 36,8 |
| | ▼ | 0,0 | 10,0 | 0,0 | 0,0 | 2,6 |
| | Zehaztu gabe | 30,8 | 20,0 | 8,3 | 33,3 | 21,1 |
| Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena | ▲ | 20,0 | 50,0 | 40,0 | 50,0 | 40,0 |
| | = | 0,0 | 0,0 | 20,0 | 16,7 | 10,0 |
| | ▼ | 0,0 | 0,0 | 20,0 | 0,0 | 5,0 |
| | Zehaztu gabe | 80,0 | 50,0 | 20,0 | 33,3 | 45,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

Ikerketa honetan agerian gelditu da sektoreko enpresa gutxi direla hizkuntzen industriako jarduerez aparteko zerbitzuak eskaintzen dituztenak. Hala ere, bestelako zerbitzu horietan zein bilakaera izango den aurreikusi dute. Alde horretatik, eduki linguistikoen lanketako segmentuko enpresek hazkunde handia espero dute informazio eta komunikazio teknologiekin, komunikazioarekin eta diseinu grafikoarekin eta hezkuntzarekin eta formakuntzarekin lotutako zerbitzuetan. Itzulpengintzan eta interpretazioan komunikazioak eta diseinu grafikoak gora egingo dutela uste dute eta hizkuntza-teknologien garapeneko segmentuko enpresek marketing eta publizitate zerbitzuen hazkundea aurreikusten dute.

12. Grafikoa. Aurreikuspena: hizkuntzen industriakoez aparteko zein jardueratan emango den hazkundea, eskainitako zerbitzuei dagokienez (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.4.3. Ikuspuntu kualitatiboa: bilakaeran eragina izan duten faktoreak

#### Hizkuntzen irakaskuntza

- Euskara irakasten dutenen artean:

  Oposaketen eragina da gehien errepikatzen den faktorea. Oposaketak dauden urteetan, ikasleen kopuruak gora egiten duela. Horrekin lotuta, titulu bila dabiltzan ikasle asko daudela nabarmentzen dute, eta behin titulua lortuta, ez dutela ikasketa prozesua bukatzen.

  Diru-laguntzak edo matrikulak ordaintzeko erakunde publikoek ematen dituzten erraztasunak ere azpimarratu dituzte, bilakaera positiboaren faktore gisa. Bestalde, langabeen eta etorkinen pisu handiagoa ere nabaritu dute, ikasleen artean.

  *"Oposaketen arabera izango da. Oposaketak baldin badaude, ikasle kopuruak gora"*

  *"Gaur egun euskara ez da lehentasuna. Titulua besterik ez dute nahi ikasleek, eta behin titulua lortuta, ez dute prozesua bukatzen"*

  *"Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak eragin nabarmena dauka gure jarduera datuetan. Epe laburrean, euskararen ikaskuntzaren doakotasunean aurrera pausuak ematea espero dugu"*

  *"Azken urteetan langabetu kopuru altu samarra. Migratzaileen hazkundea"*

- Ingelesa irakasten dutenen artean:

  Krisi ekonomikoa aipatu dute bilakaera negatiboa izan dutela adierazi dutenek. Familiek ez dutela lehen bezain beste gastatzen akademietan. Ingeles ikastaroen diru-laguntza maila baxuak ere aipatu dituzte. Bestalde, garai batean publizitatea egiteko erabiltzen ziren bideek, gaur egun, ez dutela funtzionatzen (egunkariak, esate baterako).

  Bilakaera positiboa eduki dutenek, enpresetan eta lan-munduari lotuta eman den igoera nabarmendu dute.

  *"Hemos visto una bajada en la cantidad de adultos que realizan cursos por las tardes, pero al mismo tiempo hemos visto un incremento en la demanda en empresas"*

  *"Las personas adquieren más conciencia de la importancia del inglés de cara al mundo laboral, en cuanto a ocio (viajar, etc.)"*

- Gainerakoen artean:

  Lan-munduarekin, enpresen eskaerarekin eta globalizazioarekin lotzen dute igoera, ingelesari eta neurri apalago batean, alemanari eta frantsesari dagokionez. Euskara-ikastaroen igoera, aldiz, oposaketekin lotzen dute, batez ere.

  Jaitsierarekin lotutako faktore gisa, lehia gero eta handiagoa eta prezio baxuak zabaltzea aipatu dituzte.

  *"El aumento de los cursos en Euskera es debido, fundamentalmente, a las oposiciones. En cuanto al resto de idiomas, las empresas requieren el conocimiento avanzado en varias lenguas"*

  *"16 urtez azpikoetan igoera handia izan da, gehienbat ingelesean, baita alemana eta frantsesean ere, bainan maila txikiagoan. Faktore nagusia gurasoek beharra ikusten dutela"*

  *"Gero eta globalizatuago dagoen mundu honetan etorkizun bat izateko hizkuntzak jakin behar dira"*

## Itzulpengintza eta interpretazioa

Orokorrean, krisi ekonomikoaren urteetan izandako beheraldiaren ondoren, fakturazioa gora egiten hasi dela adierazi dute. Hala ere, prezioak jaisteko presio bat ere badagoela aipatu dute.

*"Faktore bat dago: krisiaren ondorioak motelduz joan dira, eta enpresek eta erakunde publikoek gastu handiagoa egin dute dokumentuen itzulpenetan"*

*"Enpresen krisiak, eta gehienbat makina-errramintaren sektorean izandako beherakadak urte txarrak ekarri zituen, baina orain goraka doala nabari dugu"*

*"Aumento de la cantidad de trabajo, pero presión para bajar las tarifas, con lo cual los ingresos no aumentan"*

## Eduki linguistikoen lanketa

Merkatuaren bilakaera positiboa dela iruditzen zaie, oro har. Adimen artifizialaren eta hizkuntzarekin lotutako teknologia berrien garapenaz gainera, hizkuntza-politika funtsezko faktoretzat daukate.

*"Merkatuaren bilakaera positiboa da"*

*"Lan munduko euskararen sustapena; elkarlanak eta aliantzak; hizkuntza-politika berriak"*

## Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

Euskararekin lotutako baliabide linguistikoen garapenera bideratutako inbertsioa baxua dela adierazi dute. Garapen eta berrikuntza teknologikoez gainera, finantzazioa aipatu dute faktore nagusi gisa.

> *"La inversión para el desarrollo de recursos lingüísticos para el euskera es baja. Necesitamos muchos más recursos para el euskera para que puedan desarrollarse aplicaciones avanzadas como las que existen para el inglés"*
>
> *"La evolución tecnológica es el factor clave"*

## 1.5 Formakuntza, ikerketa eta berrikuntza teknologikoa

### 1.5.1. Formakuntza, ikerketa eta berrikuntza proiektuetan parte hartu duten enpresak

Azken urtean ikerketaren eta berrikuntzaren inguruko proiekturen batean parte hartu duten galdetu zaie EAEko hizkuntzen industriako enpresei. Guztira, %8,7k parte hartu du proiekturen batean. Segmentuen arabera aztertuta, hizkuntza-teknologien garapeneko enpresak dira gehien parte hartu dutenak (horien %71,4). Eduki linguistikoen lanketako enpresen %42,9k ere parte hartu du, baina beste bi segmentuetan parte hartzea txikia izan da, %5etik beherakoa.

Lurralde historikoaren arabera, Gipuzkoan kokatutako enpresetan izan da parte hartzerik handiena, baina baxua da hala ere (%12,7). Bizkaian kokatutakoen %5,7k parte hartu du soilik eta Arabakoen %3,3k besterik ez.  Enplegu-tartearen arabera aztertuta, 30 enplegutik gorako enpresa handienek parte hartu dute gehien (horien %31,3).

13. Grafikoa. Azken urtean ikerketa, berrikuntza edota garapen esperimentalerako proiekturen batean parte hartu duten enpresak, segmentuaren arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

**14. Grafikoa.** Azken urtean ikerketa, berrikuntza edota garapen esperimentalerako proiekturen batean parte hartu duten enpresak, lurralde historikoaren arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

**15. Grafikoa.** Azken urtean ikerketa, berrikuntza edota garapen esperimentalerako proiekturen batean parte hartu duten enpresak, enplegu-tartearen arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

23. Taula. Azken urtean ikerketa, berrikuntza edota garapen esperimentalerako proiekturen batean parte hartu duten enpresen segmentua, enplegu-tartea, proiektuetara bideratutako aurrekontua eta administrazioaren partetik jasotako laguntza (jaso dutenen kasuan)

| Segmentua | Enplegu-tartea | Berrikuntza proiektuen 2018ko aurrekontua | Administrazioaren laguntza programak 1 | Administrazioaren laguntza programak 2 | Administrazioaren laguntza programak 3 |
|---|---|---|---|---|---|
| Hizkuntza- teknologien garapena eta zabalpena | >30 enplegu | 11.882.988,00 | HAZITEK | KSI Berritzaile | |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | >30 enplegu | 322.338,87 | Elkartek | Interreg-Poctefa | HAZITEK |
| Eduki linguistikoen lanketa | 15,01-30 enplegu | 200.000,00 | HAZITEK | KSI berritzaile | |
| Eduki linguistikoen lanketa | 8,01-15 enplegu | 145.500,00 | Europa | Etorkizuna Eraikiz | GFA- Enpresa Ehuna |
| Hizkuntza- teknologien garapena eta zabalpena | 8,01-15 enplegu | 100.000,00 | HAZITEK | KSI berritzaile | |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | 0-1 enplegu | 1.500,00 | Hezkuntza | | |
| Hizkuntza- teknologien garapena eta zabalpena | 2,01-4 enplegu | 100.000,00 | RETOS 2015, ELKARTEK, H2000 | | |
| Hizkuntza- teknologien garapena eta zabalpena | 4,01-8 enplegu | 416.666,67 | Nacionales: Retos, Ministerio | Regionales y de la institución: Grupos de Investigación GV, becas predoctorales GV y UPV/EHU | H2020 - RIA (Research and Innovation), H2020 IA (Innovation Actions), H2020- MSCA- RISE (research and Innovation Staff Exchange) |
| Hizkuntza- teknologien garapena eta zabalpena | >30 enplegu | 800.000,00 | ELKARTEK | MINECO | |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | 0-1 enplegu | 200,00 | -- | -- | -- |
| Hizkuntzen irakaskuntza | >30 enplegu | 593.000,00 | HAZITEK | | |
| Eduki linguistikoen lanketa | 4,01-8 enplegu | 250.000,00 | HAZITEK | IKT DEIALDIAK | |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | 0-1 enplegu | 485,00 | | | |
| Hizkuntzen irakaskuntza | >30 enplegu | 10.000,00 | | | |
| Hizkuntzen irakaskuntza | 15,01-30 enplegu | 20.000,00 | | | |
| Eduki linguistikoen lanketa | 8,01-15 enplegu | 20.000,00 | KSI berritzaile | | |
| Eduki linguistikoen lanketa | 8,01-15 enplegu | . | AEESD - Impulso tecnológico | | |
| Eduki linguistikoen lanketa | 4,01-8 enplegu | 30.000,00 | Eusko Jaurlaritzako eta Donostiako Udaleko proiektuak | | |
| Hizkuntzen irakaskuntza | 15,01-30 enplegu | . | | | |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.5.2. Formakuntza, ikerketa eta berrikuntza jarduerak aurrera eraman dituzten enpresak

Proiektuetan parte hartzeaz gainera, bestelako neurriak hartu edo jarduerak aurrera eraman ditu zenbait enpresak, formakuntzarekin, ikerketarekin eta berrikuntza jarduerekin lotuta. Gutxi dira, hala ere, inkestetan bildutako emaitzen arabera. Enpresen %14,2k software edo bestelako baliabide materialak erosi ditu; horien artean, erdia baino gehiago itzulpengintzako eta interpretazioko enpresak dira. %11,9k erakunde barneko I+G jarduerak aurrera eraman ditu; horien erdia, ia, hizkuntzen irakaskuntzako enpresak dira.

24. Taula. Azken urtean formakuntza, ikerketa edo berrikuntza jarduerak aurrera eraman dituzten enpresak (%)

| | Guztira (% 219rekiko) | Irakaskuntza | Itzulpengintza / interpretazioa | Eduki linguistikoen lanketa | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erakunde barneko I+G jarduerak | 11,9 | 42,3 | 11,5 | 30,8 | 15,4 | 100,0 |
| Kanpoko I+G jarduerak | 5,9 | 15,4 | 15,4 | 46,2 | 23,1 | 100,0 |
| Software edo bestelako baliabide materialen erosketak | 14,2 | 25,8 | 58,1 | 6,5 | 9,7 | 100,0 |
| Patenteen erosketak edota patenterik gabeko aurrerapenak edota ezagutza teknikoa eskuratzeko | 0,5 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 100,0 | 100,0 |
| Erakundeko pertsonalari zuzendutako formakuntza | 11,0 | 33,3 | 37,5 | 20,8 | 8,3 | 100,0 |
| Produktuak edota zerbitzuak merkaturatzeko jarduerak | 4,1 | 33,3 | 33,3 | 22,2 | 11,1 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

Hizkuntzen industriako enpresek ikerketa eta berrikuntza arloan egindako gastuen finantzazio-iturri nagusia administrazio publikoak emandako diru-laguntzak dira. Finantzazioaren erdia gainditzen dute segmentu guztietan, eta %70etik gertu daude gainera itzulpengintza eta interpretazioan eta eduki linguistikoen lanketan. Hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko segmentuan, azpimarratzekoak dira beste enpresetatik jasotako funtsak (finantzazioaren %42).

16. Grafikoa. Ikerketa eta berrikuntza arloko 2018ko gastuen finantzazioa (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.5.3. Ikuspuntu kualitatiboa: azken hiru urteetan formakuntza, berrikuntza eta teknologia arloan emandako urratsak

#### Hizkuntzen irakaskuntza

Antzeko ildoak jarraitzen dituzte enpresa gehienek, berrikuntzaren eta teknologia berrien arloan: online ikastaroak edo erdi-presentzialak eskaintzeko baliabideak, internet-era sarbidea ikasgeletan, arbel digitalak, ordenagailuak etab.

Formakuntzari dagokionez, Euskaltegiek HABEk eskainitako ikastaroak azpimarratzen dituzte bereziki. Beste hizkuntzen irakaskuntzan dabiltzanek ez dute halako baliabiderik, eta ez dituzte formakuntzari lotutako ahalegin gehiegi azpimarratzen.

- Euskara irakasten dutenen artean:

  *"Formakuntzari dagokionez, irakasleentzako antolatutako zenbait ikastarotan parte hartu dugu"*

  *Irakasleek, formakuntza arloan, hainbat erakundek (HABEk, UEUk, Labayruk, ...) antolatutako zenbait ikastarotan parte hartzeko aukera izan dute"*

  *"Arbel digitalak ezarri ditugu ikasgela guztietan eta irakasle bakoitzak bere ordenagailu eramangarria dauka"*

- Ingelesa irakasten dutenen artean:

  *"La formación se hace entre nosotros, compartiendo ideas y experiencia. Todavía no hemos acudido a expertos de fuera"*

  *"Pizarras electrónicas para la enseñanza"*

- Gainerakoen artean:

  *"Búsqueda de material didáctico online, utilización de Internet en el aula, aplicación de nueva metodología con la aplicación de links, Webs didácticas, CD roms, traductores específicos etc."*

  *"Integración Realidad Virtual procesos formativos. Transformación digital de productos y servicios de formación en lenguas. Traducción automática. Automatización del workflow de los procesos de traducción"*

## Itzulpena eta interpretazioa

Ahaleginak egin dituzte, orokorrean, bai formakuntzan baita teknologia berrien arloan ere. Asko autonomoak direla eta lehiakortasunari eusteko zerbitzua hobetzera behartuta daudela kontuan hartu behar da.

> *"Pasa den urtean konferentzietako interpretazio-masterra egin nuen, interpretazio-arloa are gehiago lantzeko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko"*

> *"Sare sozialak kudeatzeko ikastaro bat"*

> *"Itzulpengintzarako tresnei buruzko prestakuntza, zehazki software espezifikoaren erabilerari buruzkoa"*

> *"Itzulpengintzan, etengabeko prestakuntza ezinbestekoa da: Euskaltzaindiaren arau berrietara egokitu, ahaztutakoak gogoratu, dauden estilo-liburuak errepasatu... Teknologiari dagokionez, lanerako erabiltzen dudan ekipoa ahal dudan heinean berritzen noa, software berriak eskuratu..."*

## Eduki linguistikoen lanketa

Teknologia eta tresna berriak eskuratzea eta horiek erabiltzeko formakuntza izan dira urrats nagusiak. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko KSI Berritzaile programa aipatu duenik ere bada.

> *"Prestakuntza ikastaroak, azpiegitura teknologikoak erosi eta egokitu eta lankidetza barriak produktu barritzaileagoak egiteko"*

> *"KSI berritzaile programan parte hartu. Berrikuntza ekipoak sustatu"*

## Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

> *"Transferentzia teknologikoa"*

> *"Dirección de trabajos de Máster, dirección de tesis doctorales, contrato de investigadores internacionales postdoc. Participación en las acciones mencionadas"*

### 1.5.4. Ikuspuntu kualitatiboa: formakuntza, berrikuntza eta teknologia berrien arloko erronkak, beharrak eta zailtasunak

#### Hizkuntzen irakaskuntza

- Euskara irakasten dutenen artean:

  Erronkak eta beharrak teknologia berrien arloan kokatu dituzte, batez ere, tresna eta baliabideak eskuratzearekin eta horiek erabiltzen ikasteko formakuntzarekin lotuta. Horiek aurrera eramateko zailtasunei dagokienez, denbora eta finantzazio falta nabarmendu dituzte, batez ere.

  *"Teknologia berriak irakaskuntzan txertatu ahal izateko irakasleok formakuntza behar izateaz gain, lan-tresnak ere egokitu beharra dugu. Erronka nagusia ikastaroak online eskaini ahal izatea da"*

  *"Gure erronka nagusia on-line ikastaroen eskaintza hobetzea eta zabaltzea da. Horretarako, neurriko on-line ikastaroak diseinatu, Moodle plataforman eskaini, langileak trebatu... Zailtasun nagusia finantzazioa da"*

  *"Zailtasunak finantzazio aldetik eta denbora aldetik ditugu"*

- Ingelesa irakasten dutenen artean:

  Ingelesa irakasten jarduten duten enpresak erne daude itzulpen teknologien aurrean. Ez dute uste hiru urteko epean mehatxu izango direnik, bai ordea, 5-10 urtekoan.

  *"Competir con la tecnología que ofrece servicios de traducción para quitar la necesidad de hablar / entender inglés. Aún no representa un problema pero tendrá su impacto en los próximos 5 o 10 años"*

  *"Tenemos que seguir atentos al desarollo de las aplicaciones de traducción, tanto en los ordenadores como en los dispostivos móviles"*

- Gainerakoen artean:

  Digitalizazioaren eta teknologia berrien zabalkundea aipatu dituzte, sektoreko lehiakortasunarekin batera.

  *"En la actualidad debemos tener en cuenta las nuevas formas de aprendizaje y la digitalización de las mismas"*

  *"Introducción a las herramientas de la enseñanza en linea"*

## Itzulpengintza eta interpretazioa

Itzulpen automatikoarekin lotutako teknologia berrien zabalpena da erronka nagusia, eta horien aurrean, kalitatezko produktua eskaintzea eta tarifak jaisteko presioari aurre egitea.

> *"Itzulpen automatikoak gure etorkizuna ilundu egiten du. Post-edizioaren tarifak oso txikiak dira"*
>
> *"Consideramos que los principales retos son los siguientes: el uso de la traducción automática, la presión para la reducción de tarifas, aceleración y reducción de plazos, la digitalización"*

## Eduki linguistikoen lanketa

Teknologia eta tresna berriak eskuratzea eta horiek erabiltzeko formakuntza:

> *"Transferentzia teknologikoa", "adimen artifiziala", "langileen formazioa".*

## Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

Proiektu berriak martxan jartzeko finantzazioa lortzea da zailtasun nagusia. Nazioartekotzeari begiratzen dionik ere bada.

> *"Desarrollo de nuevos proyectos. Necesidades: financiación para abordar estos nuevos proyectos"*
>
> *"Itzulpengintza automatikoa, transkribapen automatikoa"*
>
> *"Continuar con el reto de la internacionalización de nuestra actividad investigadora"*

### 1.5.5. Ikuspuntu kualitatiboa: berrikuntza eta teknologia aurreratuko aplikazioen (hizketa automatikorako teknologiak, itzulpen automatikoa, elearning...) aukerak eta mehatxuak

#### Hizkuntzen irakaskuntza

Online ikasketak zabaltzeko eta garatzeko aukerarekin lotzen dituzte enpresa askok, eta positibotzat dituzte alde horretatik, baina tresnen kostuak ere azpimarratzen dituzte.

> *"Guk esango genuke, elearning-ean dugula erronka nagusia, kalitatezko produktu bat eskaini nahi genieke gure ikasleei, bezeroei, eta ez dugu aukerarik"*

> *"Las aplicaciones moviles y el elearning son herramientas que facilitan el aprendizaje del alumnado, no obstante, son costosas para implementar"*

Mehatxuei dagokienez, Euskaltegiek teknologia berrien kostuekin eta finantzazio faltarekin lotu dituzte, batez ere. Gainerakoek lehiakortasuna (erregulatu gabeko konpetentzia, batez ere) eta teknologia berriek sortzen duten mendekotasuna aipatu dituzte.

> *"Diru-laguntzarik ez jasotzea eta Euskaltegien arteko lehiakortasuna"*

> *"On-line eskaintza diseinatzeko eta zabaltzeko finantziazioa lortzea"*

> *"Dificultad de competir por costes"*

> *"Principalmente la competencia"*

#### Itzulpengintza eta interpretazioa

Tresna lagungarritzat ditu hainbat itzultzailek, lan bolumena arintzeko eta denbora laburtzeko. Edonola ere, teknologia horien garapenak lan-mota aldatuko duela ere uste dute. Izan ere, postedizio lanak zabaltzen ari dira, itzulpenen ordez, baina okerrago ordaintzen dira. Kalitateari baino, lehentasuna kostuari eta epeei ematen zaiela aipatu dute. Lan-baldintzak okertzea dakar horrek.

> *"Oraindik guztiz fidagarriak ez badira ere, oso lagungarriak izan daitezke lan bolumen handiagoa egin ahal izateko denbora laburragoan"*

> *"Tresna automatikoen erabilera orokortzea. Giza itzultzaileek berrikusi behar dituzte gero testuak, baina eskainitako tarifa merkeagoa da. Tresnak askotan ez dira egokiak, eta beraz, lan gehiago egiten da diru gutxiagoren truke"*

> *"Itzulpen automatikoa zabaltzen ari da, eta horrekin batera, postedizio lanak gero eta ohikoagoak dira. Itzulpenak baino okerrago ordaintzen dira. Hori da mehatxu nagusia"*

## Eduki linguistikoen lanketa

*"Enpresa asko desagertuko dira", "Lehiakide berriak".*

## Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

Mehatxu gisa ikusten dute enpresa teknologiko handiekiko mendekotasuna, haiek garatzen baitute teknologia.

*"Las grandes empresas tecnológicas (Google fundamentalmente), que hacen que se dependa de ellas si o si"*

*"Que la tecnología la produzcan las grandes empresas multinacionales como Google, Facebook etc., con una capacidad casi ilimitada de acceso a datos y que no aportan valor local"*

### 1.5.6. Eraldaketa digitalaren eta online eskaintzen diren hizkuntz industriako zerbitzuen eragina enpresen jardueran

Eraldaketa digitalak eta online eskaintzak enpresen jardueran zein eragin duten galdetuta, eragin positiboaren aldeko jarrera gailentzen da, oro har, baina alde nabarmenak daude segmentu batetik bestera. Horrela, hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko enpresen %71,4k eragin positiboa dutela adierazi du, eta gainerakoek ez dute zehaztu.

Eduki linguistikoen lanketan erdiak adierazi du eragin positiboa dutela, %43k itzulpengintzan eta interpretazioan eta %32,4k hizkuntzen irakaskuntzaren segmentuan. Oso gutxi dira, hala ere, eragin negatiboa dutela baieztatu dutenak, %4,8 hizkuntzen irakaskuntzan eta %4,3 itzulpengintzan eta interpretazioan.

25. Taula. Eraldaketa digitalaren eta online eskaintzen hizkuntz industriako zerbitzuen eragina enpresen jardueran (%)

| | Irakaskuntza | Itzulpengintza / interpretazioa | Eduki linguistikoen lanketa | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Oro har positiboa | 32,4 | 43,0 | 50,0 | 71,4 | 39,3 |
| Positiboa arlo batzuetan, negatiboa beste batzuetan | 19,0 | 22,6 | 14,3 | 0,0 | 19,6 |
| Oro har negatiboa | 4,8 | 4,3 | 0,0 | 0,0 | 4,1 |
| Ez positiboa, ez negatiboa | 28,6 | 21,5 | 28,6 | 0,0 | 24,7 |
| Zehaztu gabe | 15,2 | 8,6 | 7,1 | 28,6 | 12,3 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.5.7. Ikuspuntu kualitatiboa: Eraldaketa digitalaren eta online eskaintzen diren hizkuntz industriako zerbitzuen eragina

#### Hizkuntzen irakaskuntza

Ikaslearen ikuspuntutik eragina positiboa dela adierazi dute, oro har, aukera horrek eskaintzen dituen askatasunari eta malgutasunari dagokionez. Irakaslearen ikuspuntutik, berriz, eragozpenak azpimarratzen dituzte, lan-karga handitzea eta baldintzak okertzea dakarrelako. Enpresaren ikuspuntutik, lehiari eusteko gastua handitzea dakarrela adierazi dute. Erregulatu gabeko konpetentzia aipatu dute kasu honetan ere.

> *"Irakasleen lana erraztu du eta material gehiago dago eskuragarri"*

> *"Autoikaskuntza sistema martxan jartzeak ikasleak, hau da, bezeroak erakarri ditu Euskaltegira, baina lan-baldintzak kaskartu ditu, irakasleen ordutegia batez ere"*

> *"Positiva por la parte que hay clientes que aprenden online. Negativa por la parte que hay competidores/intrusos con precios muy bajos (por no ser un mercado regulado) que resultan una amenaza"*

#### Itzulpengintza eta interpretazioa

Bi aurpegi dituen errealitatea da. Lana erraztu dezake, baina tarifak jaistea eta lan-baldintzak okertzea ere bai.

> *"Errazten du autonomo lana, malgutasuna ematen du, eta hainbat tokitako bezeroekin lan egiteko aukera"*

> *"Facilita el acceso a información de todo tipo (sin salir de la oficina) y me facilita el trabajo de traducción, pero también permite al cliente prescindir de mis servicios (puede recurrir a traductores automáticos, conseguir precios más baratos…)"*

#### Eduki linguistikoen lanketa

> *"Prozedurak hobetu dira"*

> *"Itzulpengintzako sektorean tarifak merketuz doaz"*

#### Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

> *"Cada vez se recurre más a herramientas digitales"*

### 1.5.8. Kudeaketa arloko zertifikazio edo ziurtagiriak (kalitatea, ingurumena, hizkuntzaren kudeaketa...)

Guztira enpresen %14 inguruk ditu kudeaketarekin lotutako ziurtagiriak. Segmentuen arabera, eduki linguistikoen lanketan dago ziurtagiria duten enpresen ehuneko handiena (%35,7), alde handi samarrarekin, gainera. Lurralde historikoei erreparatuta, Arabak eta Bizkaiak Gipuzkoa gainditzen dute, lau puntu baino gehiagoko aldearekin. Enplegu-tarteen arabera agerian gelditzen da enpresa handienen artean dagoela ziurtagiria daukatenen ehunekorik handiena.

**17. Grafikoa.** Kudeaketa arloko ziurtagiriak dituzten enpresak, segmentuaren arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

**18. Grafikoa.** Kudeaketa arloko ziurtagiriak dituzten enpresak, lurralde historikoaren arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

19. Grafikoa. Kudeaketa arloko ziurtagiriak dituzten enpresak, enplegu-tarteen arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.5.9. Atzerriko hizkuntzak ikasten dituzten ikasleen hizkuntza -gaitasuna ofizialki egiaztatzeko, lehendik daudenez gain, EAEko akreditazio sistema propioa garatzeko beharra

Hizkuntzen irakaskuntzaren segmentuko enpresek iritzia eman dute hizkuntza-gaitasuna ofizialki egiaztatzeko EAEko sistema propio baten beharraren inguruan. Horien %20k soilik uste du garrantzitsua dela. Are gehiago, enpresen %23,8k uste du ez duela garrantzirik. Dena den, enpresen erdiak, ia, ez daki edo ez du zehaztu erantzunik (%47,6).

20. Grafikoa. Hizkuntzen akreditazio sistema propioa garatzeko beharra (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

## 1.6 Lehiakortasun faktoreak

### 1.6.1. Enpresen lehiakortasun maila edo posizionamendu estrategikoa

Faktore ezberdinek eragin dezakete enpresen lehiakortasunean eta posizionamendu estrategikoan. Hizkuntzen industriako enpresek emandako garrantziaren arabera, langileen prestakuntza eta kualifikazioa da lehena ranking-ean (enpresen %84k eman dio garrantzi handia edo oso handia). Lan prozesuen hobekuntza edo optimizazioa da bigarrena eta giza baliabideen kudeaketa hirugarrena.

21. Grafikoa. Garrantzi gehien duten faktoreak, enpresen lehiakortasunari eta posizionamenduari dagokionez (garrantzi handia edo oso handia eman dieten enpresen portzentajea)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Erantzunak segmentuz-segmentu aztertuta, langileen prestakuntzari eta kualifikazio mailari garrantzi handia edo oso handia eman diote guztietan. Hizkuntzen irakaskuntzan, merkatu kuota altuagoa lortzeaz gainera (enpresen %70,4k garrantzi handia edo oso handia), giza baliabideen kudeaketa (%69,3) eta lan prozesuen hobekuntza eta optimizazioa(%68) ere azpimarratu dituzte.

Itzulpengintzan lanen entregarako epeak gero eta laburragoak direla nabarmendu dute (enpresen %69k garrantzi handia edo oso handia), eta kalitate eskakizunak gero eta altuagoak direla ere bai (%53). Eduki linguistikoen lanketan, administrazio publikoarekin kontratuak lortzeari garrantzi handia eman diote (%84,6), berritzaileak diren produktu edo zerbitzuak eskaintzeari bezala.

Hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko segmentuan, enpresa guztiek garrantzi handia edo oso handia eman diete administrazio publikoarekin kontratuak lortzeari, diru-laguntza bidezko finantzazioa lortzeari eta beste enpresekin aliantzak egiteari, besteak beste.

22. Grafikoa. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: garrantzi gehien duten faktoreak, enpresen lehiakortasunari eta posizionamenduari dagokionez (garrantzi handia edo oso handia eman dieten enpresen portzentajea)




*Iturria: Siadeco, 2019*

**23. Grafikoa.** ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOA: garrantzi gehien duten faktoreak, enpresen lehiakortasunari eta posizionamenduari dagokionez (garrantzi handia edo oso handia eman dieten enpresen portzentajea)




*Iturria: Siadeco, 2019*

24. Grafikoa. EDUKI LINGUISTIKOEN LANKETA: garrantzi gehien duten faktoreak, enpresen lehiakortasunari eta posizionamenduari dagokionez (garrantzi handia edo oso handia eman dieten enpresen portzentajea)




*Iturria: Siadeco, 2019*

**25. Grafikoa.** HIZKUNTZA-TEKNOLOGIEN GARAPENA ETA ZABALPENA: garrantzi gehien duten faktoreak, enpresen lehiakortasunari eta posizionamenduari dagokionez (garrantzi handia edo oso handia eman dieten enpresen portzentajea)




*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.6.2. Ikuspuntu kualitatiboa: enpresen indarguneak, lehiakortasun eta posizionamendu estrategikoari dagokionez

#### Hizkuntzen irakaskuntza

Gehien errepikatzen dena esperientzia da, irakasleen eskarmentua eta enpresen izen ona, sektorean ahoz ahokoak ondo funtzionatzen duelako. Hurbiltasuna ere sarritan aipatzen dute.

> *"Hainbat urte eramatea euskara irakasten, ikasleak entzutea, ospe ona, esperientzia"*

> *"Urtetako esperientzia, hurbiltasuna, eskaintza zabala"*

> *"La calidad del servicio, los años de experiencia, la profesionalidad y la implicación. El buen nombre ya adquirido ayuda"*

#### Itzulpengintza eta interpretazioa

Kalitateaz eta esperientziaz gainera, balio handia ematen zaio denborari, berehalakotasunari eta epeak betetzeari.

> *"Erantzun azkarra, kalitatea, fidagarritasuna"*

> *"Itzulpenaren kalitatea, berehalako erantzuna eta epeak betetzea"*

#### Eduki linguistikoen lanketa

Esperientzia da gehien baloratzen den indargunea.

> *"Erakundearen ezagutza edo know-how delakoa"*

> *"Lanaren kalitatea eta zerbitzu integrala eskaintzea"*

#### Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

Esperientziaz gainera, teknologia berrien ezagutza aipatu dute.

> *"El grado de conocimiento y dominio de la tecnología más avanzada"*

> *"Experiencia demostrada en los últimos 30 años de la calidad de nuestros productos, prototipos, recursos"*

### 1.6.3. Ikuspuntu kualitatiboa: enpresen ahuleziak, lehiakortasun eta posizionamendu estrategikoari dagokionez

#### Hizkuntzen irakaskuntza

Euskaltegien artean ahulezia nagusiak: tituluak lortzeko helburua zabaldu izana eta langileen plantillak berritzeko zailtasunak. Ingelesa eta beste hizkuntzak irakasten dituzten zentroen kasuan, zentroen arteko lehia bizia, frankizia eta kate handien eraginez, batez ere.

- Euskara irakasten dutenen artean:

  *"Ikasle gehienen ikasteko motibazioa instrumentala izatea, hau da, tituluren bat egiaztatzeko bakarrik ikastea euskara"*

  *"Langile berriak (ordezkapenak...) aurkitzeko zailtasuna, eskaintza ez baita erakargarria (ordutegia, lan-karga, estabilitatea...)"*

- Ingelesa irakasten dutenen artean:

  *"No podemos competir con grandes cadenas de franquicia"*

  *"No puedo tirar los precios como hacen las grandes cadenas de idiomas"*

- Gainerakoen artean:

  *"Mucha competencia en la localidad y alrededores"*

  *"La multitud de competencia que hay y la desigualdad de condiciones a la hora de competir con ellos"*

#### Itzulpengintza eta interpretazioa

Lan-karga handia eta prezioak negoziatzeko ahalmen eskasa dira ahulezia nagusiak, bezero berriak lortzeko zailtasunarekin batera. Autonomoak edo enpresa txikiak izatearekin lotutako zailtasunak dira.

*"Prezioak inposatzeko indar gutxi"*

*"Bakarra naizela eta horrek lan-karga handia ekartzen didala batzuetan"*

## Eduki linguistikoen lanketa

Finantzazio publikoarekiko mendekotasuna eta prezio aldetik lehiakorra izateko zailtasuna.

*"Finantzazio publikoak baldintzatuta egotea"*

*"Kalitatean galdu gabe, prezioetan lehiakorra izatea"*

## Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

Baliabide gehiago dituzten enpresa handiagoekin lehiatu behar izatea da ahulezia nagusia.

*"Enpresas del sector con recursos mucho mayores"*

*"Inbertsiorako ahalmen eskasa"*

### 1.6.4. Emaitza ekonomikoen bilakaera

Emaitza ekonomikoek azken hiru urteetan izan duten bilakaerari dagokionez, enpresen erdia pasatxok baieztatu du bilakaera positiboa edo oso positiboa izan duela (%52,3). %10era ez da iristen bilakaera negatiboa edo oso negatiboa eduki dutenen multzoa.

Segmentuen arabera aztertuta, nabarmentzekoa da eduki linguistikoen lanketan enpresa bakarrak ere ez duela bilakaera negatiborik eduki. %64,2k bilakaera positiboa edo oso positiboa eduki du, eta %35,7k mantendu egin dela adierazi du. Itzulpengintzan eta interpretazioan %60ra hurbiltzen da bilakaera positiboa edo oso positiboa eduki duten enpresen portzentajea (%58,4), baina %10 da bilakaera negatiboa edo oso negatiboa eduki duena.

Hizkuntzen irakaskuntzan, gainerako segmentuekin alderatuta, baxua da bilakaera positiboa edo oso positiboa eduki dutenen portzentajea (%43,2). Hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko enpresen bi herenek bilakaera positiboa edo oso positiboa eduki du. %16,7k, aldiz, bilakaera negatiboa dela adierazi du.

26. Grafikoa. Emaitza ekonomikoen azken hiru urteetako bilakaera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Hurrengo hiru urteetarako aurreikuspenak nahiko baikorrak dira, orokorrean, enpresen erdiak uste baitu bilakaera positiboa edo oso positiboa izango dela. Aurreikuspen onenak dituen segmentua hizkuntza-teknologien garapena eta zabalkundea da, enpresen bi herenek uste baitu bilakaera positiboa izango dela, eta oso positiboa, beste herenak. Eduki linguistikoen lanketan ere ez dago aurreikuspen negatiboak dituen enpresarik. Itzulpengintzan eta interpretazioan, berriz, enpresen %11,2k bilakaera negatiboa edo oso negatiboa aurreikusten du, eta %4,5ek hizkuntzen irakaskuntzan.

**27. Grafikoa.** Emaitza ekonomikoen hurrengo hiru urteetarako aurreikuspena (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.6.5. Bilakaera, langile kopuruari dagokionez

Langile kopurua murriztera jo dute Hizkuntzen Industriako enpresek, orokorrean. Izan ere, enpresen %39k murriztu du langile kopurua, azken hiru urteetan, eta %3k baino ez du handitu. Segmentuz-segmentu, hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena izan da bilakaera negatiboa izan ez duen bakarra. Segmentuko enpresen herenak langile kopurua igo egin du, eta beste bi herenek mantendu.

Eduki linguistikoen lanketan enpresen %7,1ek igo du langile kopurua, baina %28,6k murriztu egin du. Itzulpengintza eta interpretazio segmentuan enpresen %30 baino gehiago da langile kopurua murriztu duena, eta erdia baino gehiago Hizkuntzen Irakaskuntzan.

28. Grafikoa. Langile kopurua: azken hiru urteetako bilakaera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Hurrengo hiru urteetarako aurreikuspenei dagokienez, orokorrean, gehiago dira langile kopurua igo egingo dela uste dutenak (%9,6), jaitsi egingo dela aurreikusten dutenak baino (%4,3). Alde handiak daude, hala ere, segmentu batetik bestera: hizkuntza-teknologien garapen eta zabalpen segmentuan enpresen bi herenek adierazi du langile kopuruak gora egingo duela, %28,6k eduki linguistikoen lanketan, eta %6k baino ez itzulpengintzan eta interpretazioan eta hizkuntzen irakaskuntzan. Azken horretan, enpresen %8k dio langile kopurua murriztu egingo duela.

29. Grafikoa. Langile kopurua: hurrengo hiru urteetarako aurreikuspena (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

## 1.7 Kolaborazio maila

### 1.7.1. Kolaborazio aktiboa beste entitateekin

Beste entitate edo erakundeekin kolaboraziorik ba ote duten azaldu dute enpresek, kontratazio bidezko lanak aparte utzita, beti ere. Guztira, enpresen %42,7k dauka kolaborazio aktiboa. Batez ere, eduki linguistikoen lanketan ematen da kolaborazio gehien (enpresen %85,7), segmentuaren arabera. Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena segmentuan enpresen %57 da beste entitateekin kolaboratzen duena, %45,8 hizkuntzen irakaskuntzan eta %31,5 itzulpengintzan eta interpretazioan.

Lurralde historikoari erreparatuta, Gipuzkoan ia enpresen erdiak kolaboratzen du beste entitateekin (%48), %39,3k Araban eta %37,5ek Bizkaian. Enpresen tamainari dagokionez, autonomoek eta enpresa txikiek kolaboratzen dute gutxien.

**30. Grafikoa.** Kolaborazio lanak beste entitateekin, segmentuaren arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

**31. Grafikoa.** Kolaborazio lanak beste entitateekin, lurralde historikoaren arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

**32. Grafikoa.** Kolaborazio lanak beste entitateekin, empleguaren arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

Enpresen herenak, jarduera-adar bereko beste enpresekin kolaboratzen du, eta %18,4k, gainera, talde berekoak diren enpresekin. Segmentuen arteko alderaketa eginez gero, nabarmentzekoa da eduki linguistikoen lanketan eta hizkuntza-teknologien zabalpenean enpresen %71,4 dela unibertsitateekin kolaboratzen duena. Itzulpengintzan eta interpretazioan eta hizkuntzen irakaskuntzan, enpresen %6 baino ez da.

Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena segmentuko enpresa gehien-gehienek zentro teknologikoekin kolaboratzen dute (%85,7), baina eduki linguistikoen lanketakoen %35,7k ere bai. Itzulpengintzan eta interpretazioan %2koa da portzentaje hori, eta %1ekoa hizkuntzen irakaskuntzan.

26. Taula. Zein eratako entitateekin kolaboratzen duten, segmentuaren arabera (%)

| | Irakaskuntza | Itzulpengintza / interpretazioa | Eduki linguistikoen lanketa | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Talde bereko beste enpresekin | 27,1 | 4,5 | 28,6 | 57,1 | 18,4 |
| Sektore edo jarduera adar bereko beste enpresekin | 28,1 | 32,6 | 50,0 | 57,1 | 32,5 |
| Zentro teknologikoekin | 1,0 | 2,2 | 35,7 | 85,7 | 6,8 |
| Unibertsitateekin | 6,3 | 6,7 | 71,4 | 71,4 | 13,1 |
| Besterik | 13,5 | 11,2 | 35,7 | | 13,6 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.7.2. Ikuspuntu kualitatiboa: kolaborazio aktiboa beste entitateekin

#### Hizkuntzen irakaskuntza

Euskaltegien kasuan, zentroen artean harremana edukitzeaz gainera, arlo instituzionalean HABErekin harremana dute, eta sozialean, tokiko euskara elkarteekin. Hizkuntza Eskolek ere harreman-sare instituzionala dute, eta gainerako hizkuntza-akademiek, batez ere, ikasleen mugikortasunarekin lotutako harremanak dituzte, ikasleak beste herrialdeetara bidaltzeko edo horietatik ikasleak bertara ekartzeko.

- Euskara irakasten dutenen artean:

  *"Eskualdeko euskara elkarteekin"*

  *"Udal euskara-zerbitzuarekin, beste udal euskaltegiekin eta HABErekin"*

- Ingelesa irakasten dutenen artean:

  *"Con Eirlan de cara a mandar a los alumnos a Irlanda en verano"*

  *"Intentamos colaborar con profesores de español en los EEUU para traer alumnos aquí a aprender/practicar el español"*

- Gainerakoen artean:

  *"Colaboro con una agencia que organiza cursos en el extranjero para estudiantes de idiomas"*

  *"Euskal Erkidegoko gainerako Hizkuntza Eskolekiko elkarlana etengabea da, bereziki, ebaluazio proben osaketan"*

#### Itzulpengintza eta interpretazioa

Gutxi dira beste entitateekin kolaborazio lan aktiboa egiten dutenak. Gehienek beste autonomo batzuekin dute elkarlan bakarra.

*"EIZIErekin lankidetza lanbidearen ikusgarritasuna eta baldintzak hobetzeko. CEATL Europako itzultzaile elkartearekin lankidetza, itzultzaileen arteko sareak sendotu eta aliantzak sortzeko"*

*"Noizean behin beste autonomoren batekin aritzen naiz elkarlanean (berak hartu ezin dituen lanak pasatzen dizkit)"*

## Eduki linguistikoen lanketa

Segmentu honetan handia da erakundeekin eta euskararen arloko beste entitateekin elkarlanean ari direnen kopurua.

> *"Euskararen arloko beste agente batzuekin, erakundeen aholku batzordeetan…"*
>
> *"Herriko elkarteekin"*
>
> *"Administrazio publikoekin"*

## Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

Segmentu honetako enpresak, oro har, aktiboak dira elkarlanean, unibertsitateekin, gune teknologikoekin eta bertako zein nazioarteko enpresekin. Europa mailako proiektuetan parte hartzen dute.

> *"Proyectos en colaboración (H2020 y nacional)"*
>
> *"Colaboración con universidades, centros tecnológicos y empresas nacionales e internacionales"*
>
> *"Proyectos europeos"*

### 1.7.3. Ikuspuntu kualitatiboa: zein elkarte edo entitaterekin kolaboratzen duten enpresek

#### Hizkuntzen irakaskuntza

Euskaltegiek Euskara Aholku Batzordeetan, udaletako Euskara zerbitzuetan, Euskaltegien sareetan eta mintzapraktikarekin lotutako ekimenetan parte hartzen dute. Ingelesa eta gainerako hizkuntzak irakasten dituzten zentroek ikasleen mugikortasunarekin lotutako harremanak dituzte, batez ere.

- Euskara irakasten dutenen artean

  *"Euskaraldia prestatzeko batzordea", "Udaleko Euskara zerbitzua", "HABE", "Udal euskaltegien sarea eta Bai Euskarari elkartea", "Durangoko Euskara Kontseilua", "BATUZ Euskaltegi Homologatuen Elkartea", "Euskararen Aholku Batzordea", "Berbalagun", "Mintzalaguna".*

- Ingelesa irakasten dutenen artean

  *"Centro autorizado para los examenes Cambridge English", "San Prudencio Cooperativa de Enseñanza".*

- Gainerakoen artean

  *"Agencia de cursos en el extranjero", "Fundación Kutxa", "ACIE (Asociación de Centros de Idiomas de Euskadi)", "Corporación Mondragón", "Euskadiko Hizkuntza Eskolen Zuzendari taldea", "ASTEX (viajes en el extranjero)", "School travel (viajes en el extranjero)".*

#### Itzulpengintza eta interpretazioa

*"EIZIE", "Euralex", "Mediterranean Editors and Translators", "AEC", "sektoreko agentziak", "beste autonomo batzuk", "itzulpengintzako enpresak", "Oxfam", "Langune", "A&B Traducciones", "Bakun", "Asociación Sectorial de Proveedores de Servicios de Traducción (Asproset)", "Erkide", "CEATL", "Atrae", "Euskaltzaindia", "Etxepare Euskal Institutua", "Hekimen (Euskal Hedabideen Elkartea)", "Aneti", "Eiken".*

#### Eduki linguistikoen lanketa

*"EHU, IKER taldea, IXA informatika taldea", "NPLD (Network to Promote Language Diversity)", "Langune", "Soziolinguistika Klusterra", "Hekimen-Euskal Hedabideen Elkartea", "Kontseilua", "Merkator network".*

#### Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

*"Eusko Ikaskuntza", "Elhuyar", "Vicomtech", "Tecnalia".*

### 1.7.4. Ikuspuntu kualitatiboa: kolaborazioaren abantailak

#### Hizkuntzen irakaskuntza

Diferentzia handiena da Euskaltegiek, herrietan dituzten harremanengatik, tokiko ekintza eta jardueretan parte hartzeari garrantzia ematen diotela. Beste hizkuntzen irakaskuntzan ari direnek, aldiz, dimentsio handiagoko proiektuetan parte hartzeari garrantzia ematen diote. Zentroen arteko lankidetza dutenek lana erraztea, irizpideak bateratzea edo arazoei irtenbideak ematea azpimarratzen dituzte.

- Euskara irakasten dutenen artean

*"Herrian egiten diren ekintza eta abarretan Euskaltegiak bere tokia izatea"*

*"Elkarren Berri izan, adostutako erabakiak hartu, proiektu bateratuetan parte hartu,…."*

- Gainerakoen artean

*"Compartir experiencias y trabajar en proyectos conjuntos", "Mayor visión, aprendizaje, abarcar proyectos de mayor dimensión"*

*"Lana errazten du, irizpideak bateratzen dira, antzeko jokaerak izaten laguntzen du eta arazoei irtenbidea ematen laguntzen du. Bestalde, erakunde izaera indartzen du"*

#### Itzulpengintza eta interpretazioa

EIZIEren moduko entitateekin harremana dutenentzat, lan eskaintzen berri izatea eta ikastaroetan parte hartzeko aukera azpimarratu dituzte. Elkarren artean kolaboratzen duten autonomoei dagokienez, elkarri laguntzeko edo lanak elkar trukatzeko aukera nabarmendu dituzte.

*"Lan handiak denbora gutxiagoan ateratzea. Dudak elkarrekin argitu eta elkarri laguntzeko aukera"*

*"Lanak eta proiektuak elkarri helaraztea, kontsultarako sare bat izatea, baldintza txarrei aurre egiteko indar handiagoa izatea"*

#### Eduki linguistikoen lanketa

*"Proiektuak identifikatzen eta garatzen laguntzen digu eta finantzazioa lortzeko zilegitasuna ematen digu"*

*"Ezagutza partekatu eta eskuratu. Eraldaketa sozialean eragiteko aukera dugun proiektuetan parte hartzea"*

### 1.7.5. Ikuspuntu kualitatiboa: kolaborazioaren desabantailak

#### Hizkuntzen irakaskuntza

Nagusiki, kolaborazioari eskaini beharreko denborarekin eta desplazamenduekin lotu dituzte desabantailak.

*"Kolaboratzeak berak eskatzen duen denbora eta dedikazioa"*

*"Perdemos mucho tiempo en los desplazamientos"*

#### Itzulpengintza eta interpretazioa

Koordinazio falta edo koordinatzeko zailtasuna da desabantaila nagusia, eurentzat.

*"Koordinazio handia behar da, eta ongi koordinatzea ez da beti erraza izaten"*

*"Lankidetza askoren artekoa baldin bada, koordinazioa zail dezake"*

#### Eduki linguistikoen lanketa

Elkarlanari eskaini beharreko dedikazioa, denbora eta horrek dakarren kostua azpimarratu dituzte, baita ohiko lan-erritmoa moteltzea ere.

*"Batzuetan erritmoa moteldu egiten du eta kostu ekonomikoa ere badu"*

*"Dedikazioa eta denbora"*

## 1.8 Languneri buruz

### 1.8.1. Languneri buruzko informazioa

Hizkuntzen industriako enpresen %16,1ek baino ez du Languneren berri. Segmentuen arabera, gainera, diferentzia handia dago. Hizkuntza-teknologien garapeneko eta zabalpeneko enpresa guztiek baieztatu dute badutela Languneri buruzko nahikoa informazio. Eduki linguistikoen lanketako segmentuan ere ezagutza handia da, %64,3k adierazi du baduela nahikoa informazio eta %28,8k zerbait, behintzat, badakiela. Itzulpengintzan eta interpretazioan, berriz, enpresen %53,5ek ez du Langune ezagutzen, eta %69,4k Hizkuntzen irakaskuntzan. Enpresen tamainari erreparatuta, enpresa handienek dute informazio gehien Languneren inguruan.

**33. Grafikoa.** Languneri buruzko informazioa duten edo ez, segmentuaren arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

34. Grafikoa. Languneri buruzko informazioa duten edo ez, lurralde historikoaren arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

35. Grafikoa. Languneri buruzko informazioa duten edo ez, enplegu-tartearen arabera (%)




*Iturria: Siadeco, 2019*

### 1.8.2. Ikuspuntu kualitatiboa: Zer eskatzen dioten Languneri

#### Hizkuntzen irakaskuntza

Merkatu-ikerketa bat egitea aipatu dute, baina helburu ezberdinekin. Euskararen benetako erabilera sustatzeko, Euskaltegiek. Eta iruzurrarekin eta ezkutuko ekonomiarekin amaitzeko, gainerakoek. Sarritan aipatu dute mehatxu hori, gainera.

> *"Informazioa helaraztea, nire beharrizanen berri galdetzea, nire antzekoekin harremanetan jartzeko bidea erraztea…"*
>
> *"Información sobre nuevas iniciativas, oportunidades para aprender"*
>
> *"Un análisis de mercado. Regulación del sector enseñanza de idiomas"*

#### Itzulpengintza eta interpretazioa

Prekarietatearen eta lan-baldintza txarren aurrean, tarifa minimoak finkatzeko lan egitea da gehien errepikatu den eskaera. Langunen parte hartzeko kuota altua dela ere aipatu dute batzuek.

> *"Itzultzaile autonomoen lan-baldintzak hobetzeko lan egitea, batik bat tarifa minimoak finkatzeko asmoz"*
>
> *"Tarifak finkatzea, batez ere itzulpengintzan"*
>
> *"Hizkuntz Industrien alorreko langileei baldintza duinetan lan egiteko aukera emateko ahalegina egitea"*

#### Eduki linguistikoen lanketa

Lankidetza eta eragin-gaitasun handiagoa eskatzen dizkiote, batez ere erakundeekin.

> *"Lankidetzarako esparrua izan dadila"*
>
> *"Ikuspegi estrategiko handiagoa. Erakundeetan gehiago eragitea. Anbizioa"*

## Hizkuntza-teknologien garapena eta zabalpena

Diru-laguntzen kudeaketaz gainera, hizkuntz-industriak ikusgai egiteko lana eskatzen diote.

> *"Una gestión integral de las subvenciones, tanto de las existentes como incentivando a las entidades públicas en el lanzamiento de nuevas subvenciones"*
>
> *"Lobby lanak, hizkuntz industrien bisibilizazio-lanak"*
>
> *"Que sirva de verdadero impulsor de las tecnologías lingüísticas"*

# EUSKARAREN ERAGIN EKONOMIKOA

Gipuzkoan



2019

# Aurkibidea [Euskararen eragin ekonomikoa]


Laburpena ....... 116

1 Sektorearen mugaketa ....... 120

1.1 Kontuan hartu beharreko jarduera-eremuak ....... 121

2 Euskara sektoreetako enplegua ....... 125

2.1. Jarduera-adar bakoitzari aplikatu beharreko euskara-koefizientearen kalkulurako prozedura ....... 126

2.2 Hizkuntzaren industria ....... 127

2.3 Kultura eta hedabideen industria ....... 129

- 2.3.1 Liburuaren industria: argitaletxeak eta liburu-dendak ....... 131
- 2.3.2 Musikaren industria: diskoetxeak, disko-saltokiak, musika sustatzaileak eta programatzaileak ....... 133
- 2.3.3 Kultur sortzaileak: idazleak, musikariak eta artearen eta kulturaren alorreko bestelako ekoizleak ....... 136
- 2.3.4 Ikus-entzunezkoen industria ....... 137
- 2.3.5 Arte eszenikoak ....... 139
- 2.3.6 Bertsolaritza ....... 141
- 2.3.7 Hedabideak ....... 142
- 2.3.8 Euskara elkarteak ....... 147
- 2.3.9 Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako enpresa eta elkarteak ....... 147

2.4 Hezkuntza ....... 150

2.5 Administrazio publikoa ....... 155

- 2.5.1 Euskararen sustapenerako herri-administrazioen zuzeneko enplegua ....... 156
- 2.5.2 Kulturaren sustapenerako herri-administrazioen zuzeneko enplegutik euskarari dagokionaren estimazioa ....... 156

2.6 Enplegua guztira ....... 161

3 Euskara-sektoreen datu ekonomikoak ....... 162

3.1 Hizkuntzaren industria ....... 164

3.2 Kultura eta hedabideen industria ....... 166

3.3 Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak ....... 169

3.4 Administrazio publikoa ....... 170

4 Euskararen eragin ekonomikoa ........ 171

4.1 Argibide metodologikoak ........ 172

4.1.1 Eragin ekonomikoa: zuzena, zeharkako eta induzitua ........ 172

4.1.2 Ondasun eta produktuen balorazio ekonomikoa ........ 172

4.1.3 Input-Output taula estatistikoak ........ 173

4.1.4 Zuzeneko eta zeharkako eragin ekonomikoa kalkulatzeko prozedura ........ 177

4.1.5 Eragin induzitua kalkulatzeko prozedura ........ 179

4.2 Zuzeneko eta zeharkako eragin ekonomikoa ........ 181

4.2.1 Ekoizpen balioa ........ 181

4.2.2 Balio Erantsi Gordina ........ 184

4.2.3 Enplegua ........ 186

5. Euskararen ekarpena Gipuzkoako ekonomiaren BPGan ........ 188

5.1 Euskararen BPGa kalkulatzeko prozedura ........ 189

5.2 Euskararen pisua Gipuzkoako ekonomian ........ 189

# Laburpena

## EUSKARAREN ERAGIN EKONOMIKOA

### Gipuzkoan



*Euskararen balio eta dimentsio ekonomikoari buruzko emaitzek agerian uzten dute euskararekin lotutako sektoreek Gipuzkoako ekonomian duten eragina. Gipuzkoako ekonomiak sortzen duen enpleguaren %8 eta Balio Erantsi Gordinaren %5,7 euskarari lotua dago. Sektore ekonomiko gisa, lurraldeko Barne Produktu Gordinaren %5,3 dagokio euskarari.*

## Hizkuntzaren industria

Hizkuntzen industriako enpresa eta erakundeek 773 laguneko enplegua sortzen dute, zuzenean euskararekin lotuta: gehienak euskararen irakaskuntzako langileak (348) eta itzulpengintzaren eta interpretazioaren azpi-sektorekoak dira (260). Hizkuntzen industrian, euskararekin lotutako jardueraren fakturazio bolumena 45 milioi eta erdikoa da eta 35 milioi pasatxoko Balio Erantsi Gordina sortzen dute. Kontuan hartu behar da datu ekonomiko horiek ez direla hizkuntzaren industria osoarenak, euskarari lotua dagoen jarduera ekonomikoarenak bakarrik baizik.

## Kultura eta hedabideen industria

Euskal kulturgintzaren eta hedabideen arloan 2.373koa da euskararekin lotutako zuzeneko enplegua. Euskara-enplegu handiena duen azpi-sektorea hedabideena da (821), komunikazio, kultur eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresen aurretik (634). Kulturaren eta hedabideen industriak 192 milioi eta erdi fakturatzen ditu urtean eta 118,3 milioiko Balio Erantsi Gordina sortzen du..

## Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak

Guztira ia 15 mila lagun enplegatzen ditu euskarazko irakaskuntza sistemak Gipuzkoan, 14 inguru unibertsitate aurreko ikasketetan eta beste mila unibertsitate mailako gradu eta graduondokoetan. Sektoreak 765 milioi euro fakturatzen ditu urtean eta 654 milioi euroko Balio Erantsi Gordina sortzen du

## Administrazio publikoa

746 dira euskara-enpleguak Gipuzkoako administrazio publikoetan, euskara zerbitzuetako enpleguaz gain, kultura arloetakoaren zati bat ere kontuan hartuta, kulturaren industriak Gipuzkoan duen bolumenarekiko euskarazkoak duan pisuaren arabera. 199 dira euskara zerbitzuetako enpleguak eta 547 kultura arloan euskararekin lotutakoak direnak. 123,3 milioi euroko aurrekontua du eta 42 milioiko Balio Erantsi Gordina sortzen du.

## Euskararen dimentsio ekonomikoa

Azterlan honetako lau euskara-sektoreetarako kalkulatutako datu ekonomikoen baturak, euskararen balio edo dimentsio ekonomikoa zenbatekoa den erakusten digu. Euskara-sektoreek guztira ia 19.000 enplegu sortzen dituzte Gipuzkoan (enplegu zuzenak) eta ia 850 miloi euroko Balio Erantsi Gordina urtean.

Gipuzkoako ekonomiak orotara 310.000 mila laguneko enplegua sortzen du eta euskararekin lotura duten jarduera-sektoreen zuzeneko enplegua ia 19.000 izanik, enpleguan euskarak Gipuzkoako enplegu guztiaren %6,08 ordezkatzen du (zuzeneko enplegua bakarrik kontuan hartuta). Enplegu zuzenaren %81,2 Hezkuntza sektoreari dagokio, kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuek sortzen dute enpleguaren %6,3, informazio eta komunikazio jarduerek %5,5 eta eragin txikiagoa du herri administrazioan (%3,9), jarduera profesionaletan (%2,2) eta merkataritzan (%0,8).

22 mila milioi euro ingurukoa da Gipuzkoako ekonomiaren urteko Balio Erantsi Gordina; euskararen ekonomiarena ia 850 miloi eurokoa izanik, euskarak Gipuzkoako Balio Erantsi Gordinarekiko duen pisua %3,9 da (zuzeneko eragina bakarrik kontuan hartuta).

Euskarak Gipuzkoan duen eragin ekonomiko zuzena, EAEn duena baino zertxobait altuagoa da; izan ere, EAEko enplegu guztiarekiko euskarak sortutakoa %4,6 da eta Balio Erantsi Gordinarekiko %3,4 (ia 43 mila lanpostu eta 2,2 mila milioi euro).

## Zeharkako eragina eta eragin induzitua

Euskara-sektoreek zuzenean sortutako enplegua eta Balio Erantsi Gordinaren datuetatik abiatuta, eta Eustaten EAEko Input-Output tauletako koefiziente teknikoak eta Leontieff koefizienteak aplikatuta, euskararen zeharkako eragina eta eragin induzituaren datu ekonomikoak kalkulatu dira.

Euskara-sektoreen jarduera ekonomikoek beste sektoreetan, zeharka, Gipuzkoan 1.659 lanpostu sortzen dituztela estimatu da. Horrez gain, euskararen zuzeneko enpleguari (18.909) eta zeharkakoari (1.659) dagozkion errentetatik sortutako kontsumo eta eskariak eragindako efektu ekonomiko induzituak, EAEko ekonomia produktiboan beste 4.280 enplegu ere sortzen ditu (eragin induzituaren enplegua).

Balio Erantsi Gordinean berriz, euskara-sektoreek transakzio ekonomikoak egiten dituzten beste jarduera-sektoreen Balio Erantsi Gordinetik urtean 106 milioi euro dira euskarari dagozkionak (zeharkako eragina); eragin induzituaren BEG ia 300 milioi euro izango litzateke.

## Euskararen ekarpena euskal ekonomian

Gipuzkoan euskara-sektoreek duten eragin zuzena, zeharkakoa eta induzituaren azken emaitza makroekonomikoak honakoak dira:

> ENPLEGUA: Gipuzkoako ekonomiako enplegu osoaren %7,99 euskara-sektoreek sortua da; Gipuzkoako enplegu osoa 310.900 da eta euskararena, enplegu zuzena, zeharkakoa eta induzitua ere kontuan hartuta, 24.848. Kopuru horretatik ia 19 mila lanpostu, euskararen jarduerek zuzenean sortutakoak dira, 1.650 zeharkako eraginari dagozkionak eta beste 4.280 eragin induzituarenak. EAEn euskara sektoreek eragindako enplegua, orotara, zertxobait baxuagoa da, %5,99.

> BALIO ERANTSI GORDINA: Gipuzkoako ekonomiaren Balio Erantsi Gordinaren %5,68 euskararekin lotura duten jarduera-ekonomikoei lotua dago; 22 mila miloi eurokoa da Gipuzkoako BEG guztira eta euskara-sektoreena berriz, 1,251 mila miloi eurokoa. EAEko ekonomiaren Balio Erantsi Gordinean, euskara sektoreek duten pisua %4,97 da.

> BARNE PRODUKTU GORDINA: Gipuzkoako Barne Produktu Gordinaren %5,34 euskararekin zuzenean eta zeharka loturaren bat duten sektore ekonomikoei dagokie. 24,4 mila milioi Gipuzkoako BPG guztira, eta euskarari dagokiona 1,304 mila miloi euro. EAEko Barne Produktu Gordinarekiko, aldiz, %4,59ko pisua du.

Aurreko aldagai makroekonomikoak ikusita, ondoriozta daiteke euskarak zuzenean eta zeharka sortzen duen ekonomiaren datuak esanguratsuak direla eta euskararen balioa termino ekonomikoetan ere handia dela. Administrazioari lotuak dauden enplegu eta baliabideez aparte, euskararen inguruan lan egiten duten sektore-ekonomikoek enplegu asko eta balio erantsia handia sortzen dute.

# 1

# Sektorearen mugaketa



## 1.1 Kontuan hartu beharreko jarduera-eremuak

Komunikaziorako ezinbesteko bitartekoa da hizkuntza, eta pertsona, enpresa eta erakundeen arteko harreman guztietarako erabiltzen da. Baita edozein jarduera ekonomikotan ere, ekoizpen, promozio, zabalpen eta komertzializazio prozesu guztietan. Alabaina, hori ez da ikerketa honen ikuspuntua. Euskararen balioa termino ekonomikoetan kuantifikatu nahi izan da oraingoan, sektore produktibo gisa, Gipuzkoako ekonomian egiten duen ekarpena ezagutzeko.

Edonola ere, azterketa ekonomiko batean kontuan hartu beharreko zenbait berezitasun ditu euskarak, nazioarteko hizkuntza indartsuekin alderatuta: euskararen normalizazioan herri administrazioek bideratutako baliabideak, euskarari lotutako produktuen merkatu gero eta zabalagoa (komunikabideen arloa, kultur produkzioa etab.) eta irakaskuntza sistema euskalduntzeko azken hamarkadetan egindako ahalegin handia. Ondorioz, ezin daiteke hizkuntzen industriara (hizkuntza bera produktu duten sektoreetara) mugatutako azterlana izan. Euskarazko kulturaren eta hedabideen arloko sektoreak, hezkuntza sistema bera eta administrazio publikoaren euskara arloko enplegua eta kultura arlokoaren zati bat ere kontuan hartu behar dira euskararen dimentsio ekonomikoa kuantifikatzerakoan.

Horiek horrela, bi irizpide erabili dira aztergai izango diren jarduera-eremuak zehazteko, alegia, jarduera jakin bat euskara-sektore gisa kontsidera daitekeen erabakitzeko. Alde batetik, hizkuntzari hertsiki lotua dagoen produktua edo zerbitzua izatea; bestetik, hizkuntza bera jarduera edo produktuaren ezinbesteko edo berezko bitartekoa izanda, hizkuntza hori euskara izatea. Horrenbestez, euskararen beraren sustapenari eta erabilerari lotutako zerbitzu eta jarduerez aparte, kulturaren industria eta hezkuntza arloa ere sartu dira azterketa-eremuan.

Zehatzago, lau jarduera-adar kontuan hartu dira: horietatik bi, ekonomia pribatukoak (hizkuntzen industria eta euskal kultura eta hedabideen industria), administrazio publikoari lotutakoa beste bat eta laugarrena, izaera mistoa edukiko duena, erakunde publikoak eta pribatuak bilduko dituena (hezkuntza eta unibertsitatea).

## I
### Hizkuntzaren industria

Euskararen irakaskuntza, itzulpengintza eta interpretazioa, eduki linguistikoen lanketa eta hizkuntza teknologien arloko jarduera-sektoreak biltzen ditu lehen sektore honek. Jarduera horietan guztietan hizkuntza bera da jardueraren xedea; euskara landu, irakatsi, erabili edota zabaltzera bideratutako produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa, elkarte eta erakundeak dira.

## II
### Kultura eta hedabideen industria

Euskara berezkoa duten edota euskara ezinbesteko bitarteko duten kultur sektoreak; euskarazko liburuen eta musikagintzaren industria, euskarazko ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, bertsolaritza, euskarazko hedabideak, euskara elkarteak eta komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako eragileak. Kasu honetan hizkuntza bera ez da jardueraren xede, lehen sektoreko jardueretan bezala, baina bai ezinbesteko elementu.

## III
### Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak

Euskararen ezagutzaren eta transmisioaren oinarrizko zutabea da hezkuntza sistema. Ikasmaila eta ikasketa-adarren arabera, aldakorra da hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerek euskararekin duten lotura maila; aldagai horiek eta beste batzuk ere kontuan hartuta, hezkuntza arautuan eta unibertsitateen jardueran euskarari dagokion pisua zein den estimatzeko kalkuluak egin dira.

## IV
### Administrazio publikoa

Aurreko hiru hizkuntza-sektoreetan eta bereziki euskarari lotuta dagoen industrian, pisu handia du administrazio publikoak. Gipuzkoako herri administrazioek euskararen sustapenerako dituzten egituretako enplegua biltzen du laugarren sektore honek; horrez gain, baita administrazio publikoko kultura arloetako enplegatu publikoen zati bat ere, kulturarako herri administrazioek egiten duten lanetik euskarazko kulturak duen pisuaren arabera kalkulatuta.

Guztira, lau sektore orokor eta 20 azpi-sektore dira aztergai den eremua osatu dutenak, ondorengo eskeman azaldutakoak:

**SEKTOREAK**

| I | II | III | IV |
|---|---|---|---|
| Hizkuntzaren industria | Kultura eta hedabideen industria | Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak | Administrazio publikoa |

**AZPI-SEKTOREAK**

| I | II | III | IV |
|---|---|---|---|
| I.1. Euskararen irakaskuntza | II.1. Liburugintza | III.1. Haur eta Lehen Hezkuntza | IV.1. Herri administrazioetako euskara arloko baliabideak |
| I.2. Itzulpengintza | II.2. Musika | III.2. Bigarren Hezkuntza | IV.2. Herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako baliabideak |
| I.3. Eduki linguistikoen lanketa | II.3. Kultur sortzaile autonomoak | III.3. Unibertsitateko Hezkuntza | |
| I.4. Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | II.4. Ikus-entzunezkoen industria | III.4. Bestelako hezkuntza jarduerak | |
| | II.5. Arte eszenikoak | | |
| | II.6. Bertsolaritza | | |
| | II.7. Hedabideak | | |
| | II.8. Euskara elkarteak | | |
| | II.9. Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak | | |

Euskara-sektoreen datu ekonomikoak eskuratzeko eta dimentsio ekonomikoa kalkulatzeko lanak ondorengo zailtasun nagusiak ditu:

1 Hizkuntzari loturiko produktu eta jarduera-adarren mugaketa eta sailkapen estandarizaturik ez dago; lan-eremuaren zehaztapena oso etereoa da, sektore ekonomikoen eta hizkuntzaren arteko lotura mailak interpretazio guztiz diferenteak izan baititzake.

2 Produktu eta zerbitzuen hizkuntzarekiko lotura-maila ere aldakorra da; produktu baten ekoizpenean hizkuntza izan daiteke ezinbesteko baliabidea (liburu bat idazterakoan esate baterako), beste produktu batzuetan aldiz, hizkuntzarekin lotura bat izan arren, termino ekonomikoetan hizkuntzak duen garrantzia baxuagoa izan daiteke (musikaren industrian adibidez).

3 Hizkuntzarekin lotura duten jarduera ekonomiko eta produktuen errealitate ekonomikoa jasotzera hurbiltzen den estatistika eragiketa ofizialik ez dago; egoera horren aurrean, informazio-iturri ezberdinetara jo eta ikerlan honetarako berariazko landa-lan bat egin behar izan da.

4 Hizkuntzari loturiko jarduera ekonomikoetan euskarak beste hizkuntzekiko duen pisua ere haztatu behar izan da, eta horretarako, euskarari dagokion koefizientea kalkulatzera iritsi.

# 2

# Euskara sektoreetako enplegua



Aurrez azaldutako metodologiarekin kalkulatutako datuen emaitzak biltzen dituzte ondoko taulek. Azpi-sektore edo jarduera-adarraren arabera, informazio iturri ezberdinetara jo da eta euskarari dagokion enplegua estimatzeko prozeduran ere, badaude aldeak sektore batetik bestera. Jarduera-adar bakoitzerako, ahalik eta informazio gehien eskuratu eta informazio horretatik abiatuta, euskararen enplegua estimatzera iristeko irizpideak ezarri dira; sektorearen ezaugarri eta lortutako informazioaren arabera, irizpideak eta kalkulurako prozedura egokitu egin dira, azpi-sektore eta jarduera-adar bakoitzean.

## 2.1 Jarduera-adar bakoitzari aplikatu beharreko euskara-koefizientearen kalkulurako prozedura

Ikerketa honetan aztertutako hogei azpi-sektoreetako batzuetako jarduera ekonomikoaren %100 dago euskarari lotua (Euskaltegiak, bertsolaritza, euskara sustatzera bideratutako baliabideak etab.). Beste azpi-sektore batzuetan, aldiz, jardueraren parte bat da soilik euskarari lotutakoa (itzulpengintza, liburugintza, musikaren industria, hezkuntza, eta abar.).

Jarduera ekonomikoa bere osotasunean euskarari bakarrik lotzeko aukerarik ez dagoen kasuetan, euskarari inputatu beharreko zatia kalkulatu behar izan da. Horretarako, batetik, zeharkako informazio iturrietako datuak erabili dira, jarduera-sektorean euskarak duen presentzia-mailaren araberako estimazioak eginez. Beste kasu batzuetan, zuzeneko informazioa jasotzeko landa-lanak egin dira Siadecotik. Landa-lan horietan, elkarte, enpresa nahiz erakunde bakoitzaren guztirako enplegutik, euskarari dagokiona estimatzeko datuak eskatu dira.

## 2.2 Hizkuntzaren industria

Hizkuntzaren industriaren barnean ondoko 5 azpi-sektoreak bildu dira:

| | |
|---|---|
| I.1. Euskararen irakaskuntza (hezkuntza sistemaz kanpokoa) | Euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak eta hizkuntza akademiak |
| I.2. Itzulpen eta interpretazio lanak | Enpresa eta langile autonomoenak |
| I.3. Eduki linguistikoen lanketa | Euskara planen diseinu eta inplementaziorako aholkularitza zerbitzuak<br>Hizkuntzaren arauketa, hiztegigintza, lexikoa eta terminologiaren alorra |
| I.4. Hizkuntza teknologiak | Hiztegi elektronikoak, hizkuntza prozesadoreak, hizkuntza zuzentzaileak, itzulpen lanetarako softwareak, euskara ikasteko nahiz erabiltzeko aplikazioak, web teknologiak, eta abar |

773 ingurukoa da euskara enplegua Gipuzkoako Hizkuntzen Industrian. %45 irakaskuntzako azpi-sektoreari dagokio, eta herena itzulpengintza eta interpretazioari. Eduki linguistikoen lanketari dagokio enpleguaren %17, EAEn baino nabarmen gehiago (%10,3). Hizkuntza teknologien garapeneko eta zabalpeneko sektorean ere badago aldea (%4 Gipuzkoan eta %1,6 EAEn).

Hizkuntzen irakaskuntzan, aldiz, kontrakoa gertatzen da: EAEko euskarazko enpleguan nabarmen handiagoa da hizkuntzen irakaskuntzaren pisua. Alde horretatik, kontuan hartu beharra dago egoitza sozialaren arabera kokatu direla sektoreko enpresak, ondorioz, AEKk 376 enplegu dituela Bizkaian, eta euskaltegi handienak ere, Bizkaian kokatuta daudela (Barakaldo eta Basauriko Udal euskaltegiak, Bilbo Zaharra euskaltegia...). Unibertsitate-ikasketak ere sartuta daude, eta hizkuntzekin lotutako gradu gehienak ez daude Gipuzkoako kanpusetan kokatuta.

1. Taula. Euskara enplegua Gipuzkoako Hizkuntzen Industrian

| | Enplegua guztira | Hizkuntza enplegua | | Euskara enplegua | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Kop | Kop | % | Kop | % |
| Hizkuntzen irakaskuntza | 1.139 | 1.129 | 63,6 | 348 | 45,1 |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | 382 | 353 | 19,9 | 260 | 33,6 |
| Eduki linguistikoen lanketa | 176 | 142 | 8,0 | 134 | 17,3 |
| Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | 287 | 150 | 8,5 | 31 | 4,0 |
| Guztira | 1.984 | 1.774 | 100,0 | 773 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

2. Taula. Euskara enplegua EAEko Hizkuntzen Industrian

| | Enplegua guztira | Hizkuntza enplegua | | Euskara enplegua | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Kop | Kop | % | Kop | % |
| Hizkuntzen irakaskuntza | 3.424 | 3.399 | 73,8 | 1.367 | 67,3 |
| Itzulpengintza eta interpretazioa | 901 | 826 | 17,9 | 421 | 20,7 |
| Eduki linguistikoen lanketa | 255 | 218 | 4,7 | 210 | 10,3 |
| Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | 298 | 161 | 3,5 | 33 | 1,6 |
| Guztira | 4.878 | 4.604 | 100,0 | 2.030 | 100,0 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

1. Grafikoa. Hizkuntzen industriako euskara-enplegua, azpi-sektoreen arabera




*Iturria: Siadecok landutako datuak, 2019*

## 2.3 Kultura eta hedabideen industria

Kultura eta hedabideen industriaren barruan, ondorengo 9 azpi-sektoreak bildu dira:

| | |
|---|---|
| II.1. Liburuaren industria | Argitaletxeak eta liburu-dendak |
| II.2. Musika | Diskoaren industria (diskoetxeak eta saltokiak) eta musika programatzaileak (emanaldien programatzaileak eta musika aretoak) |
| II.3. Kultur sortzaile autonomoak | Idazleak, musikariak eta artearen eta kulturaren alorreko bestelako ekoizle autonomoak |
| II.4. Ikus-entzunezkoen industria | Zinema, dokumental, publizitate edo telebista saioen ekoizleak, irrati saioen ekoizleak, eta bestelako ekoizleak batetik eta zinema aretoak bestetik |
| II.5. Arte eszenikoak | Antzerki eta dantza ekoizleak eta programatzaileak |
| II.6. Bertsolaritza | Bertsolaritzaren arloko elkarte eta erakundeak |
| II.7. Hedabideak | Egunkariak, aldizkariak, irratiak eta irrati-zerbitzu emaileak, telebistak eta telebista-zerbitzu emaileak, internet eta berri-agentziak |
| II.8. Euskara elkarteak | |
| II.9. Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak | Kultura, aisialdi eta gizarte gaietako bestelako elkarte eta enpresak; komunikazio eta publizitate zerbitzuen enpresak; internet zerbitzuak; eta dokumentazio zentroak eta unibertsitatearekin loturarik ez duten bestelako ikerketa zentroak |

3. Taula. Kultura eta hedabideen industriako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Sektore mailakoak | | Biztanleria landunarekiko euskararen enpleguak duen pisua (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) | EAE (Biztanleria landuna 2018ko azken hiruhilekoan, 937.400) | GIPUZKOA (Biztanleria landuna 2018ko azken hiruhilekoan, 310.900) |
| 13.253 | 4.347 | 37 | 48 | 4.315 | 2.373 | 37 | 46 | 0,524 | 0,763 |

*Iturria: Siadeco, 2019*

### 2.3.1 Liburuaren industria: argitaletxeak eta liburu-dendak

#### Argitaletxeak

Argitaletxeen azpi-sektorekoak diren 85 establezimendu daude Gipuzkoan, Eustat-en Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda direktorioko eta Euskal Editoreen Elkarteko eta Euskadiko Editoreen Elkarteko datuen arabera. Guztira 209 enplegu estimatzen dira Gipuzkoarako, orokorrean.

%41,1eko euskara-koefizientea aplikatu da, ondorengo irizpidea kontuan hartuta: argitaratutako euskarazko aleen pisua, argitaratutako ale guztiekiko (nobedade+fondo) ehunekoa, establezimendu bakoitzaren enpleguari aplikatu zaio. Arte eta Kultur Industrien Estatistika (Kulturaren Euskal Behatokia, 2015) baliatu da horretarako, eta estatistika horretan sartu ez ziren establezimenduei, sartu zirenen batez besteko ehunekoa aplikatu zaie (%33,28). Koefizientea aplikatuta, 86 enplegu inputatu zaizkio euskarari.

Sektoreko EAEko enpleguarekiko, Gipuzkoakoaren pisua %36koa da. Euskarari inputatutako enpleguak kontuan hartuta, aldiz, altuagoa da Gipuzkoako enpleguaren pisua: %42,2.

4. Taula. Argitaletxeetako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 218 | 85 | 581 | 209 | 35,1 | 41,1 | 204 | 86 | 36,0 | 42,2 |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2016); Euskal Editoreen Elkartea; Euskadiko Editoreen Elkartea; Arte eta Kultur Industrien Estatistika (KEB, 2015).*

## Liburu-dendak

Liburuen salerosketarako txikizkako 154 establezimendu espezializatu eta 270 enplegu daude Gipuzkoan, Eustat-en JEGID direktorioan erregistratutakoaren arabera. %22ko koefizientea aplikatu da azpi-sektorean, liburu-denda eta liburu-denda kateetan euskarazko salmenta bidezko fakturazioak salmenta bidezko fakturazio osoarekiko duen pisua kontuan hartuta (Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Argitalpenei buruzko XXIII. Txostena — Euskadiko Editoreen Elkartea). Irizpide horren arabera, 59 dira euskarari inputatutako enpleguak.

5. Taula. Liburu-dendetako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguare-kiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 415 | 154 | 774 | 270 | 16,9 | 22,0 | 131 | 59 | 34,9 | 45,4 |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2016); Euskal Autonomia Erkidegoko Argitalpenei buruzko XXIII. Txostena (Euskadiko Editoreen Elkartea, 2017).*

### 2.3.2 Musikaren industria: diskoetxeak, disko-saltokiak, musika sustatzaileak eta programatzaileak

#### Diskoetxeak

Guztira 14 establezimendu dira Gipuzkoan, kontsultatutako informazio-iturrien arabera (JEGID 2016; Euskal Editoreen Elkartea; Arte eta Kultur Industrien Estatistika 2015). Establezimendu horietako enplegua guztira 22 lagunekoa da.

Euskara-koefizienteari dagokionez (%59,1), argitaletxeen kasukoaren pareko irizpidea jarraitu da: argitaratutako euskarazko aleen pisua, argitaratutako ale guztiekiko (nobedade+fondo) ehunekoa, establezimendu bakoitzaren enpleguari aplikatu zaio. Arte eta Kultur Industrien estatistikan sartu ez ziren establezimenduei, sartu zirenen bataz besteko % aplikatu zaie (%56,2). Horiek horrela, 13 enplegu inputatu zaizkio euskarari.

Enpleguaren ratioei erreparatuta, EAEkoarekiko Gipuzkoakoak duen pisua puntu bat baxuagoa da euskararen enplegua kontuan hartuta, enplegu orokorrari erreparatuta baino (%44,8 eta %45,8).

6. Taula. Diskoetxeetako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 31 | 14 | 48 | 22 | 60,4 | 59,1 | 29 | 13 | 45,8 | 44,8 |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2016); Euskal Editoreen Elkartea; Arte eta Kultur Industrien Estatistika (KEB, 2015).*

## Disko-saltokiak

13 establezimendu dira, Gipuzkoan, diskoen salmentan espezializatuak, eta 13 enplegu sortzen dituzte, guztira (Iturriak: JEGID 2016; Euskal Editoreen Elkartea; Arte eta Kultur Industrien Estatistika 2015). Disko-saltokien kasuan, establezimenduetako zuzeneko datuak eskuratzeko ahaleginak egin diren arren, ezinezkoa izan da euskara-enpleguaren pisuari buruzko datu esanguratsuak lortzea. Informazio hutsune honen aurrean, disko-saltokiei, liburu-denden EAEko euskara-koefizientea aplikatu zaie (%22,0). Hortaz, 3 laguneko euskara-enplegua estimatu da.

7. Taula. Disko-saltokietako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 37 | 13 | 48 | 13 | 16,9 | 22,0 | 8 | 3 | 27,1 | 35,3 |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2016); Euskal Editoreen Elkartea; Arte eta Kultur Industrien Estatistika (KEB, 2015)*

## Musika sustatzaile eta programatzaileak

Musika sustatzaile eta programatzaileen azpi-sektoreko 6 establezimendu daude Gipuzkoan eta 21 enplegu sortzen dituzte guztira, Arte eta Kultur Industrien Estatistikako 2015eko datuen arabera.

%49,9ko euskara-koefizientea aplikatu da jarduera-adar honetan, Siadecotik egindako zuzeneko informazio bilketan oinarrituta. Koefiziente hori aplikatuz, 10 enplegu inputatu zaizkio euskarari. Azpi-sektore honetan Gipuzkoako enpleguak EAEkoarekiko duen pisua nabarmen altuagoa da euskararen enplegua kontuan hartuz gero: %17,6 orokorrean, eta %45,5 euskararen enpleguetan.

8. Taula. Musika sustatzaile eta programatzaileen euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 20 | 6 | 119 | 21 | 18,5 | 49,9 | 22 | 10 | 17,6 | 45,5 |

*Iturria: Arte eta Kultur Industrien Estatistika (KEB, 2015); Siadeco 2019*

### 2.3.3 Kultur sortzaileak: idazleak, musikariak eta artearen eta kulturaren alorreko bestelako ekoizleak

Idazleen, musikarien eta kulturaren arloko bestelako sortzaileen azpi-sektorean, 474 establezimendu daude Gipuzkoan, 502 enplegu inguru sortzen dituztenak, Arte eta Kultur Industrien 2015eko estatistikaren arabera.

Euskara-enplegua estimatzera iristeko, eta beraz, zein euskara-koefiziente aplikatu erabakitzeko, inkesta bat egin da, alde batetik. Erantzun dutenei haiek zehaztutako koefizientea aplikatu zaie. Gainerakoekin ondorengo irizpideak jarraitu dira: zinema eta bideo ekoizleei ikus-entzunezkoetarako kalkulatutako koefizienteak aplikatu zaizkie (%46,3); arte eszenikoetako sortzaileei antzerki-konpainien koefizienteak (%62,8); eta literatura sortzaileei argitaletxeen koefizienteak (%41,1). Batez besteko euskara-koefizientea %51,3koa da eta 258 enplegu inputatu zaizkio euskarari.

Enpleguaren ratioei dagokienez, Gipuzkoak EAEkoarekiko duen pisua altuagoa da euskararen enpleguan (%41,4) enplegu orokorrean baino (%38,4).

9. Taula. Kultur sortzaileen azpi-sektoreko euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 1238 | 474 | 1307 | 502 | 47,6 | 51,3 | 623 | 258 | 38,4 | 41,4 |

*Iturria: Arte eta Kultur Industrien Estatistika (KEB, 2015); Siadeco 2019*

### 2.3.4 Ikus-entzunezkoen industria

#### Ikus-entzunezkoen ekoizleak

Zinema, dokumental, publizitate, telebista saio, irrati saio eta bestelako ekoizleen azpi-sektoreko 107 establezimendu daude Gipuzkoan, eta 393 enplegu (Iturria: JEGID 2016; Arte eta Kultur Industrien Estatistika 2015). Euskara-koefizientea (%46,3) aplikatzeko ondorengo irizpidea erabili da, Arte eta Kultur Industrien Estatistikako datuetan oinarrituta: egindako produkzio kopuruak euskaraz eta euskaraz+gaztelaniaz, produkzio guztiarekiko duen pisua. Koefizientea aplikatuta, 182 dira euskarari inputatutako enpleguak.

Enpleguaren ratioei erreparatuta, EAEkoarekiko Gipuzkoakoak duen pisua baxuagoa da euskararen enplegua kontuan hartuta, enplegu orokorrari erreparatuta baino (%49,1 euskararen enplegua kontuan hartuta, %51,2 orokorrean).

10. Taula. Ikus-entzunezkoen ekoizleen azpi-sektoreko euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 269 | 107 | 767 | 393 | 51,2 | 46,3 | 371 | 182 | 51,2 | 49,1 |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2016); Arte eta Kultur Industrien Estatistika (KEB, 2015).*

## Zinema-aretoak

Zinema-aretoei dagokienez, 23 dira Gipuzkoan erregistratutakoak, JEGID direktorioaren arabera, eta 128 enplegu sortzen dituzte. %3ko euskara-koefizientea aplikatu zaio azpi-sektoreari, euskarazko saioek saio kopuru guztiekiko duten pisua kontuan hartuta (Iturria: EAEko zinema areto publiko nahiz pribatuei buruzko ikerketa, KEB 2010). Horrenbestez, 4 laguneko enplegua estimatu zaio euskarari.

Enpleguaren ratioak aztertuta, euskararen enpleguak kontuan hartuta altuagoa da Gipuzkoako enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%40), enplegu orokorrari erreparatuta baino (%37,3).

11. Taula. Zinema-aretoetako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 49 | 23 | 343 | 128 | 3,04 | 3,04 | 10 | 4 | 37,3 | 40,0 |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2016); EAEko zinema areto publiko nahiz pribatuei buruzko Ikerketa (KEB, 2010)*

### 2.3.5 Arte eszenikoak

#### Antzerki konpainiak

Jarduera nagusia antzerki eta dantza ekoizpena duten 30 establezimendu daude Gipuzkoan, eta 86 dira azpi-sektoreko enpleguak guztira, Arte eta Kultur Industrien 2015eko Estatistikaren arabera.

%62,8ko euskara-koefizientea aplikatu da, ekoizpen guztiekiko euskarazko eta ele bietako antzerki ekoizpenen pisua kontuan hartuta (Iturria: Arte eta Kultur Industrien Estatistika, 2015). Irizpide horren arabera, 54 dira euskarari inputatutako enpleguak.

Enpleguaren ratioetan, Gipuzkoako enpleguak EAEkoarekiko duen pisua altuagoa da euskararen enpleguak kontuan hartuta (%45,5), enplegu orokorrean baino (%41,1).

12. Taula. Antzerki konpainietako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 77 | 30 | 209 | 86 | 56,94 | 62,79 | 119 | 54 | 41,1 | 45,4 |

*Iturria: Arte eta Kultur Industrien Estatistika (KEB, 2015).*

## Antzerki eta dantza programatzaileak

Antzerki eta dantza programatzaileen azpi-sektoreari dagokionez, 12 establezimendu daude Gipuzkoan, Eustat-en Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren arabera, 77 enplegurekin. Euskara-koefizientea aplikatzeko, Arte eta Kultur Industrien 2015eko datuetan oinarrituta, antzerki programatzaileek euskaraz programatutako ikuskizunen pisua kalkulatu da, ikuskizun guztiekiko (%72,7). Koefizientea aplikatuta, 56 enplegu inputatu zaizkio euskarari.

Sektore honetan nabarmentzekoa da euskararen enplegua kontuan hartuta Gipuzkoakoak EAEkoarekiko duen pisua %45,4koa dela, enplegu orokorrean %32,6koa denean.

13. Taula. Antzerki eta dantza programatzaileen azpi-sektoreko euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 33 | 12 | 236 | 77 | 41,4 | 72,7 | 122 | 56 | 32,6 | 45,9 |

*Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (Eustat, 2016); Arte eta Kultur Industrien Estatistika (KEB, 2015).*

### 2.3.6 Bertsolaritza

Euskarak EAEn duen eragin eta balio ekonomikoa kalkulatzeko Eusko Jaurlaritzak 2015ean egindako azterlanean, bertso eskoletako jarduera kontuan hartu gabe, bertsolaritzari loturiko 80 enplegu inguru jasotzen ziren. Kopuru horretan biltzen dira, EAEn egoitza duten hiru lurraldeetako bertsozale elkarteak, Euskal Herrikoa, Lanku Bertso Zerbitzua, Mintzola Fundazioa eta bertsolaritzari loturiko beste zenbait kooperatibatako langileak ere.

Horrez gain, Bertsozale Elkartearen bertsolaritzako datu basean kontsultatuta, badakigu Euskal Herrian guztira 130 bertso eskola daudela, 98 EAEn eta 55 Gipuzkoan. Bestalde Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiaren EAEko herri erakundeen Finantzaketa eta Kulturako gastu publikoaren estatistikako 2016ko datuen arabera, EAEko herri erakundeek bertsolaritzara bideratutako aurrekontua 1.082.828 euro izanik, Gipuzkoako herri erakundeena 465.650 eurokoa da.

Bertsolaritza jarduerari berari loturiko enpleguaz gain, bertsolaritzaren arloko elkarte, zerbitzu enpresa eta bertso eskolen erreferentziazko enplegua 150 inguruan estimatzen da EAE osorako. Gipuzkoan egoitza duten elkarte, enpresa eta bertso eskolen zenbatekoa kontuan hartuta, bertsolaritza sektoreak Gipuzkoan sortutako enpleguaren datua 105 inguru izan daitekeela estimatu da.

### 2.3.7 Hedabideak

## Euskarazko hedabideak

Euskarazko hedabideen kostu estandarrak kalkulatzeko 2018an Siadecok Eusko Jaurlaritzarentzat egindako ikerlaneko datuetan oinarrituta, euskarazko hedabideen finantzaketarako Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen deialdira aurkezten diren Euskal Herriko hedabide guztien ekoizpen eta egiturazko funtzionamendu gastuen urteko aurrekontua 20,2 milioi ingurukoa da, eta Gipuzkoan egoitza dutenena, 15,6 milioikoa.

Hedabide multzo bakoitzaren gastuak zenbatekoak diren kalkulatu da hurrengo taulan, baita hedabide mota bakoitzean, langileko batez besteko pertsonal gastua zenbatekoa den ere. Aurreko datu horiek erabiliz, hedabide multzo bakoitzari dagokion Euskal Herri mailako enplegua eta Gipuzkoakoa kalkulatu da. Zehazki, euskarazko hedabideetako Euskal Herri mailako enplegua 726koa izanik, Gipuzkoan egoitza dutenena, 566koa da; horrela euskarazko hedabideen sektorean, Gipuzkoan sortutako enplegua, Euskal Herri osoan sortutakoaren %78 izatera iristen da.

14. Taula. Euskarazko hedabideen azpi-sektoreko erreferentziako enplegua

| Hedabide mota | Ekoizpen eta egiturazko funtzionamendu gastuak (2018) | | Batez besteko pertsonal gastuak enplegu bakoitzeko (2018) | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Sektorearen Gipuzkoako euskararen enpleguak Euskal Herriarekiko duen pisua (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskal Herria | Gipuzkoa | | Euskal Herria | Gipuzkoa | |
| Tokiko aldizkariak | 4.896.969,78 | 3.333.737,20 | 26.600,00 | 184 | 125 | 68,1 |
| Tokiko egunkariak | 2.183.500,08 | 1.608.192,76 | 28.891,00 | 76 | 56 | 73,7 |
| Egunkari orokorra | 4.928.913,98 | 4.928.913,98 | 26.734,00 | 184 | 184 | 100,0 |
| Aldizkari espezializatuak | 1.607.416,90 | 1.036.728,31 | 27.791,00 | 58 | 37 | 64,5 |
| Aldizkari orokorrak | 1.187.478,50 | 1.187.478,50 | 28.904,00 | 41 | 41 | 100,0 |
| Irratiak | 1.272.913,60 | 402.652,47 | 34.785,00 | 37 | 12 | 31,6 |
| Telebistak | 3.317.842,52 | 2.466.827,18 | 28.089,00 | 118 | 88 | 74,4 |
| Internet atari orokorrak | 780.156,09 | 635.346,11 | 27.492,00 | 28 | 23 | 81,4 |
| GUZTIRA | 20.175.191,45 | 15.599.876,51 | 28.660,75 | 726 | 566 | 78,0 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritza- HPS, 2018. Siadecok landua*

## Gainerako egunkariak (euskara hutsean argitaratzen ez direnak)

Euskara hutsean argitaratzen ez diren egunkariak kontuan hartuta, 9 establezimendu eta 58 enplegu daude Gipuzkoan, Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoaren (Eusko Jaurlaritza — Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2015) ikerketaren arabera. Euskara-koefizientea kalkulatu da, 2015eko ikerlanean Gipuzkoako establezimenduek zuten euskara koefizientea, ikerketa honetarako propio egindako landa-lanean kalkulatutakoarekin osatuz; eta %25ean finkatu. Hortaz, 58 dira euskarari inputatutako enpleguak

Euskarari lotutako enplegua kontuan hartuta, Gipuzkoakoak %70eko pisua dauka EAEkoarekiko. Enplegu orokorrari dagokionez, aldiz, %34,1ekoa da pisua.

15. Taula. Euskara hutsean argitaratzen ez diren egunkarien euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguare-kiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 24 | 9 | 677 | 231 | 12,1 | 25,0 | 82 | 58 | 34,1 | 70,4 |

*Iturria: Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015) eta Siadeco 2019*

## Gainerako irratiak eta irratirako zerbitzu emaileak

Euskara hutsez emititzen ez duten irratiek eta EITB taldekoek (euskarazkoak barne) osatzen dute azpi-sektorea. 17 establezimendu eta 286 enplegu daude Gipuzkoan, Euskararen Balio Ekonomikoari buruzko lanaren arabera. %38,6ko euskara-koefizientea aplikatuta. Euskara-koefizientea kalkulatu da, 2015eko ikerlanean Gipuzkoako establezimenduek zuten euskara-koefizientea, ikerketa honetarako propio egindako landa-lanean kalkulatutakoarekin osatuz.

Inkestatutako eragileen euskara-koefizientea, lurraldeko establezimenduetara aplikatu da. Abiapuntua 2015ko informazioa izan arren, 2019an egindako landa-laneko emaitzekin osatu da), 110 enplegu inputatu zaizkio euskarari.

16. Taula. Gainerako irratien eta irratirako zerbitzu emaileen euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 49 | 17 | 684 | 286 | 39,9 | 38,6 | 273 | 110 | 41,8 | 40,4 |

*Iturria: Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015) eta Siadeco 2019*

## Gainerako telebistak eta telebistarako zerbitzu emaileak

Euskara hutsez emititzen ez duten telebistek eta EITB taldekoek (euskarazkoak barne) osatzen dute azpi-sektorea. 4 establezimendu eta 233 enplegu daude Gipuzkoan, Euskararen Balio Ekonomikoari buruzko lanaren arabera. %35,7ko euskara-koefizientea aplikatuta. Euskara-koefizientea kalkulatu da, 2015eko ikerlanean Gipuzkoako establezimenduek zuten euskara-koefizientea, ikerketa honetarako propio egindako landa-lanean kalkulatutakoarekin osatuz; eta honela, 83 enplegu inputatu zaizkio euskarari.

Gipuzkoako enpleguak EAEkoarekiko duen pisua baxuagoa da euskararen enpleguan (%28,4), enplegu orokorrean (%33,5) baino.

17. Taula. Gainerako telebisten eta telebistarako zerbitzu emaileen euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 12 | 4 | 695 | 233 | 42,2 | 35,7 | 293 | 83 | 33,5 | 28,4 |

*Iturria: Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015) eta Siadeco 2019*

## Gainerako internet bidezko hedabideak

Establezimendu bakarra dago Gipuzkoan, euskarazko hedabideen multzoan ez dauden gainerako internet bidezko hedabideetan. Enplegu eta erdi sortzen du, eta %35,7ko euskara-koefizientea aplikatuta, enplegu bat inputatu zaio euskarari. Azpi-sektorean Gipuzkoako enpleguak EAEkoarekiko duen pisua oso txikia da: %2,7 orokorrean eta %2,4 euskararen enplegua kontuan hartuta.

18. Taula. Gainerako internet bidezko hedabideetako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 7 | 1 | 56,5 | 1,5 | 36,7 | 35,7 | 21 | 1 | 2,7 | 2,4 |

*Iturria: Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015) eta Siadeco 2019*

## Berri agentziak eta kazetari autonomoak

Berri agentziak eta kazetari autonomoak azpi-sektore batean sartuta, 11 establezimendu eta 22 enplegu daude Gipuzkoan. %13,8ko euskara-koefizientea aplikatu zaie eta 3 enplegu inputatu zaizkio euskarari.

19. Taula. Berri agentzien eta kazetari autonomoen azpi-sektoreko euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguare-kiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 73 | 11 | 151 | 22 | 10,6 | 13,8 | 16 | 3 | 14,6 | 18,8 |

*Iturria: Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015) eta Siadeco 2019*

### 2.3.8 Euskara elkarteak

Euskaltzaleen Topagunea elkarteak argitaratutako informazioaren arabera, elkarte horretako kide dira Euskal Herri osoko 91 euskara elkarte, horietatik 75 dira EAEkoak eta 32 Gipuzkoako herriren batekoak. Euskal Herriko euskara elkarteen %35 Gipuzkoakoa da eta EAEkoen %43.

Topaguneak berak egindako ikerketa bat oinarri hartuta, euskarazko hedabideetarako egindako lana albo batera lagata, euskara elkarte bezala euskalgintzarako egindako bestelako lanei dagokien EAE mailako enplegua 206an kokatzen da. Kopurutan Gipuzkoako euskara elkarteek EAEkoekiko duten pisuaren arabera, Gipuzkoako euskara elkarteen enplegua 88 pertsona ingurukoa izan daitekeela estimatu da.

### 2.3.9 Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako enpresa eta elkarteak

#### Kultura, aisialdi eta gizarte gaietako enpresa eta elkarteak

71 establezimendu eta 301 enplegu daude azpi-sektorean, Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoari buruzko laneko datuen arabera. %58,9ko euskara-koefizientea aplikatuta. Euskara-koefizientea kalkulatu da, 2015eko ikerlanean Gipuzkoako establezimenduek zuten euskara-koefizientea, ikerketa honetarako propio egindako landa-lanean kalkulatutakoarekin osatuz. 177 dira euskarari inputatutako enpleguak.

20. Taula. Kultura, aisialdi eta gizarte gaietako enpresa eta elkarteen azpi-sektoreko euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Engleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 210 | 71 | 1090 | 301 | 69,9 | 58,9 | 762 | 177 | 27,6 | 23,3 |

*Iturria: Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015) eta Siadeco 2019*

## Komunikazio eta publizitate zerbitzuak

Komunikazio eta publizitate zerbitzuetako enpresen azpi-sektoreko 413 establezimendu eta 1257 enplegu daude Gipuzkoan. %33,4ko euskara-koefizientea aplikatuta, 420 dira euskarari lotutako enpleguak. Horiek horrela, %66,7ko pisua du Gipuzkoako euskararen enpleguak, EAEko euskararen enpleguarekiko. Enplegu orokorra kontuan hartuta, %31,5ekoa da pisua.

21. Taula. Komunikazio eta publizitate zerbitzuetako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 1394 | 413 | 3995 | 1257 | 15,7 | 33,4 | 629 | 420 | 31,5 | 66,7 |

*Iturria: Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015) eta Siadeco 2019*

## Internet zerbitzuak

Internet zerbitzuen azpi-sektorean, 13 establezimendu eta 116 enplegu inguru daude Gipuzkoan. %27,5eko euskara-koefizientea aplikatu zaie eta 32 enplegu inputatu zaizkio euskarari.

22. Taula. Internet zerbitzuetako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 35 | 13 | 319 | 115,7 | 22 | 27,5 | 70 | 32 | 36,3 | 45,4 |

*Iturria: Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015) eta Siadeco 2019*

## Dokumentazio eta ikerketa zentroak

5 establezimendu eta 20 enplegu daude Gipuzkoan, dokumentazio eta ikerketa zentroen azpi-sektorean. %25eko euskara-koefizientea aplikatuta, 5 enplegu inputatu zaizkio euskarari. Gipuzkoako enpleguak %62,5eko pisua du EAErekiko, enplegu orokorra zein euskararen enplegua kontuan hartuta.

23. Taula. Dokumentazio eta ikerketa zentroetako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 10 | 5 | 32 | 20 | 25 | 25 | 8 | 5 | 62,5 | 62,5 |

*Iturria: Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015) eta Siadeco 2019*

2. Grafikoa. Kultura eta hedabideen industriako euskara-enplegua, azpi-sektoreen arabera




*Iturria: Siadecok landutako datuak, 2019*

## 2.4 Hezkuntza

Hezkuntzaren arloa da ikerketa honetarako kontuan hartu den hirugarren euskara-sektore garrantzitsua; zehatzago esanda, irakaskuntza-maila guztietan euskarazkoa den hezkuntzari dagozkion enpleguaren eta aldagai ekonomikoen datuak kalkulatu dira. Horretarako jarraitutako irizpide nagusia, hezkuntza etapa eta irakats eredu bakoitzean irakats ordu guztiekiko euskarazkoek duten pisua jakitea izan da, ondoren koefiziente hori, irakats eredu eta etapa bakoitzeko enpleguarekin biderkatu eta euskarari dagozkion enpleguaren datuak estimatzera iristeko.

Ondorengo taulak agerian uzten du irakaskuntzaren pisu handia, euskarari lotutako enpleguan. Izan ere, 14.974koa da erreferentziazko enplegua Gipuzkoan, biztanleria landunaren %4,8.

24. Taula. Hezkuntzako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Sektore mailakoak | | Biztanleria landunarekiko euskararen enpleguak duen pisua (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) | EAE (Biztanleria landuna 2018ko azken hiruhilekoan, 937.400) | GIPUZKOA (Biztanleria landuna 2018ko azken hiruhilekoan, 310.900) |
| 68.547 | 23.578 | 60 | 64 | 41.425 | 14.974 | 34,4 | 36,2 | 4,419 | 4,816 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila: Ikasturteko klase orduak; Eustat: Hezkuntza Estatistika 2017/2018; Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015).*

## Unibertsitate aurreko ikasmailak

Eustat-eko datuen arabera (2017-2018 ikasturtea), unibertsitate aurreko hezkuntza arautuko ikasmailetan 375.318 ikasle daude guztira EAEn eta 128.316 Gipuzkoan (%34,2); irakasle kopurua berriz, 36.023 da EAEkoa eta 12.367 Gipuzkoakoa (%34,3) Kopuru horietan unibertsitate aurreko etapa guztiak daude sartuta, hau da: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. Irakasle kopurua kalkulatzerakoan, etapa bakoitzeko ikasleak batu dira lehenbizi, eta ikasmaila ezberdinetan eskolak ematen dituzten irakasleak badirenez, etapa bakoitzari dagozkion koefiziente zuzentzaileak aplikatu dira, irakasleei dagokien guztirako enplegu erreala kalkulatzera iristeko.

Bestalde, pertsonal ez irakaslea ere gehitu behar da hezkuntzaren arloan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko datuen arabera, irakasleen kopuruari beste % 45,7 gehitu behar zaio enplegu osora iristeko; honela, unibertsitate aurreko hezkuntza arautuaren EAEko enplegua 52.479 ingurukoa da eta Gipuzkoakoa 18.017koa.

A, B edo D ereduaren arabera, euskara ikasgaiari eta euskaraz ematen diren ikasketa orduei dagozkien koefizienteak kalkulatu dira ikas-etapa bakoitzerako. A ereduan %14,4 eta %7,9aren artean kokatzen da euskara-koefiziente hori, hasierako mailetatik (HH) goikoetara (Batxilergoa eta LH); B ereduan %58,7 eta %53,3 artean eta D ereduan %85,6 eta %78 artean.

Azkenik, bai irakasleei bai pertsonal ez irakasleari dagokion enpleguari, hezkuntza eredu eta hezkuntza etapa bakoitzerako kalkulatutako euskara-koefizientea biderkatuz, unibertsitate arteko hezkuntza arautuko euskararen erreferentziazko enplegua zenbatekoa den estimatu da, honako kopuruetara iristeko: 38.399 euskara-enplegu EAEn eta 13.943 Gipuzkoan (%36,3)

25. Taula. Haur eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako erreferentziazko euskara-enplegua

| | EAE<br>Erreferentziazko euskara-enpleguaren estimazioa | Gipuzkoa<br>Erreferentziazko euskara-enpleguaren estimazioa |
|---|---|---|
| Irakasleak | 21.944 | 8.294 |
| Ez irakasleak | 16.456 | 5.650 |
| GUZTIRA | 38.399 | 13.943 |

*Iturria: Eustat 2019. Siadecok landutako datuak, 2019*

## Unibertsitate-ikasketak

Eustat-eko datuen arabera (2016/2017 ikasturtea) , EAEn graduko ikasketetan matrikulatutako ikasleak guztira 56.177 dira eta horietatik 17.543 Gipuzkoan (%31,2)

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako 2015eko Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa neurtzeko ikerlaneko datuak erabiliz, unibertsitate bakoitzak eskainitako gradu eta gradu ondokoetan euskarazko kredituek duten pisuaren arabera, unibertsitate bakoitzari dagokion euskara-koefizientea aplikatu da:

— EHU/UPV: graduetan euskarazko kredituak %48,81 dira batez beste (Gipuzkoan %52,4) eta gradu ondokoetan (%10,0)

— Mondragon Unibertsitatean, %54,6 graduetan eta %18,4 gradu ondokoetan.

— Deustuko Unibertsitatean, %38,0 graduetan eta % 6,4 gradu ondokoetan.

Unibertsitateetako irakasle, ikertzaile eta administrazio orokorreko pertsonalaren enplegua, 5.710 inguru da EHU/UPVn; horietatik hizkuntza arloko gradu eta gradu ondokoei dagozkienak 206, zuzenean hizkuntzaren industriarekin lotura dutenak eta ez euskarari bakarrik baizik eta hizkuntza guztiei dagozkienak; euskarari eta euskal ikasketei dagokien enplegua 85ekoa izan daitekeela estimatu da. Eta euskaraz ematen diren kredituek duten pisuaren araberako euskara-koefizientea aplikatuta, 2.473 izango litzateke euskarari dagokion erreferentziazko enplegua, hau da, euskaraz ematen diren ikasketa arlo guztiei dagokiena.

Estimazioak egiteko informazio-iturri berak eta irizpide berdinak jarraituz, Mondragon Unibertsitatean, 21 dira hizkuntzaren industriakoak kontsideratutako enpleguak eta horietatik 14 euskal hizkuntzari lotuak. Unibertsitate horrek euskaraz eskainitako kredituen arabera kalkulatutako euskararen erreferentziazko enplegua berriz, 227 lagunekoa da.

Deustuko Unibertsitateari dagozkion datu estimatuak hauek dira: hizkuntzaren industriako 100 enplegu eta horietatik euskararenak 29. Euskaraz emandako kredituek duten pisuaren araberako euskara-koefizientea aplikatuta, 300 lagun inguruko enplegua dagokio euskarari.

Hiru unibertsitateen datuak batuta, EAE mailako datu orokorrak honakoak dira:

— Euskaraz eskainitako kredituen araberako erreferentziazko euskara enplegua: 3.000

— Hizkuntzaren industriako ikasketen gradu, gradu ondoko eta masterren enplegua, hizkuntza guztiei dagokiena: 327

— Euskarari loturiko unibertsitateko gradu, gradu ondoko eta masterren enplegua: 128

Hiru unibertsitateak batuta Gipuzkoarako estimatutako datuak berriz, honakoak dira:

— Unibertsitate graduetan matrikulatuta dauden EAEko hiru unibertsitateetatik %31,2 Gipuzkoako fakultateetan matrikulatuak egonik eta EHU/UPVko datuen arabera Gipuzkoako kanpusetan emandako euskarazko kredituen pisua EAEko batez bestekoarekiko 3,5 puntu altuagoa izanik, euskaraz emandako unibertsitateko ikasketen Gipuzkoako euskara enplegua 969 inguruan kokatzen da.

— Hiru unibertsitateek Gipuzkoan eskaintzen dituzten hizkuntza arloko gradu, gradu ondoko eta masterrei dagokien enplegua guztira 63koa izan daitekeela estimatzen da eta euskara edota euskal ikasketekin lotura dutenena 30 ingurukoa. Kopuru hori hizkuntza industrien atalean kontabilizatu da, beraz, unibertsitate-ikasketen euskara enpleguari kendu beharko litzaioke: 939, guztira.

## Hezkuntza arloko bestelako elkarte eta erakundeak

Eustateko Jarduera Ekonomikoaren Gidazerrendan hezkuntza arloaren epigrafeetan kokatuak dauden eta euskararekin lotura estua duten elkarteak bildu ditugu atal honetan. Guztira, hezkuntza arloko epigrafeetan erregistraturiko establezimenduak 1.155 dira, eta horietan dauden enpleguak 3.377. Euskararen balio eta eragin ekonomikoa ikerketan, Gipuzkoako elkarteei zegokien euskara-koefizientea da orain aplikatutakoa, %3,05, eta honela, 92 euskara enpleguak.

26. Taula. Hezkuntzako euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Establezimendu kopurua | | Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Enpleguaren ratioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) |
| 3.185 | 1.155 | 9.113 | 3.377 | 1,68 | 3,05 | 154 | 92,5 | 32,7 | 60,0 |

*Iturria: Euskararen balio eta eragin ekonomikoa (HPS, 2015).*

3. Grafikoa. Hezkuntzako euskara-enplegua, azpi-sektoreen arabera




*Iturria: Siadecok landutako datuak, 2019*

## 2.5 Administrazio publikoa

Euskararen sustapeneko herri-administrazioen egitura eta zerbitzuetako enpleguaz gain, kulturaren industriak Gipuzkoan duen bolumenarekiko euskarazkoak duen pisuaren arabera, herri administrazioetako kultura arloetako enpleguaren zati bat ere kontuan hartu da laugarren sektore honen barnean. Guztira 746 dira euskararen erreferentziazko enpleguak administrazio publikoan.

27. Taula. Administrazio publikoko euskara-koefizientea eta erreferentziazko enplegua

| Enplegua | | Euskara koefizientea | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | Sektore mailakoak | | Biztanleria landunarekiko euskararen enpleguak duen pisua (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Gipuzkoa | EAE (%) | Gipuzkoa (%) | EAE | Gipuzkoa | Sektoreko Gipuzkoako enplegu orokorrak EAEko enpleguarekiko duen pisua (%) | Sektorean Gipuzkoako euskararen enpleguak EAEkoarekiko duen pisua (%) | EAE (Biztanleria landuna 2018ko azken hiruhilekoan, 937.400) | GIPUZKOA (Biztanleria landuna 2018ko azken hiruhilekoan, 310.900) |
| 3.763 | 1.350 | 23,7 | 47,5 | 1.631 | 746 | 35,9 | 45,7 | 0,174 | 0,24 |

*Iturria: Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa (HPS, 2015) eta Siadeco 2019*

### 2.5.1 Euskararen sustapenerako herri-administrazioen zuzeneko enplegua

Gipuzkoako herri-administrazioetako euskara zerbitzu eta hizkuntza normalizaziorako egituretako pertsonala da laugarren hizkuntza-sektore honen barruan sartutako lehen azpimultzoa.

Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoaren azken estatistikaren arabera (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016), 199 langilek egiten dute lan Gipuzkoako administrazioek euskara sustatzeko dituzten zerbitzu eta departamentu ezberdinetan. Donostiako Udala, 5.000 biztanle baino gehiagoko udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundia kontuan hartu dira, baita HABE Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakunde autonomoa ere, Gipuzkoan kokatuta dagoelako.

28. Taula. Herri administrazioetako euskara arloetako erreferentziazko enplegua

| Erakundea | Aurrekontu likidatua | Enplegua (egun osora) |
|---|---|---|
| 5000 biztanlez gorako Gipuzkoako udalerrietako euskara zerbitzuak | 18.595.443 | 95 |
| Donostiako Udaleko euskara zerbitzua | 2.887.267 | 22 |
| Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara arloa | 6.108.708 | 18 |
| HABE | 36.400.420 | 64 |
| Guztira | 63.991.838 | 199 |

*Iturria: Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoaren Estatistika (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016)*

### 2.5.2 Kulturaren sustapenerako herri-administrazioen zuzeneko enplegutik euskarari dagokionaren estimazioa

Euskarazko kultura eta hedabideen industriakoak diren enpresa, elkarte eta erakundeetako euskara-enplegua estimatu da ikerlan honen lau euskara-sektoreetatik bigarrenerako. Laugarren honen bigarren azpimultzorako egindako enpleguaren estimazioa berriz, Gipuzkoako herri-administrazioen kultura arloetako enpleguari dago lotua, hau da, herri administrazioek euskarazko kultura sustatzeko lan egiten duten neurrian, kulturako enpleguaren zati bat euskara-enplegu gisa kontsideratzea proposatzen da.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiak bi urtez behin egiten duen ikerlanaren emaitzak erabili dira; ikerlan horrek, herri administrazioetan kultur sektore bakoitzean lan egiten dutenak zenbat diren jasotzen du. Bestalde, kultur sektore bakoitzean euskarari zenbat enplegu inputatu jakiteko, kultur sektore bakoitzerako kalkulatutako euskara-koefizienteak ere baditugu

(kultura eta hedabideen industriarako kalkulatuak). Datu guzti horiek erabili eta elkar gurutzatuz, herri administrazioetako kultura arloetako giza baliabideen euskara-enplegua estimatu da.

Horiek horrela, Gipuzkoako herri-administrazioen eta kultura arloko erakunde publiko autonomoetako zuzeneko enplegua 1.151 da. Kultur sektorerik sektore, bakoitzeko enplegua dagokion euskara-koefizientearekin biderkatuta lortutako azken emaitza da 547 lanpostu inguru direla ikerketa honetarako kontuan hartu beharrekoak.

Euskarari inputatutako enpleguek enplegu guztiekiko duten pisuari dagokionez, nabarmen altuagoa da Gipuzkoan (%47,6) EAEn baino (%29,7).

29. Taula. Gipuzkoako herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako erreferentziazko enplegua

| Kultur sektorea | Jarduera-mota | Aurrekontua | Pertsonal gastuak (I. kap.) | Zerbitzu kontratazioa (II. kap.) | Diru-laguntza eta hitzarmenak (IV. eta VII. Kap) | Gainerako gastu eta inbertsioak (III., VI., VIII. eta IX. Kap.) | Enplegua | Euskara-koefizientea | Erreferentziazko enplegua | Iturria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kultur ondarea | Ondarea eta arkeologia | 4.269.648 | 993.654 | 1.182.772 | 872.571 | 1.220.652 | 8 | 0,00% | 0 | *Euskararen eragin eta balio ekonomikoa, 2015* |
| | Liburutegiak | 11.014.384 | 5.990.425 | 3.153.533 | 54.717 | 1.815.708 | 47 | 25,00% | 12 | *Udal Liburutegien Azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan, 2004* |
| | Artxiboak | 545.673 | 443.937 | 50.906 | 41.020 | 9.810 | 3 | 25,00% | 1 | *Udal Liburutegien Azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan, 2004* |
| | Museoak | 8.910.230 | 2.758.687 | 4.566.295 | 975.431 | 609.817 | 22 | 5,00% | 1 | *Euskararen eragin eta balio ekonomikoa, 2015* |
| Artea eta kulturaren industria | Antzerkia eta dantza | 10.338.527 | 2.801.217 | 5.331.127 | 1.276.122 | 930.061 | 63 | 62,79% | 39 | *Langune 2019* |
| | Musika | 34.010.064 | 17.297.819 | 11.163.743 | 4.306.169 | 1.242.332 | 387 | 49,90% | 193 | *Langune 2019* |
| | Ikusizko arteak | 3.906.765 | 863.750 | 2.523.116 | 497.766 | 22.134 | 19 | 0,00% | 0 | *Euskararen eragin eta balio ekonomikoa, 2015* |
| | Zinema eta ikus-entzunezkoak | 5.828.426 | 897.056 | 1.996.543 | 2.611.803 | 323.024 | 20 | 46,30% | 9 | *Langune 2019* |
| | Literatura | 361.476 | 18.364 | 112.485 | 195.236 | 35.392 | 0 | 41,10% | 0 | *Langune 2019* |
| | Kultur etxeak eta kultur jarduerak | 61.699.123 | 12.461.596 | 34.010.700 | 6.241.280 | 8.985.546 | 279 | 61,30% | 171 | *Langune 2019 (musika programatzaile eta antzerki programatzaileen batez bestekoa)* |
| | Bertsolaritza | 465.650 | 9.042 | 49.533 | 392.077 | 14.997 | 0 | 100,00% | 0 | *Langune 2019* |
| | Hedabideak | 1.248.966 | 59.846 | 70.928 | 687.123 | 431.068 | 1 | 100,00% | 1 | *Langune 2019* |
| Jaiak eta herri kultura | | 11.923.373 | 891.583 | 9.169.089 | 1.752.688 | 110.013 | 20 | 61,30% | 12 | *Langune 2019 (musika programatzaile eta antzerki programatzaileen batez bestekoa)* |
| Kultur zerbitzu orokorrak | | 22.335.358 | 5.916.812 | 3.207.839 | 194.430 | 13.016.277 | 132 | 61,30% | 81 | *Langune 2019 (musika programatzaile eta antzerki programatzaileen batez bestekoa)* |
| Guztira | | 176.857.663 | 51.403.788 | 76.588.610 | 20.098.432 | 28.766.832 | 1.151 | | 547 | |

*Iturria: Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan, 2016 (KEB, EJ)*

30. Taula. EAEko herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako erreferentziazko enplegua

| Kultur sektorea | Jarduera-mota | Aurrekontua | Pertsonal gastuak (I. kap.) | Zerbitzu kontratazioa (II. kap.) | Diru-laguntza eta hitzarmenak (IV. eta VII. Kap) | Gainerako gastu eta inbertsioak (III., VI., VIII. eta IX. Kap.) | Enplegua | Euskara-koefizientea | Erreferentziazko enplegua | Iturria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kultur ondarea | Ondarea eta arkeologia | 20.738.056 | 9.141.518 | 3.565.699 | 4.013.790 | 4.017.048 | 188 | 0,00% | 0 | *Euskararen eragin eta balio ekonomikoa, 2015* |
| | Liburutegiak | 35.937.395 | 21.052.196 | 10.605.274 | 63.068 | 4.216.856 | 434 | 25,00% | 109 | *Udal Liburutegien Azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan, 2004* |
| | Artxiboak | 9.012.601 | 4.885.716 | 2.591.850 | 781.031 | 754.005 | 101 | 25,00% | 25 | *Udal Liburutegien Azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan, 2004* |
| | Museoak | 45.492.808 | 11.821.492 | 15.920.935 | 14.973.187 | 2.777.194 | 244 | 5,00% | 12 | *Euskararen eragin eta balio ekonomikoa, 2015* |
| Artea eta kulturaren industria | Antzerkia eta dantza | 33.392.911 | 8.584.523 | 15.799.583 | 7.578.734 | 1.430.070 | 177 | 56,94% | 101 | *Langune 2019* |
| | Musika | 80.600.240 | 48.786.402 | 19.530.360 | 10.702.774 | 1.580.704 | 1.006 | 18,50% | 186 | *Langune 2019* |
| | Ikusizko arteak | 6.819.102 | 1.451.977 | 3.417.795 | 1.869.520 | 79.809 | 30 | 0,00% | 0 | *Euskararen eragin eta balio ekonomikoa, 2015* |
| | Zinema eta ikus-entzunezkoak | 16.821.196 | 1.110.079 | 3.512.920 | 7.170.527 | 5.027.670 | 23 | 51,20% | 12 | *Langune 2019* |
| | Literatura | 2.214.593 | 236.963 | 318.203 | 1.615.038 | 44.389 | 5 | 35,10% | 41 | *Langune 2019* |
| | Kultur etxeak eta kultur jarduerak | 109.505.136 | 23.239.187 | 59.304.155 | 15.700.615 | 11.261.180 | 479 | 50,00% | 240 | *Langune 2019 (musika programatzaile eta antzerki programatzaileen batez bestekoa)* |
| | Bertsolaritza | 1.082.828 | 39.957 | 231.740 | 796.133 | 14.997 | 1 | 100,00% | 1 | *Langune 2019* |
| | Hedabideak | 8.027.834 | 231.370 | 221.331 | 1.245.773 | 6.329.359 | 5 | 100,00% | 5 | *Langune 2019* |
| Jaiak eta herri kultura | | 32.913.331 | 1.849.548 | 24.798.517 | 6.072.114 | 193.151 | 38 | 50,00% | 19 | *Langune 2019 (musika programatzaile eta antzerki programatzaileen batez bestekoa)* |
| Kultur zerbitzu orokorrak | | 34.446.410 | 14.615.144 | 5.590.530 | 294.371 | 13.946.366 | 301 | 50,00% | 151 | *Langune 2019 (musika programatzaile eta antzerki programatzaileen batez bestekoa)* |
| Guztira | | 437.004.441 | 147.046.072 | 165.408.892 | 72.876.675 | 51.672.798 | 3.032 | | 900 | |

*Iturria: Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan, 2016 (KEB, EJ)*

31. Taula. Euskararen pisua enpleguan

| | Guztira | Euskararena | Euskararen % |
|---|---|---|---|
| Enplegua EAEn | 3.032 | 900 | 29,7 |
| Enplegua Gipuzkoan | 1.151 | 547 | 47,6 |

*Iturria: Siadecok landua, 2019*

4. Grafikoa. Administrazio publikoetako euskara eta kultura arloetako euskara-enplegua




*Iturria: Siadecok landutako datuak, 2019*

## 2.6 Enplegua guztira

5. Grafikoa. Gipuzkoako euskara-enplegua, azpi-sektoreen arabera (%)




*Iturria: Siadecok landutako datuak, 2019*

# 3

# Euskara-sektoreen datu ekonomikoak



Euskara-sektoreek Gipuzkoan sortzen duten zuzeneko enplegua zenbatekoa den ezagutu ondoren, euskararen zuzeneko eragin ekonomikoaren gainerako aldagai makroekonomikoak kalkulatu dira. EAE mailako informazio ekonomikoa jasotzeko inkestak egiten ditu Eustatek eta ikerlan honi dagozkion euskara-sektore eta azpi-sektoreetakoak diren jardueretako datuak, jarduera bakoitzerako estimatutako enpleguarekin gurutzatuta, soldaten ordainketa, Balio Erantsi Gordina eta fakturazio bolumenari dagozkion datuak estimatu dira.

Guztira, euskara-sektoreek 1.126 milioiko fakturazioa dute, 8,5 milioiko Balio Erantsi Gordina sortzen dute eta ia 694 milioi bideratzen dituzte soldatak ordaintzera.

32. Taula. EAE eta Gipuzkoako soldata ordainketak, Balio Erantsi Gordina eta Fakturazioa (mila €).

| EAE | | | Gipuzkoa | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakrturazioa (mila €) |
| 1.843.852 | 2.242.031 | 2.898.381 | 693.838 | 849.680 | 1.126.415 |

## Balio Erantsi Gordina eta Barne Produktu Gordina

Produktu baten ekoizpenean, tarteko produktu edo zerbitzuen gastuak ere sartuko bagenitu, herrialde bateko ekonomiaren errekurtsoak era bikoiztuan kontabilizatzen ariko ginateke, sektore batzuetako ekoizpena beste batzuetan ere sartua egongo litzatekeelako. Adibide sinple bat ipinita, liburu bat idatzi eta irakurlearengana iristeko ekoizpen-katean, profesional eta jarduera-sektore batek baino gehiagok parte hartzen du (idazleak, inprimategiak, argitaletxeak, banatzaileak, liburu saltzaileak...) eta kate-maila horietako bakoitzak hurrengoari, berak egindako lana eta bere aurrekoei ordaindutakoa ere kobratuko die; jarduera-sektore guzti horien ekoizpen balioa batuko bagenu, batura horretan zenbait lanen balorazio ekonomikoa behin baino gehiagotan kontabilizatua egongo litzateke.

Hori dela eta, lurralde baten ekonomian jarduera jakin batek duen eragin ekonomikoa neurtzeko aldagairik erabiliena, Balio Erantsi Gordina da (BEG); ekoizpen prozesuan produktu edo zerbitzu bati erantsitako balioa adierazten du; jarduera ekonomiko jakin bati dagokion Balio Erantsi Gordinean beraz, beste jarduera ekonomikoei eginiko transakzio ekonomikoak edo tarteko kontsumoak deitzen direnak sartu gabe daude. Balio Erantsi Gordinaren eta Barne Produktu Gordinaren balioak dira produktu edo jarduera baten garrantzia eta eragin ekonomikoa neurtzeko aldagairik egokienak. Barne Produktu Gordina, Balio Erantsi Gordinari, produktuen gaineko zerga garbiak gehituta lortzen den balioa da.

## 3.1 Hizkuntzaren industria

Hizkuntzaren industriakoak kontsideratutako enpresa eta erakundeetan euskarari loturiko lan eta zerbitzuen urteko fakturazio bolumena 45 milioi eta erdikoa da urtean, 35 milioi pasatxoko Balio Erantsi Gordina sortzen dute, horietatik 23 milioi eta erdi soldatak ordaintzeko erabiltzen dira eta 820 lagun inguruko enplegua sortzen dute. Euskararen irakaskuntza da sektorean pisu handiena duen jarduera-adarra, 20 milioiko fakturazioarekin eta ia 400 laguneko enpleguarekin.

| | |
|---|---|
| I.1.<br>Euskararen irakaskuntza<br>(hezkuntza sistemaz kanpokoa) | Enplegua 393, soldata ordainketak 14 milioi, 17 milioiko BEG eta 20 milioiko fakturazio bolumena |
| I.2.<br>Itzulpen eta interpretazio lanak | 260 lagun inguruko enplegua (langile autonomoak barne), soldata ordainketak 4 milioi eta erdi, 11 milioi inguruko BEG eta ia 17 milioiko fakturazioa |
| I.3.<br>Eduki linguistikoen lanketa | 130 langile inguru, 3 milioi euro soldata ordainketetarako, ia 5 milioiko BEG eta 5 milioi pasako fakturazio bolumena |
| I.4.<br>Hizkuntza teknologiak | Enplegua 31 lagun, milioi eta erdiko soldata ordainketak, 2,3 milioiko BEG eta 3 milioi eta erdiko fakturazioa |

33. Taula. Hizkuntzen industriako datu ekonomikoak: soldaten ordainketa BEG eta fakturazioa

| | | Establezimendu kop. | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | EAE | | | Gipuzkoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) |
| I. | Hizkuntzaren industria | 903 | 384 | 2.158 | 816 | 68.715 | 92.997 | 115.512 | 23.550 | 35.157 | 45.543 |
| I.1 | Hizkuntzen irakaskuntza | 317 | 113 | 1.495 | 393 | 54.805 | 65.311 | 76.385 | 14.408 | 17.170 | 20.081 |
| I.1.1 | Euskaltegiak | 57 | 25 | 1.164 | 267 | | | | | | |
| I.1.2 | Hizkuntza eskola ofizialak | 14 | 5 | 57 | 11 | | | | | | |
| I.1.3 | Hizkuntza akademiak | 246 | 83 | 146 | 70 | | | | | | |
| I.1.4. | Unibertsitateko graduak, graduondoak eta masterrak (itzulpengintza barne) | | | 128 | 30 | | | | | | |
| I.2 | Itzulpegintza eta interpretazioa | 561 | 253 | 421 | 260 | 7.529 | 17.329 | 27.207 | 4.656 | 10.717 | 16.826 |
| I.2.1 | Enpresa edota elkarteak | 74 | 29 | 118 | 112 | | | | | | |
| I.2.2 | Autonomoak | 487 | 224 | 302 | 148 | | | | | | |
| I.3 | Eduki linguistikoak | 17 | 12 | 210 | 132 | 4.853 | 7.913 | 8.240 | 3.050 | 4.974 | 5.179 |
| I.4 | Hizkuntza teknologien garapena eta zabalpena | 8 | 6 | 33 | 31 | 1.528 | 2.444 | 3.680 | 1.436 | 2.296 | 3.457 |

## 3.2 Kultura eta hedabideen industria

Euskal kulturgintzaren eta hedabideen arloak 192 milioi eta erdi fakturatzen ditu urtean, 118,3 milioiko Balio Erantsi Gordina sortzen du, eta horietatik 84 milioi inguru soldatak ordaintzeko erabiltzen dira. 2.400 langile inguru ari dira sektore honetan. Pisu handiena duen azpi-sektorea hedabideena da, 58 milioiko fakturazioarekin, ia 46 milioiko Balio Erantsi Gordinarekin eta 800 langile baino gehiagorekin.

| | |
|---|---|
| II.1. Liburuaren industria | 150 laguneko enplegua, soldata ordainketetan urtean 4 milioi eta erdi, 6 milioiko BEG eta 16,7 milioiko fakturazio bolumena. |
| II.2. Musika | Enplegua 26 lagun, 0,8 milioi euroko soldata ordainketak, milioi eta erdiko BEG eta 2 milioi eta erdiko fakturazioa bolumena |
| II.3. Kultur sortzaile autonomoak | 260 lagun inguruko enplegua eta horien soldata ordainketak 4,8 milioikoak, 10,3 milioiko BEG eta ia 19 milioiko fakturazioa |
| II.4. Ikus-entzunezkoen industria | 190 laguneko enplegua, 6 milioi euroko soldata ordainketak, 8 milioiko BEG eta 13,3 milioiko fakturazioa |
| II.5. Arte eszenikoak | Enplegua 110 lagun, 4,6 milioiko soldata ordainketak, BEG 7 milioikoa eta fakturazioa 9koa |
| II.6. Bertsolaritza | 150 laguneko enplegua eta 3 milioiko soldata ordainketak, BEG 5 milioi eta fakturazioa ia 8 milioi |
| II.7. Hedabideak | 800 pertsona enplegatu eta ia 36 milioiko soldata ordainketak, BEG 46 milioi eta 58,3 milioiko fakturazioa |
| II.8. Euskara elkarteak | 90 langile, soldata ordainketak 3,3 milioi, 4,3 milioi BEG eta 6 milioi eta erdiko fakturazioa |
| II.9. Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako elkarte eta enpresak | 630 langile inguru, ia 21 milioiko soldata ordainketak, 30 milioiko BEG eta ia 59 milioiko fakturazioa |

34. Taula. Kultura eta hedabideen industriako datu ekonomikoak: soldaten ordainketa BEG eta fakturazioa

| | | Establezimendu kop. | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | EAE | | | Gipuzkoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) |
| II. | Kultura eta hedabideen industria | | | 4.915 | 2.373 | 169.946 | 242.331 | 403.737 | 83.765 | 118.258 | 192.515 |
| II.1 | Liburuaren industria | 633 | 239 | 335 | 145 | 10.483 | 14.237 | 38.492 | 4.553 | 6.183 | 16.716 |
| II.1.1 | Argitaletxeak | 218 | 85 | 204 | 86 | | | | | | |
| II.1.2 | Liburu dendak | 415 | 154 | 131 | 59 | | | | | | |
| II.2 | Musikaren industria | | | 59 | 26 | 1.859 | 3.567 | 5.750 | 813 | 1.560 | 2.515 |
| II.2.1 | Diskoetxeak | 31 | 14 | 29 | 13 | | | | | | |
| II.2.2 | Disko saltokiak | 37 | 13 | 8 | 3 | | | | | | |
| II.2.3 | Musika sustatzaile eta programatzaileak | 20 | 6 | 22 | 10 | | | | | | |
| II.3 | Kultur sortzaileak | 1.238 | 474 | 623 | 258 | 11.605 | 24.772 | 45.258 | 4.806 | 10.259 | 18.743 |
| II.4 | Ikus-entzunezkoen industria | | | | 381 | 186 | 12.298 | 16.574 | 27.361 | 6.004 | 8.091 |
| II.4.1 | Ikus-entzunezkoen ekoizleak | 269 | 107 | 371 | 182 | | | | | | |
| II.4.2 | Zinema aretoak | 49 | 23 | 10 | 4 | | | | | | |
| II.5 | Arte eszenikoak | | | 381 | 186 | 12.298 | 16.574 | 27.361 | 6.004 | 8.091 | 13.357 |
| II.5.1 | Antzerki konpainiak | 77 | 30 | 119 | 54 | | | | | | |
| II.5.2 | Antzerki eta dantza programatzaileak | 33 | 12 | 122 | 56 | | | | | | |
| II.6 | Bertsolaritza | | | 150 | 105 | 4.503 | 7.065 | 11.573 | 3.152 | 4.945 | 8.101 |
| II.7 | Hedabideak | | | 1.451 | 821 | 63.098 | 81.127 | 103.126 | 35.696 | 45.895 | 58.340 |
| II.7.1 | Euskarazko hedabideak (egunkari eta aldizkari orokorrak, tokiko hedabideak eta internet atariak) | | | 766 | 566 | | | | | | |
| II.7.2 | Gainerako egunkariak (euskara hutsean argitaratzen ez direnak) | 24 | 9 | 82 | 58 | | | | | | |
| II.7.3 | Gainerako irratiak eta irratirako zerbitzu emaileak | 49 | 17 | 273 | 110 | | | | | | |
| II.7.4 | Gainerako telebistak eta telebistarako zerbitzu emaileak | 12 | 4 | 293 | 83 | | | | | | |
| II.7.5 | Gainerako internet bidezko hedabideak | 7 | 1 | 21 | 1 | | | | | | |
| II.7.6 | Berri agentziak eta kazetari autonomoak | 73 | 11 | 16 | 3 | | | | | | |

| | | Establezimendu kop. | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | EAE | | | Gipuzkoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) |
| II.8 | Euskara elkarteak | | | 206 | 88 | 7.785 | 9.995 | 15.181 | 3.326 | 4.270 | 6.485 |
| II.9 | Komunikazioa, kultura eta gizarte arloko bestelako enpresa eta elkarteak | | | 1.469 | 634 | 48.199 | 69.817 | 136.474 | 20.799 | 30.127 | 58.891 |
| II.9.1 | Kultura, aisialdi eta gizarte gaietako enpresa eta elkarteak | 210 | 71 | 762 | 177 | | | | | | |
| II.9.2 | Komunikazio eta publizitate zerbitzuak | 1.394 | 413 | 629 | 420 | | | | | | |
| II.9.3 | Internet zerbitzuak | 35 | 13 | 70 | 32 | | | | | | |
| II.9.4 | Dokumentazio eta ikerketa zentroak | 10 | 5 | 8 | 5 | | | | | | |

## 3.3 Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak

Euskarazko hezkuntza-sistemak (Euskara ikasgai gisa eta euskaraz irakatsitako gainerako ikasgaiak ere) eta hezkuntzarekin lotutako bestelako jarduerek 765 milioi fakturatzen dituzte urtean, 654 milioiko Balio Erantsi Gordina sortzen dute eta horietatik 549 milioi soldatak ordaintzera bideratzen dituzte. Ia 15.000 laguneko enplegua sortzen du euskarazko hezkuntzak Gipuzkoan. Horietatik 14.000, ia, unibertsitate aurreko mailetan.

Guztira hirugarren euskara-sektore honen aldagai makroekonomikoak ondorengoak dira, azpi-sektore desberdinen arabera:

| | |
|---|---|
| III.1.<br>Unibertsitate aurreko hezkuntza | Ia 14 mila enplegatu, soldata ordainketak 511 milioi, BEG 609 milioi eta 712 milioi eta erdiko fakturazio bolumena |
| III.2.<br>Unibertsitate Hezkuntza | 900 enplegatu inguru, soldata ordainketak 34 milioi eta erdi, BEG 41 milioi eta 48 milioi euroko fakturazio bolumena |
| III.3.<br>Hezkuntza alorreko bestelako euskara elkarte eta erakundeak | 90 laguneko enplegua, urteko soldata ordainketak 3,3 milioi euro, 4 milioiko BEG eta 4,7 milioi euroko fakturazio bolumena |

35. Taula. Hezkuntza sektoreko datu ekonomikoak: soldaten ordainketa, BEG eta fakturazioa

| | | Establezimendu kop. | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | EAE | | | Gipuzkoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) |
| III. | Hezkuntza | | | 41.425 | 14.974 | 1.518.684 | 1.809.815 | 2.116.692 | 548.962 | 654.198 | 765.126 |
| III.1 | Unibertsitate aurreko ikasketak (HH, LH, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa) | | | 38.399 | 13.943 | 1.407.747 | 1.677.612 | 1.962.073 | 511.165 | 609.155 | 712.445 |
| III.2 | Unibertsitate ikasketak (hizkuntza arloko gradu eta graduondokoak salbu) | | | 2.872 | 939 | 105.291 | 125.475 | 146.751 | 34.425 | 41.024 | 47.980 |
| III.3 | Hezkuntza alorreko bestelako elkarte eta erakundeak | 3.185 | 1.155 | 154 | 92 | 5.646 | 6.728 | 7.869 | 3.373 | 4.019 | 4.701 |

## 3.4 Administrazio publikoa

Gipuzkoako administrazio publikoan euskarari loturiko aurrekontua (erakunde publikoetako euskararen arloko langileak eta kultura arlokoak, euskarazko kultur jardueraren arabera) 123 milioi eurokoa da. Administrazio publikoari dagokion Balio Erantsi Gordina 42 milioikoa da eta horietatik 37 milioi eta erdi langileen soldatak ordaintzeko bideratzen dira.750 lagun ingurukoa da euskarari loturiko enplegua Gipuzkoako administrazio publikoan. Kultura arloan euskararekin loturikoak diren jardueren pisua handiagoa da, ia 94 milioiko aurrekontuarekin, 28 milioi eta erdiko Balio Erantsi Gordinarekin eta 547 langilerekin.

Administrazio publikoaren sektorearen baitan biltzen diren azpi-sektore desberdinen aldagai makroekonomikoak dira ondorengoak:

| | |
|---|---|
| IV.1.<br>Herri administrazioetako euskara arloetako baliabideak | 200 lanpostu inguru, 12 milioiko soldata ordainketak, 13 milioi eta erdiko BEG eta 29 milioi eta erdiko aurrekontua |
| IV.2.<br>Herri administrazioen eta menpeko erakunde autonomoen kultura arloetako baliabideak | 550 laguneko enplegua eta horien soldata ordainketak 25,3 milioi eurokoak, 28 milioi eta erdiko BEG eta urteko aurrekontua ia 94 milioi eurokoa |

36. Taula. Administrazio publikoaren sektoreko datu ekonomikoak: soldaten ordainketa, BEG eta fakturazioa

| | Establezimendu kop. | | Euskararen erreferentziazko enplegua | | EAE | | | Gipuzkoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE | Gipuzkoa | EAE | Gipuzkoa | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) | Soldata ordainketak (mila €) | Balio Erantsi Gordina (mila €) | Fakturazioa (mila €) |
| IV. Administrazio publikoa | | | 1.631 | 746 | 86.508 | 96.889 | 262.440 | 37.561 | 42.068 | 123.230 |
| IV.1 Euskara zerbitzu eta arloetako enplegua | | | 731 | 199 | 44.744 | 50.113 | 108.070 | 12.181 | 13.642 | 29.420 |
| IV.1.1 5000 biztanlez gorako udalak | | | 213 | 117 | | | | | | |
| IV.1.2 Foru Aldundiak | | | 59 | 18 | | | | | | |
| IV.1.3 Eusko Jaurlaritza eta menpeko erakundeak (HABE) | | | 459 | 64 | | | | | | |
| IV.2 Kultura arloetako enplegua (arlo bakoitzak herri erakundeen aurrekontuetan duen pisuaren arabera) | | | 900 | 547 | 41.764 | 46.776 | 154.370 | 25.380 | 28.425 | 93.810 |

# 4

# Euskararen eragin ekonomikoa



## 4.1 Argibide metodologikoak

### 4.1.1 Eragin ekonomikoa: zuzena, zeharkako eta induzitua

Euskarari loturiko sektore eta jarduera-adarrek egiten dituzten era guztietako gastu eta inbertsioek, sektore horietan eta Gipuzkoako ekonomia produktiboaren gainerako sektoreen ekoizpenean, enpleguan eta errentan ere eragiten dutenez, euskara-sektoreen zuzeneko eraginari, zeharkakoa ere erantsi behar zaio, eragin ekonomikoa kalkulatzerakoan.

Zeharkako eragin ekonomikoa neurtzeko erabilitako metodologiak, input-output tauletan du oinarria. Input-Output metodologiari esker, sektore jakin bateko eskaria handitzeak beste sektoreetan zein eragin ekonomiko duen kuantifika daiteke, adibidez, hornitzaileei egin beharreko erosketak gehitzen direlako (zeharkako inpaktu ekonomikoa). Horrez gain, familiek egindako kontsumotik eratorritako eragin biderkatzailea ere kuantifika daiteke (eragin induzitua); zuzeneko eta zeharkako sektoreetan egindako gastu eta inbertsioek, enplegua eta errentak sortzen dituzte, eta familia-errenta horiek ondoren, produktu eta zerbitzuen kontsumoa eragiten dute, eta beraz, merkatuko azken eskarian eragitera ere iristen dira.

Euskararen eragin ekonomikoa guztira zenbatekoa den kuantifikatzerakoan, beraz, zuzeneko eragin ekonomikoa, zeharkakoa eta eragin induzitua ere kontuan hartu dira.

### 4.1.2 Ondasun eta produktuen balorazio ekonomikoa

Produktu baten balorazioa, bi ikuspegi ezberdinetatik egin daiteke, produktua erosten duenaren ikuspegitik eta produktu-ekoizlearen ikuspegitik. Bi balorazioen arteko aldea, bi faktorek esplikatzen dute:

- Bitartekarien lanak, produktua sortu eta kontsumitzailearen esku jarri bitarteko komertzializazio eta garraio gastuak dituena.
- Zerga eta diru-laguntzek; produktuen azken erosleek zergak ordaindu behar dituzte alde batetik (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) eta bestetik, produktuak diruz lagundutakoak ere izan daitezke, salmenta prezio baxuagoekin.

Produktuen balorazio ekonomikorako kontuetan beraz, produktuen merkatuko prezioak (erosleak pagatu behar duen prezioa) eta oinarrizko prezioak (ekoizlearen ikuspegitik kalkulatutakoa) bereizten dira. Oinarrizko prezioen araberako balorazioa, ekoizpen kostuen araberakoa da, hau da, bitarteko input edo bitarteko kontsumoei lehen mailako inputen gastua erantsiz, hau da, pertsonal eta kapital gastuak erantsiz kalkulatutakoa. Oinarrizko prezioei, produktua azken kontsumitzailearen esku ipintzeko bitartekarien gastuak erantsi, zergak erantsi eta diru-laguntzak kenduta, merkatuko prezioa kalkulatzera iritsiko ginateke.

Ekonomikoki neurtu nahi dena, produktu baten balioa bada, oinarrizko prezioetara jo beharko litzateke; aldiz, produktua erosten dutenen gastua neurtu nahi bada, merkatuko prezioak erabili beharko lirateke. Kontabilitateko datuetan, produktu baten eskari osoari buruzko datuak merkatuko prezioan ematen dira, eta eskaintzari buruzkoak berriz, oinarrizko prezioetan.

### 4.1.3 Input-Output taula estatistikoak

Sektore ekonomiko gisa euskarak Gipuzkoako ekonomian duen pisua eta garrantzia neurtzera iristeko, batetik Balio Erantsi Gordinean oinarritutako kalkuluak egin dira, eta bestetik, ekonomia batean sektore ezberdinen arteko interdependentziak zein diren erakusten duten Gipuzkoako datuekin osatutako Input-Output taulak erabili dira, Wassily Leontief ekonomia nobel saridunak garatutako eredu ekonomikoan oinarria dutenak.

Input/Output taulen sistema da sektore jakin batek herrialde baten Barne Produktu Gordinean duen garrantzia neurtzeko prozedurarik erabiliena. Input-Output taulak, herrialde jakin bateko ekoizpenari buruzko informazioa ematen duten tresna estatistikoak dira; herrialde baten urteko ekoizpena, zein sektorek ekoitzitakoa den eta ekoizpen hori beste zein sektoretara bideratzen den erakusten dute. Input-Output tauletako datuak erabiliz jakin daiteke, sektore jakin bateko ekoizpenetik zenbat destinatzen den azken kontsumora eta ekoizpen horren zein zati den beste sektore batzuek bitarteko kontsumo modura erabiltzen dutena. Input-Output tauletan, produktu eta jarduera-adarren arteko erlazioaren datu ekonomikoak jasoak daude eta bestetik, Balio Erantsi Gordinari dagozkion datuak erabiliz, kontabilitate bikoiztuaren arazoari aurre egiten zaio.

Input/Output sistema edo eredu ekonomikoaren informazio taula nagusienak honakoak dira: "Jatorrian" eta "helburuan" deituriko taulak eta taula "simetrikoak".

### "Jatorrian" Input/Output taula

Produktu eta zerbitzuen eskaintzari buruzko informazioa ematen du, bertan ekoiztutakoak eta inportatutakoak bereiziz.

### "Helburuan" Input/Output taula

Eskariari buruzko informazioa ematen du, produktu-mota bakoitzak zein erabilera mota duen, bitarteko kontsumorako edo azken kontsumorako erabiltzen den bereiziz. "Jatorrian" eta "Helmugan" tauletako guztirako balioek bat etorri behar dute. "Helburuan" taulak baita ere, jarduera-adar bakoitzaren balio erantsiari buruzko informazioa ematen du. Zutabeka dago jasoa informazio hori, zutabe bakoitzeko bitarteko kontsumoen baturari, dagokion Balio Erantsi Gordina eransten badiogu (soldaten ordainketak, ekoizpenaren gaineko zergak, kapital finkoen kontsumoa eta ustiapenaren gaineko soberakinak), ekoizpenak oinarrizko prezioetan duen balioa lortuko dugu.

### Taula "simetrikoak"

Aurreko bi taulen lanketa edo elaborazio prozesu batetik eratorritako datuekin eraikitako taulak dira eta estatistika-eragiketetatik lortutako datuekin ez dago zuzenean taula "simetrikoetako" informazioa ematera iristerik. "Helburuan" Input-Output taularen antzeko egitura du, baina bi diferentziarekin:

— Produktuak eta jarduera-adarrak homogeneoak izateko kalkuluak eginak daude, non jarduera-adar batek produktu bakar bat ekoitzi eta produktu bat jarduera-adar batek bakarrik ekoitziko balu bezala eraikitako Input/Output taula teorikoa osatzen den.

— Inportazioen balioak ere jasotzen direnez, produktu jakin baten ekoizpenaren balioa (oinarrizko prezioetan) emateaz gain, guztizko eskaintzaren balioa ere ematen du oinarrizko prezioetan (kontabilitateko kontzeptua erabilita, baliabide edo errekurtsoen balioa alegia).

Taula simetrikoa da azken batean inpaktu ekonomikoa neurtzeko erabiltzen diren koefizienteak kalkulatu eta ereduak eraikitzeko taularik erabiliena. Zutabeka, jarduera adar bakoitzak bere ekoizpenerako beste jarduera-adarretan egindako bitarteko kontsumoari buruzko informazioa ematen du; Eustatek landutako EAEko taula simetrikoan, tarteko kontsumo horretatik zenbat den EAEn, Espainiar Estatuan eta eremu horiez kanpo egindakoa zehazten da. Zeharkako eragin ekonomikoa kuantifikatzeko erabilitako koefiziente teknikoek eta Leontief matrizeak, taula simetrikoetatik kalkulatzen dira eta beste jarduera-adarretan egindako bitarteko kontsumoari dagokionean, herrialde berean egindako gastua bakarrik hartzen da kontuan; azterlan honetarako, koefiziente horiek Gipuzkoa mailako kontsumoarekiko kalkulatu dira.

37. Taula. Input-Output taulako jarduera-adarrak, sektore ekonomikoen arabera

| Sektore ekonomikoa | Input-Output tauletako jarduera-adarrak |
|---|---|
| I. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | 01. Nekazaritza, abeltzaintza eta ehiza |
| | 02. Basogintza eta baso-ustiapena |
| | 03. Arrantza eta akuikultura |
| II. Erauzte industriak | 04. Erauzteko industriak |
| III. Manufaktura industriak | 05. Okelaren industriak |
| | 06. Arrainen prozesatzea |
| | 07. Esnekiak |
| | 08. Okintza eta errotakoak |
| | 09. Elikagaien beste industriak |
| | 10. Edariak |
| | 11. Tabakoa |
| | 12. Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza |
| | 13. Zuraren eta kortxoaren industria |
| | 14. Paperaren industria |
| | 15. Arte grafiko eta erreprodukzioak |
| | 16. Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak |
| | 17. Oinarrizko produktu kimikoak |
| | 18. Margoak eta beste azken-kimika |
| | 19. Farmazia-ekoizkinak |
| | 20. Kautxuzko produktuak |
| | 21. Plastikozko produktuak |
| | 22. Beiraren industria |
| | 23. Zementua, karea eta igeltsua |
| | 24. Ez-metalezko industria |
| | 25. Altzairugintza |
| | 26. Ez-burdinazko metalen ekoizpena |
| | 27. Metalen galdaketa |
| | 28. Metalezko eraikuntzak |
| | 29. Metalen lanketa eta estanpazioa |
| | 30. Ingeniaritza mekanikoa |
| | 31. Metalezko artikuluak |
| | 32. Produktu informatiko eta elektronikoak |
| | 33. Material eta tresneria elektrikoa |
| | 34. Etxeko aparatuak |
| | 35. Makineria, orokorrean |
| | 36. Makina erremintak |
| | 37. Motordun ibilgailuak egitea |
| | 38. Ontzigintza |
| | 39. Bestelako garraio-materiala |
| | 40. Altzarigintza |
| | 41. Bestelako manufaktura industriak |
| | 42. Konponketa eta instalazioa |
| IV. Energia, gasa eta ur hornidura | 43. Energia elektrikoa |
| | 44. Gasa, lurrina eta aire girotua |
| | 45. Ur hornidura |
| | 46. Hondakinen saneamendua eta kudeaketa |

| Sektore ekonomikoa | Input-Output tauletako jarduera-adarrak |
|---|---|
| V. Eraikuntza | 47. Eraikuntza |
| VI. Merkataritza, ostalaritza eta garraioak | 48. Ibilgailuen salmenta eta konponketa |
| | 49. Handizkako merkataritza |
| | 50. Txikizkako merkataritza |
| | 51. Trenbide bidezko garraioa |
| | 52. Bidaiarien beste lur-garraioren bat |
| | 53. Salgaien beste lur-garraioren bat |
| | 54. Itsas eta ibai garraioa |
| | 55. Aireko garraioa |
| | 56. Garraioarekin uztartutako jarduerak |
| | 57. Posta zerbitzuak |
| | 58. Ostalaritza |
| VII. Informazio eta komunikazio jarduerak | 59. Argitalpenak |
| | 60. Ikus-entzumenezkoak, zinea, irratia, tb. |
| | 61. Telekomunikazioak |
| | 62. Informatika |
| VIII. Finantza zerbitzuak eta higiezinen jarduerak | 63. Finantza zerbitzuak, aseguruak salbu |
| | 64. Aseguruak |
| | 65. Finantza-laguntzaileak |
| | 66. Jarduerak higiezinekin |
| IX. Jarduera profesionalak | 67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak |
| | 68. Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzuak |
| | 69. Ikerketa eta Garapena |
| | 70. Publizitatea eta merkatu azterlanak |
| | 71. Beste jarduera profesionalak |
| X. Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak | 72. Alokairu jarduerak |
| | 73. Enpleguarekin uztartutako jarduerak |
| | 74. Bidai-agentziak |
| | 75. Beste jarduera osagarriak |
| XI. Herri administrazioa | 76. Herri Administrazio Saila |
| XII. Hezkuntza | 77. Hezkuntza |
| XIII. Osasun eta gizarte zerbitzuak | 78. Osasun jarduerak |
| | 79. Gizarte zerbitzuak |
| XIV. Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak | 80. Kultur jarduerak; jokoa |
| | 81. Kirol eta aisialdi jarduerak |
| | 82. Elkartegintzako jarduerak |
| | 83. Ordenagailuen eta beste artikuluen konponketa |
| | 84. Beste zerbitzu pertsonal batzuk |
| | 85. Familia-etxeen jarduerak |

*Iturria: Eustat, Siadecok landutako taula.*

### 4.1.4 Zuzeneko eta zeharkako eragin ekonomikoa kalkulatzeko prozedura

Eustatek landutako EAEko Input-Output tauletatik abiatuta, inpaktu zuzena eta zeharkakoa estimatzera iristeko, honako prozedura jarraitu da:

1. Euskarari loturiko sektore eta azpi-sektoreetako elkarte, enpresa eta erakundeen datu ekonomikoak (Balio Erantsi Gordina eta enplegua), Input-Output taulako jarduera-adarretan kokatu dira (JESNri jarraiki). Input-Output taulak guztira 85 jarduera-adar ditu eta zuzeneko eragina kalkulatzerakoan azterketa honetan kontuan hartu diren enpresa eta erakundeak, ondoko 13 adarretan kokatu dira:

   Arte grafikoak eta erreprodukzioak (kod.: 15).

   Txikizkako merkataritza (IO adarraren kodea: 50).

   Argitalpenak (kod.: 59).

   Ikus-entzunezkoak, zinea, irratia eta abar (kod.: 60).

   Informatika (kod.: 62).

   Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak (kod.: 67).

   Ikerketa eta garapena (kod.: 69).

   Publizitatea eta merkatu azterlanak (kod.: 70).

   Bestelako jarduera profesionalak (kod.: 71).

   Herri Administrazio Saila (kod.: 76).

   Hezkuntza (kod.: 77).

   Kultur jarduerak; jokoa (kod.: 80).

   Elkartegintzako jarduerak (kod: 82)

2. Euskara-sektoreek Input-Output taulako (IO taula) adar bakoitzean duten Balio Erantsi Gordinaren (BEG) arabera, hau da, zuzeneko eraginaren BEGren baliotik abiatuta, IO adar bakoitzean euskarari dagokion zuzeneko ekoizpen balioa eta enpleguaren datuak kalkulatu dira; horretarako, IO adar bakoitzaren BEG eta ekoizpen balioa lotzen dituen koefizientea aplikatuz, estimatu egin da IO adar bakoitzean euskarari dagokion zuzeneko eraginaren ekoizpen balioa. Jarraian, eta IO adar bakoitzean euskarari dagokion zuzeneko ekoizpen baliotik abiatuta, zuzeneko enplegua estimatu da, adar bakoitzeko ekoizpen balioa eta enpleguaren arteko erlazioaren koefizienteak aplikatuz. Aurreko urratsak emanda, euskararen zueneko eragina IO adarren arabera kalkulatu da, hiru aldagai nagusiri jarraiki: ekoizpen balioa, Balio Erantsi Gordina eta enplegua.

3 Zeharkako eragina neurtzeko, berriz, euskarari loturiko sektoreetako eragile ekonomiko eta erakundeek, sektore bertakoei eta gainerako sektore guztiei erositako bitarteko kontsumoak hartu dira kontuan. Ariketa hori, IO taula simetrikoko koefiziente teknikoak erabiliz egin da; koefiziente tekniko horiek, IO adar bakoitzeko ekoizpen balioa eta bitarteko kontsumoak lotzen dituzte; koefiziente teknikoak erabiliz, adar batek bere ekoizpenerako behar dituen bitarteko kontsumoen araberako eragin ekonomikoa kalkulatzen da, zeharkako eragin ekonomikoa alegia. IO taulako koefiziente tekniko biderkatzaileak aplikatuta, bata bestearen segidan elkar hornitzen duten jarduera-adar guztietara zabaltzen den inpaktua kalkulatu dugu. Ondorioz, nahiz eta kopuru baxuak izan, IO taulako adar gehienetara iristen da euskararen zeharkako eragin ekonomikoa.

4 Euskararen zuzeneko eta zeharkako eragin ekonomikoa, IO tauletako 85 jarduera adarren arabera kalkulatu ondoren, irakurketa errazte aldera, 85 jarduera-adar horiek 14 sektore-ekonomikotan bildu ditugu.

### 4.1.5 Eragin induzitua kalkulatzeko prozedura

Eragin induzitua, euskarak zuzenean eta zeharka eragiten duen jarduera ekonomikotik sortutako errentari esker eragindako kontsumo pribatutik eratorritakoa izango litzateke; euskararen zuzeneko eta zeharkako eraginaren Gipuzkoako ekonomiarekiko efektu biderkatzailea kalkulatu behar da, horrenbestez.

Eragin induzituaren zenbatekoa estimatzerakoan honako prozedura jarraitu da:

— IO jarduera-adar bakoitzerako estimatutako zuzeneko eta zeharkako ekoizpen baliotik abiatuta eta IO adar bakoitzeko soldaten ordainketa/ekoizpen balioa koefizientea aplikatuta, zuzeneko eta zeharkako enpleguari dagokion soldaten zenbatekoa kalkulatu da, gizarte kotizazioak aparte utzita.

— Soldatapekoek guztira jasotako errenta gordinari, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren batez besteko tasa efektiboa eta langilearen gaineko gizarte segurantzako kotizazioa kenduta (% 4,70), familiek aurrezkirako eta kontsumorako erabilgarri duten zenbatekoa kalkulatu da. PFEZ batez besteko tasa efektiboa, zergadunek jasotako errentaren arabera eta bakoitzaren egoera pertsonalaren araberako kenkariak ere kontuan hartuta ogasunari egindako ordainketen arabera kalkulatutakoa da. Batez besteko hori, % 16,67koa Espainiar Estatuan (Iturria: Espainiako Gobernua; Zerga Administrazioen Memoria, 2012).

— Errenta garbi edo erabilgarritik zatirik handiena kontsumorako erabiltzen da eta zati txiki bat aurrezkirako. Errenta erabilgarritik aurrezkirako erabilitakoa kenduta, kontsumora destinatutako zenbatekoa kalkulatu da. Espainiako Bankuaren 2013ko Buletin Ekonomikoaren arabera, Espainian familien aurrezki tasa %8,2koa zen 2012aren amaieran. Honenbestez, errenta erabilgarriren % 91,8 izan da familien etxeko kontsumoa estimatzeko erabilitako ehunekoa.

— IO taula simetrikoko datuetatik abiatuta eta adar bakoitzeko ekoizpen baliotik Gipuzkoan egindako familiako azken kontsumora zenbat destinatzen den kontuan hartuta, aurrez kalkulatutako familien etxeko kontsumoaren guztirakoa, taula simetrikoko IO adarren arabera banatu da.

— IO adar bakoitzean familien azken kontsumora bideratutako ekoizpen balioa, oinarrizko prezioetan kalkulatua dago; aldiz, familiek kontsumora destinatutako zenbatekoarekin produktuen gaineko zergak ere ordaindu behar dira. Horrenbestez, familiek azken

kontsumorako erabilitakotik, produktuen gaineko zergak kendu ondoren geratzen den zenbatekoa izan da IO adarren arabera banatu dena. Produktuen gainezko zergak kalkulatzerakoan, I-O adar bakoitzak ekoitzitako produktuaren araberako BEZ tasak aplikatu dira (%4, %10 edo %21).

— Euskararen zuzeneko eta zeharkako eraginaren errentetatik eratorritako kontsumoa IO adar bakoitzean zenbatekoa den jakinda eta adar bakoitzari dagozkion Leontief koefizienteak aplikatuta (BEG/ekoizpen balioarekiko, enplegua/ekoizpen balioarekiko), eragin induzituaren guztirako datuak eskuratu dira (ekoizpen balioa, BEG eta enplegua).

## 4.2 Zuzeneko eta zeharkako eragin ekonomikoa

### 4.2.1 Ekoizpen balioa

Jarduera-ekonomiko baten Balio Erantsi Gordinari erabiltzen dituen bitarteko kontsumoak gehituta lortzen den balioa da ekoizpen balioa. Ekoizpen balioa eta fakturazio bolumenaren artean aldeak egon daitezke, ekoizpenaren zati bat saldu gabe gera daitekeelako edo diruz lagundutako produktuak badira, merkatuan ekoizpen kostuaren azpitik saltzen diren produktuak izan daitezkeelako.

Euskara-sektoreen ekoizpen balioa 1.850 milioi eurokoa da: ekoizpen balioaren %61 (1.126 milioi) zuzeneko eraginari dagokio, %11 zeharkako eraginari (ia 204 milioi) eta %28 eragin induzituari (ia 520 milioi).

38. Taula. Euskararen zuzeneko, zeharkako eta induzitutako eragina GIPUZKOAko sektore ekonomikoetan, ekoizpen balioari jarraiki

| | | Ekoizpen balioa (mila €) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Eragin zuzena | | Zeharkako eragina | | Eragin induzitua | | Guztira | |
| | | mila € | % hor | mila € | % hor | mila € | % hor | mila € | % bertikala |
| I. | Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | - | 0,00 | 202 | 4,64 | 4.163 | 95,36 | 4.366 | 0,24 |
| II. | Erauzte industriak | - | 0,00 | 0 | 0,27 | 167 | 99,73 | 167 | 0,01 |
| III. | Manufaktura industriak | - | 0,00 | 24.931 | 32,34 | 52.149 | 67,66 | 77.080 | 4,17 |
| IV. | Energia, gasa eta ur hornidura | - | 0,00 | 16.946 | 38,11 | 27.518 | 61,89 | 44.464 | 2,40 |
| V. | Eraikuntza | - | 0,00 | 17.689 | 47,04 | 19.917 | 52,96 | 37.606 | 2,03 |
| VI. | Merkataritza, ostalaritza eta garraioak | 16.716 | 7,37 | 33.770 | 14,90 | 176.231 | 77,73 | 226.717 | 12,25 |
| VII. | Informazio eta komunikazio jarduerak | 74.212 | 56,19 | 38.979 | 29,52 | 18.872 | 14,29 | 132.063 | 7,14 |
| VIII. | Finantza zerbitzuak eta higiezinen jarduerak | - | 0,00 | 21.572 | 15,10 | 121.300 | 84,90 | 142.872 | 7,72 |
| IX. | Jarduera profesionalak | 25.462 | 43,39 | 19.151 | 32,64 | 14.062 | 23,97 | 58.675 | 3,17 |
| X. | Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak | - | 0,00 | 17.154 | 47,74 | 18.774 | 52,26 | 35.928 | 1,94 |
| XI. | Herri administrazioa | 123.230 | 100,00 | - | 0,00 | - | 0,00 | 123.230 | 6,66 |
| XII. | Hezkuntza | 785.207 | 98,25 | 2.340 | 0,29 | 11.644 | 1,46 | 799.191 | 43,19 |
| XIII. | Osasun eta gizarte zerbitzuak | - | 0,00 | 2.793 | 12,54 | 19.473 | 87,46 | 22.266 | 1,20 |
| XIV. | Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak | 101.587 | 69,79 | 8.257 | 5,67 | 35.726 | 24,54 | 145.569 | 7,87 |
| GUZTIRA | | 1.126.414 | 60,88 | 203.785 | 11,01 | 519.995 | 28,10 | 1.850.194 | 100,00 |

*Iturria: Eustat, 2016; Siadecok landutako datuak, 2019*

39. Taula. Euskararen zuzeneko, zeharkako eta induzitutako eragina EAEko sektore ekonomikoetan, ekoizpen balioari jarraiki

| | | Ekoizpen balioa (mila €) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Eragin zuzena | | Zeharkako eragina | | Eragin induzitua | | Guztira | |
| | | mila € | % hor | mila € | % hor | mila € | % hor | mila € | % bertikala |
| I. | Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | - | 0,00 | 521 | 4,64 | 10.712 | 95,36 | 11.233 | 0,24 |
| II. | Erauzte industriak | - | 0,00 | 1 | 0,27 | 429 | 99,73 | 431 | 0,01 |
| III. | Manufaktura industriak | - | 0,00 | 64.151 | 32,34 | 134.184 | 67,66 | 198.335 | 4,17 |
| IV. | Energia, gasa eta ur hornidura | - | 0,00 | 43.604 | 38,11 | 70.806 | 61,89 | 114.411 | 2,40 |
| V. | Eraikuntza | - | 0,00 | 45.517 | 47,04 | 51.248 | 52,96 | 96.765 | 2,03 |
| VI. | Merkataritza, ostalaritza eta garraioak | 38.492 | 6,65 | 86.894 | 15,01 | 453.462 | 78,34 | 578.848 | 12,16 |
| VII. | Informazio eta komunikazio jarduerak | 136.236 | 47,79 | 100.296 | 35,18 | 48.559 | 17,03 | 285.091 | 5,99 |
| VIII. | Finantza zerbitzuak eta higiezinen jarduerak | - | 0,00 | 55.508 | 15,10 | 312.117 | 84,90 | 367.625 | 7,72 |
| IX. | Jarduera profesionalak | 39.127 | 31,41 | 49.278 | 39,55 | 36.183 | 29,04 | 124.588 | 2,62 |
| X. | Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak | - | 0,00 | 44.138 | 47,74 | 48.308 | 52,26 | 92.446 | 1,94 |
| XI. | Herri administrazioa | 262.440 | 100,00 | - | 0,00 | - | 0,00 | 262.440 | 5,51 |
| XII. | Hezkuntza | 2.193.077 | 98,39 | 6.020 | 0,27 | 29.962 | 1,34 | 2.229.059 | 46,82 |
| XIII. | Osasun eta gizarte zerbitzuak | - | 0,00 | 7.187 | 12,54 | 50.105 | 87,46 | 57.292 | 1,20 |
| XIV. | Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak | 229.008 | 66,93 | 21.246 | 6,21 | 91.926 | 26,86 | 342.179 | 7,19 |
| GUZTIRA | | 2.898.380 | 60,88 | 524.361 | 11,01 | 1.338.001 | 28,10 | 4.760.742 | 100,00 |

*Iturria: Eustat, 2016; Siadecok landutako datuak, 2019*

### 4.2.2 Balio Erantsi Gordina

Euskarak Gipuzkoan duen Balio Erantsi Gordina, ia 1.252 milioi euro da urtean. Ekarpen horren %68 zuzeneko eraginari dagokio (ia 850 milioi), %8,5 zeharkako eraginari (106 milioi) eta %23,6 eragin induzituari (296 milioi).

40. Taula. Euskararen zuzeneko, zeharkako eta induzitutako eragina GIPUZKOAko sektore ekonomikoetan, Balio Erantsi Gordinari jarraiki

| | Balio Erantsi Gordina (mila €) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Eragin zuzena | | Zeharkako eragina | | Eragin induzitua | | Guztira | |
| | mila € | % hor | mila € | % hor | mila € | % hor | mila € | % bertikala |
| I. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | 0 | 0,00 | 103 | 4,75 | 2.070 | 95,25 | 2.173 | 0,17 |
| II. Erauzte industriak | 0 | 0,00 | 0 | 0,65 | 70 | 99,35 | 71 | 0,01 |
| III. Manufaktura industriak | 0 | 0,00 | 9.023 | 38,76 | 14.256 | 61,24 | 23.279 | 1,86 |
| IV. Energia, gasa eta ur hornidura | 0 | 0,00 | 5.662 | 38,78 | 8.937 | 61,22 | 14.599 | 1,17 |
| V. Eraikuntza | 0 | 0,00 | 5.289 | 47,04 | 5.954 | 52,96 | 11.243 | 0,90 |
| VI. Merkataritza, ostalaritza eta garraioak | 6.183 | 5,07 | 18.093 | 14,82 | 97.781 | 80,11 | 122.057 | 9,75 |
| VII. Informazio eta komunikazio jarduerak | 55.547 | 65,16 | 19.841 | 23,27 | 9.863 | 11,57 | 85.251 | 6,81 |
| VIII. Finantza zerbitzuak eta higiezinen jarduerak | 0 | 0,00 | 17.153 | 15,43 | 94.040 | 84,57 | 111.193 | 8,88 |
| IX. Jarduera profesionalak | 17.987 | 49,49 | 10.641 | 29,28 | 7.715 | 21,23 | 36.343 | 2,90 |
| X. Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak | 0 | 0,00 | 11.485 | 58,24 | 8.236 | 41,76 | 19.721 | 1,58 |
| XI. Herri administrazioa | 42.068 | 100,00 | 0 | 0,00 | 0 | 0,00 | 42.068 | 3,36 |
| XII. Hezkuntza | 671.368 | 98,26 | 1.993 | 0,29 | 9.918 | 1,45 | 683.279 | 54,58 |
| XIII. Osasun eta gizarte zerbitzuak | 0 | 0,00 | 2.149 | 13,27 | 14.041 | 86,73 | 16.190 | 1,29 |
| XIV. Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak | 56.528 | 67,02 | 4.589 | 5,44 | 23.222 | 27,53 | 84.339 | 6,74 |
| GUZTIRA | 849.681 | 67,88 | 106.020 | 8,47 | 296.105 | 23,65 | 1.251.806 | 100,00 |

*Iturria: Eustat, 2016; Siadecok landutako datuak, 2019*

41. Taula. Euskararen zuzeneko, zeharkako eta induzitutako eragina EAEko sektore ekonomikoetan, Balio Erantsi Gordinari jarraiki

| | Balio Erantsi Gordina (mila €) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Eragin zuzena | | Zeharkako eragina | | Eragin induzitua | | Guztira | |
| | mila € | % hor | mila € | % hor | mila € | % hor | mila € | % bertikala |
| I. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | 0 | 0,00 | 273 | 4,75 | 5.462 | 95,25 | 5.734 | 0,17 |
| II. Erauzte industriak | 0 | 0,00 | 1 | 0,65 | 185 | 99,35 | 186 | 0,01 |
| III. Manufaktura industriak | 0 | 0,00 | 23.808 | 38,76 | 37.618 | 61,24 | 61.425 | 1,86 |
| IV. Energia, gasa eta ur hornidura | 0 | 0,00 | 14.940 | 38,78 | 23.582 | 61,22 | 38.522 | 1,17 |
| V. Eraikuntza | 0 | 0,00 | 13.955 | 47,04 | 15.712 | 52,96 | 29.667 | 0,90 |
| VI. Merkataritza, ostalaritza eta garraioak | 14.237 | 4,45 | 47.740 | 14,92 | 258.013 | 80,63 | 319.990 | 9,69 |
| VII. Informazio eta komunikazio jarduerak | 101.268 | 56,37 | 52.354 | 29,14 | 26.024 | 14,49 | 179.647 | 5,44 |
| VIII. Finantza zerbitzuak eta higiezinen jarduerak | - | 0,00 | 45.261 | 15,43 | 248.141 | 84,57 | 293.402 | 8,88 |
| IX. Jarduera profesionalak | 27.686 | 36,37 | 28.078 | 36,89 | 20.358 | 26,74 | 76.123 | 2,30 |
| X. Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak | - | 0,00 | 30.304 | 58,24 | 21.732 | 41,76 | 52.036 | 1,58 |
| XI. Herri administrazioa | 96.889 | 100,00 | 0 | - | 0 | 0,00 | 96.889 | 2,93 |
| XII. Hezkuntza | 1.875.125 | 98,35 | 5.259 | 0,28 | 26.171 | 1,37 | 1.906.554 | 57,72 |
| XIII. Osasun eta gizarte zerbitzuak | - | 0,00 | 5.669 | 13,27 | 37.051 | 86,73 | 42.720 | 1,29 |
| XIV. Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak | 126.825 | 63,35 | 12.109 | 6,05 | 61.276 | 30,61 | 200.210 | 6,06 |
| GUZTIRA | 2.242.030 | 67,88 | 279.751 | 8,47 | 781.324 | 23,65 | 3.303.105 | 100,00 |

*Iturria: Eustat, 2016; Siadecok landutako datuak, 2019*

### 4.2.3 Enplegua

Ia 25.000 lanpostu sortzen ditu euskarak Gipuzkoan, zuzeneko enplegua, zeharkakoa eta induzitua kontuan hartuta. %76,1 eragin zuzenari dagokio (ia 19.000 enplegu), %6,7 zeharkako eraginari (1.660 enplegu) eta %17,2 eragin induzituari (ia 4.300 enplegu).

42. Taula. Euskararen zuzeneko, zeharkako eta induzitutako eragina GIPUZKOAko sektore ekonomikoetan, enpleguari jarraiki

| | Enplegua (lanpostuak) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Eragin zuzena | | Zeharkako eragina | | Eragin induzitua | | Guztira | |
| | Kop | % hor | Kop | % hor | Kop | % hor | Kop | % bertikala |
| I. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | 0 | - | 4 | 4,5 | 75 | 95,5 | 78 | 0,3 |
| II. Erauzte industriak | 0 | - | 0 | - | 0 | 100,0 | 0 | 0,0 |
| III. Manufaktura industriak | 0 | - | 175 | 40,8 | 254 | 59,2 | 428 | 1,7 |
| IV. Energia, gasa eta ur hornidura | 0 | - | 19 | 35,0 | 35 | 65,0 | 54 | 0,2 |
| V. Eraikuntza | 0 | - | 82 | 47,1 | 92 | 52,9 | 174 | 0,7 |
| VI. Merkataritza, ostalaritza eta garraioak | 145 | 6,0 | 312 | 12,9 | 1.966 | 81,2 | 2.423 | 9,8 |
| VII. Informazio eta komunikazio jarduerak | 1.033 | 76,5 | 247 | 18,3 | 69 | 5,1 | 1.349 | 5,4 |
| VIII. Finantza zerbitzuak eta higiezinen jarduerak | 0 | - | 59 | 20,5 | 228 | 79,5 | 287 | 1,2 |
| IX. Jarduera profesionalak | 423 | 54,1 | 217 | 27,8 | 142 | 18,1 | 781 | 3,1 |
| X. Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak | 0 | - | 371 | 61,6 | 231 | 38,4 | 602 | 2,4 |
| XI. Herri administrazioa | 746 | 100,0 | 0 | - | 0 | - | 746 | 3,0 |
| XII. Hezkuntza | 15.367 | 98,5 | 39 | 0,2 | 194 | 1,2 | 15.600 | 62,8 |
| XIII. Osasun eta gizarte zerbitzuak | 0 | - | 29 | 10,4 | 247 | 89,6 | 276 | 1,1 |
| XIV. Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak | 1.195 | 58,4 | 106 | 5,2 | 746 | 36,4 | 2.047 | 8,2 |
| GUZTIRA | 18.909 | 76,1 | 1.659 | 6,7 | 4.280 | 17,2 | 24.848 | 100,0 |

*Iturria: Eustat, 2016; Siadecok landutako datuak, 2019*

43. Taula. Euskararen zuzeneko, zeharkako eta induzitutako eragina EAEko sektore ekonomikoetan, enpleguari jarraiki

| | Enplegua (lanpostuak) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Eragin zuzena | | Zeharkako eragina | | Eragin induzitua | | Guztira | |
| | Kop | % hor | Kop | % hor | Kop | % hor | Kop | % bertikala |
| I. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | 0 | - | 8 | 4,5 | 169 | 95,5 | 177 | 0,3 |
| II. Erauzte industriak | 0 | - | 0 | - | 1 | 100,0 | 1 | 0,0 |
| III. Manufaktura industriak | 11 | 1,1 | 395 | 40,3 | 573 | 58,5 | 979 | 1,7 |
| IV. Energia, gasa eta ur hornidura | 0 | - | 43 | 35,0 | 80 | 65,0 | 123 | 0,2 |
| V. Eraikuntza | 0 | - | 185 | 47,1 | 208 | 52,9 | 393 | 0,7 |
| VI. Merkataritza, ostalaritza eta garraioak | 162 | 3,1 | 704 | 13,3 | 4.443 | 83,7 | 5.309 | 9,5 |
| VII. Informazio eta komunikazio jarduerak | 1.907 | 72,7 | 559 | 21,3 | 156 | 5,9 | 2.622 | 4,7 |
| VIII. Finantza zerbitzuak eta higiezinen jarduerak | 0 | - | 133 | 20,5 | 516 | 79,5 | 649 | 1,2 |
| IX. Jarduera profesionalak | 1.527 | 65,3 | 490 | 21,0 | 320 | 13,7 | 2.337 | 4,2 |
| X. Alokairu jarduerak, bidai agentziak eta zerbitzu osagarriak | 0 | - | 838 | 61,6 | 523 | 38,4 | 1.361 | 2,4 |
| XI. Herri administrazioa | 1.511 | 100,0 | 0 | - | 0 | - | 1.511 | 2,7 |
| XII. Hezkuntza | 35.894 | 98,6 | 88 | 0,2 | 439 | 1,2 | 36.421 | 64,9 |
| XIII. Osasun eta gizarte zerbitzuak | 0 | - | 65 | 10,4 | 558 | 89,6 | 623 | 1,1 |
| XIV. Kultur, kirol eta aisialdiko zerbitzuak | 1.712 | 47,1 | 240 | 6,6 | 1.686 | 46,3 | 3.638 | 6,5 |
| GUZTIRA | 42.724 | 76,1 | 3.748 | 6,7 | 9.670 | 17,2 | 56.142 | 100,0 |

*Iturria: Eustat, 2016; Siadecok landutako datuak, 2019*

# 5

# Euskararen ekarpena Gipuzkoako ekonomiaren BPGan



## 5.1 Euskararen BPGa kalkulatzeko prozedura

Barne Produktu Gordina (BPG), herrialde baten aberastasuna eta ekonomiaren bilakaera neurtzeko gehien erabiltzen den magnitude ekonomikoa da; herrialde baten urteko barne jarduera ekonomiko osoa zenbatekoa izan den adierazten du. Urte arteko alderaketak eginda, BPGren igoerak ekonomiaren bilakaera positiboa izan dela adierazten du; jaitsierak, berriz, ekonomia atzeraldian sartu dela. BPG erabiltzen da baita ere herrialde arteko alderaketak egiteko eta zorra, defizita edo I+G gastua bezalako adierazle ekonomikoak erlatiboki neurtzeko.

Ikerketa honen helburua, euskarak Gipuzkoako ekonomiari egiten dion ekarpena neurtzea izanik, BPGk badu beste erabilgarritasun garrantzitsu bat ere, gizarte eta jarduera-sektoreen adierazle ekonomikoak BPGrekin alderatuz, ekonomia osoarekiko duten garrantzia neurtzeko erreferentzia baita.

Prozedurari dagokionez, Balio Erantsi Gordinari produktuen gaineko zerga garbiak erantsi behar zaizkio, alegia, Balio Erantsiaren Zerga edo BEZa gehitu eta diru-laguntzak kendu. Euskarari loturiko produktu eta zerbitzuen BEZagatik  ogasun publikoak dituen diru-sarrerez eta jarduera ekonomiko horietarako herri-administrazioek emandako diru-laguntzez ari gara, honenbestez.

## 5.2 Euskararen pisua Gipuzkoako ekonomian

Barne Produktu Gordinak denbora tarte batean herrialde batek ekoitzitako produktu eta zerbitzu guztien balioa ematen duenez, Gipuzkoako Barne Produktu Gordin osoarekiko euskararenak hartzen duen pisua jakinez zehaztuko dugu euskarak Gipuzkoako ekonomiari egiten dion ekarpena.

Gipuzkoako BPGa 24.400 milioi eurokoa da eta euskarari dagokiona, 1.304 milioi inguru. Hortaz, euskarak Gipuzkoako ekonomiari egiten dion ekarpena Barne Produktu Gordinaren %5,3 dela esan daiteke (EAEn ez da %5era iristen).

Behin, BPGrekiko pisua adierazten duen datu erlatiboak jakinda, baditugu euskarak Gipuzkoako ekonomian duen dimentsio ekonomikoa eta eragin ekonomikoaren azken emaitzak:

ENPLEGUA: Gipuzkoako ekonomiako enplegu osoaren %7,99 euskara-sektoreek sortua da; Gipuzkoako enplegu osoa 310.900 da eta euskararena, enplegu zuzena, zeharkakoa eta induzitua ere kontuan hartuta, 24.848. Kopuru horretatik ia 19 mila lanpostu, euskararen jarduerek zuzenean sortutakoak dira, 1.650 zeharkako eraginari dagozkionak eta beste 4.280 eragin induzituarenak. EAEn euskara sektoreek eragindako enplegua, orotara, zertxobait baxuagoa da, %5,99.

BALIO ERANTSI GORDINA: Gipuzkoako ekonomiaren Balio Erantsi Gordinaren %5,68 euskararekin lotura duten jarduera ekonomikoei lotua dago; 22 mila miloi eurokoa da Gipuzkoako BEG guztira eta euskara-sektoreena berriz, 1,251 mila miloi eurokoa. EAEko ekonomiaren Balio Erantsi Gordinean, euskara sektoreek duten pisua %4,97 da.

BARNE PRODUKTU GORDINA: Gipuzkoako Barne Produktu Gordinaren %5,34 euskararekin zuzenean eta zeharka loturaren bat duten sektore ekonomikoei dagokie. 24,4 mila milioi Gipuzkoako BPG guztira, eta euskarari dagokiona 1,34 mila miloi euro. EAEko Barne Produktu Gordinarekiko, aldiz, %4,59ko pisua du.

Aurreko aldagai makroekonomikoak ikusita, ondoriozta daiteke euskarak zuzenean eta zeharka sortzen duen ekonomiaren datuak esanguratsuak direla eta euskararen balioa termino ekonomikoetan ere handia dela. Administrazioari lotuak dauden enplegu eta baliabideez aparte, euskararen inguruan lan egiten duten sektore ekonomikoek enplegu asko eta balio erantsia handia sortzen dute.

44. Taula. Euskararen balio ekonomikoa eta GIPUZKOAko ekonomian duen eraginaren guztirako magnitudeak

| | | Gipuzkoa | | | EAE | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Euskararen datuak | Guztira | Guztiarekiko (%) | Euskararen datuak | Guztira | Guztiarekiko (%) |
| Zuzeneko eragina | Ekoizpen balioa | 1.126.414 (mila €) | 58.673.949 (mila €) | 1,92 | 2.898.380 (mila €) | 177.122.673 (mila €) | 1,64 |
| | Balio Erantsi Gordina | 849.681 (mila €) | 22.031.270 (mila €) | 3,86 | 2.242.030 (mila €) | 66.507.155 (mila €) | 3,37 |
| | Enplegua | 18.909 | 310.900 | 6,08 | 42.724 | 937.400 | 4,56 |
| Zeharkako eragina | Ekoizpen balioa | 203.785 (mila €) | 58.673.949 (mila €) | 0,35 | 524.361 (mila €) | 177.122.673 (mila €) | 0,30 |
| | Balio Erantsi Gordina | 106.020 (mila €) | 22.031.270 (mila €) | 0,48 | 279.751 (mila €) | 66.507.155 (mila €) | 0,42 |
| | Enplegua | 1.659 | 310.900 | 0,53 | 3.748 | 937.400 | 0,40 |
| Eragin induzitua | Ekoizpen balioa | 519.995 (mila €) | 58.673.949 (mila €) | 0,89 | 1.338.001 (mila €) | 177.122.673 (mila €) | 0,76 |
| | Balio Erantsi Gordina | 296.105 (mila €) | 22.031.270 (mila €) | 1,34 | 781.324 (mila €) | 66.507.155 (mila €) | 1,17 |
| | Enplegua | 4.280 | 310.900 | 1,38 | 9.670 | 937.400 | 1,03 |
| Eragina Guztira | Ekoizpen balioa | 1.850.194 (mila €) | 58.673.949 (mila €) | 3,15 | 4.760.742 (mila €) | 177.122.673 (mila €) | 2,69 |
| | Balio Erantsi Gordina (oinarrizko prezioetan) | 1.251.806 (mila €) | 22.031.270 (mila €) | 5,68 | 3.303.105 (mila €) | 66.507.155 (mila €) | 4,97 |
| | Enplegua | 24.848 | 310.900 | 7,99 | 56.142 | 937.400 | 5,99 |
| Produktuen gaineko zerga garbiak | Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ) | 70.776 (mila €) | - | - | 182.114 (mila €) | - | - |
| | Diru-laguntzak | 18.864 (mila €) | - | - | 101.509 (mila €) | - | - |
| | Guztira | 51.912 (mila €) | 2.363.258 (mila €) | 2,20 | 80.605 (mila €) | 7.134.113 (mila €) | 1,13 |
| | Euskararen Barne Produktu Gordina | 1.303.718 (mila €) | 24.394.528 (mila €) | 5,34 | 3.586.728 (mila €) | 73.641.268 (mila €) | 4,59 |

*Iturria: Eustat, 2016-2017-2018; INE, 2018; Siadecok landutako datuak, 2019*